# Goienkaria

2008ko maiatzaren 16a > Egubakoitza > VIII. urtea > 332. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net




"Denentzako beste badago Bolivian, baina gaizki banatuta dago aberastasuna"

**Mertxe Galdos**
Misiolaria > 09

**BIDEZKO MERKATARITZA**
**Ekitaldiak izango dira Antzuolan, Aretxabaletan eta Arrasaten** > 05

**ELGETA**
**Bihar, zapatua, hasiko da I. Aste Berdea, ura ardatz hartuta** > 37

**ESKORIATZA**
**Udalak eta kirol elkarteak harremanak sendotu dituzte** > 34

**FUTBOLA**
**Mondrak lasai dagoen Aloña hartuko du Mojategin** > 40-41

**JENDARTEA** > AHT-REN AURKAKO MUGIMENDUA

# Gelditourrek interesa eta harridura piztu ditu

**IRUDIAK** Atzo, Bergaran, "orain arte ikusi ez diren irudiak" erakutsi zituzten AHTk ibarrean izango duen eraginaz

**GAUR ERE BAI** Gaur goizean Antzuolan eta arratsaldean Eskoriatzan ibiliko da AHTren aurkako ibilaldia > 06



**MIGUE** Migue magoa, kartekin trikimailu bat egiten, iazko mostran. Aurten ere egongo da. JOSETXO ARANZABAL

**G2a**

## Puntako magoak Elgetan izango dira aste bukaera osoan

IV. Magia Mostra izango da Elgetako Espaloia antzokian gaur (egubakoitza) 22:30ean hasi eta domekara bitartean. Aurtengo magoak Morrison, Andy Gonzalez, Ilva Scali, Mirco, Brando eta Silvana, Migue eta Justo Thaus izango dira. > 43-44

**EKONOMIA** > ALDUNDIA

## Aldunditik 175,3 milioi etorriko dira ibarrera

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1.197 milioi euro bideratuko ditu udaletara, eta horietatik 175,3 Debagoieneko udalendako izango dira; Aldundiaren aurrekontu osoaren %14,64 da hori. Aldundiaren aurrekontua hiru ataletan banatzen da: zuzeneko dirulaguntzak (32,5 milioi ibarrerako), azpiegituretarako dirua (102 milioi) eta Udal Finantzaketarako Foru Fondotik jasotzen dena (39,67 milioi). > 04

**HEZKUNTZA** > MU

## Proiektuen zuzendaritza alorrean, MU erreferente

Mondragon Unibertsitatea eta Innobasque batu egingo dira proiektuen zuzendaritzarako goi mailako masterra eskaintzeko. Bi erakundeok sinatutako itunak erreferente bihurtuko du Euskadi proiektuak zuzentzeko goi mailako hezkuntzan, Europan. Hainbat ekintza eramango dituzte aurrera biek batera, hezkuntza unibertsitarioan eta proiektuen zuzendaritzarako etengabeko prestakuntzan. > 07

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 02-07
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55








**ELKARTASUNA** > AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA

# Elkartasuna ardatz hartuta, 30 urtez lanean amnistia aldarrikatuz

**SORRERA** Orain dela 30 urte inguru sortu zen Amnistiaren Aldeko Mugimendua, elkartasun taldeek bat eginda, errepresioa areagotu zenean

**SALAKETA** AAMn borondatez lanean dihardutenek, besteak beste, dispertsioa, torturak eta errepresioa salatzea eta laguntza ematea dute helburu

**EPAIKETA** Hamarna urteko kartzela zigorra ipini nahi diete Amnistiaren Aldeko Mugimenduko 27 kideri, eta defentsari uko egin diote



Senideek eta lagunek espetxeetara bisita ugari egite

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

Ibarreko hainbat preso politikok 30 urtetik gorako kartzela zigorra dute. 30 urte dira presoen, errepresaliatuen eta haien senideen aldeko laguntza eta elkartasun lanean dihardula Amnistiaren Aldeko Mugimenduak (AAM).

Francoren azken urteetan eta haien ondorengo egoera politikoan kokatu du AAMko kide ohi Goio Etxabek mugimenduaren sorrera: "Errepresioa areagotu egin zen eta horrek eragin zuen errepresaliatuen kopurua eta moduak areagotzea. Lehendik bazeuden taldeak laguntza eta babesa ematen zutenak, baina egoerak eraginda talde bateratua sortu zuten, erakunde moduan elkartasunak, laguntzak eta babesak oihartzun handiagoa izateko".

Antolaketa berri hark oihartzuna izan zuela esan digu Goio Etxabek: "1977an gertatu zen guk sasi-amnistia bezala ulertzen duguna. Errepresaliatu edo espetxeratu politikoak lekuz aldatu zituzten, baina, egoera ez zenez aldatu, handik gutxira berriz ere Espainiako espetxeak preso politikoz betetzen hasi ziren".

**DISPERTSIOAREN SALAKETA**

Salaketa da AAMko kideen zereginetako bat. Salatzen dute presoen dispertsioa. Illart Azkaratek, Miren Azkarate presoaren senideak, Jon Agirre preso aramaioarraren ibilbidea ipini du egoera horren adibide moduan: "Jon Agirreren ibilbidea espetxean 27 urte luzekoa da. Espetxe mordoa pasa du: Carabanchel, Puerto, Alcala, Herrera de la Mancha hasieran, gero dispertsioa ere bizi izan zuen. Hori izan zen, hain zuzen ere, presoen kolektiboak ezagutu zuen errepresio neurrietako bat, dispertsioa. Geroago, hiru laurdenak bete zituen, eta esan arren beteta zituztenak kaleratu behar zituztela, barruan mantentzen dituzte. Gainera, hiru laurdenen legea kendu egin zuten gero. Gaixotasun larria diagnostikatu zioten eta 90. artikulua ukatu diote, eta azkena izan da bizi osoko zigorraren doktrina aplikatzea. Salatu nahi duguna hori da Jon Agirre espetxe politikaren ibilbiderekin bat datorrela jasan dituelako eskubide urraketa guztiak, alde guztietatik".

**"Legezkoak dira eskubide urraketak, baina delitua da eskubide urraketa horiek salatzea: dispertsioa, tortura, errepresioa, polizia jazarpena; presoen senideendako dirua jasotzea..."**

Horren harira, salatzen dituzte torturak eta errepresioa. "Salatu nahi dugu ikusten dugun kartzeletako egoera; dispertsioak zenbat senide hiltzen dituen, astero zenbat bidaia eta arrisku pairatzen dituzten dispertsioaren eraginez; bizi osoko kartzela zigorrak; torturak, badirudien arren txosten medikoak agertzen direnean soilik existitzen direla", azaldu digu Illart Azkaratek.

Horretarako elkartu egiten dira eta baita presoei eurei eta senideei elkartasuna adierazi ere. Dirulaguntzak eskuratzea, presoak bisitatzea, senideei borondatez laguntzea, ekitaldiak antolatzea... dira AAMn dihardutenen lanetariko batzuk.

**MUGIMENDUAREN AURKA EPAIKETA**

Musu-truk jarduten dutenek presoen eta senideen aldetik esker ona jaso arren, euren lana esker txarrekoa ere izaten da askotan, eta esker txarretik harago ere joan da azkenaldian. Apirilaren 21etik aurrera AAMko 27 lagun epaitzen dihardute eta hamarna urte eskatu dituzte bakoitzarendako.

"Guretzat epaiketa hori ez da 27 pertsonaren aurkakoa, baizik eta AAMren aurkakoa. AAMren ekintzei eta errepresio salaketari 270 urteko kondena ezartzen dio fiskaltzak. 27 pertsona horietako bakoitzari ez diote inputazio pertsonalik egotzi. Polizia iturrietatik eta torturetatik irtendako deklarazioen bidez gidoi bat landu dute, non AAMko partaidetzat jotzen dituztenez hainbat lagun egiten dituzten ETAren parte ere. Hortaz, AAM epaitzen dute 27 pertsona erreferentetzat hartuz, lan gehiago egin dutelako-edo", dio Goio Etxabek.

Illart Azkarate ere bat dator horrekin: "Giza talde bat epaituko dute lan hori egiteagatik: salaketa egiteagatik, Jon Agirreri elkartasuna erakusteagatik, dispertsioa salatzeagatik, tortura salatzeagatik, errepresioari aurre egiteagatik, polizia jazarpena salatzeagatik eta presoen eta iheslarien senideendako dirulaguntza biltzeagatik. Legezko dira eskubide urraketa horiek guztiak, baina delitua da eskubide urraketa horiek salatzea".

Epaituek, ordea, uko egin diote defentsari eta salatu dute epaiketa politikoa dela. "Epaia aurretik emana dago bultzada politikoarekin. Hortaz, auzipetuek defentsari uko egitea da hori salatzeko modu bat. Auzitegi Nazionaleko bozgorailua erabili dute salatzeko Estatuak berak Euskal Herrian helburu politikoak lortzeko erabiltzen duen indarkeria", dio Illart Azkaratek.

**ETORKIZUNA**

Epaiketaren ostean, egoerari erreparatuta AAMren etorkizuna nola ikusten duten ere galdetu diegu.

## Langraitzeko espetxera joan ziren 120 lagun, gaixo dauden presoen askatasuna eskatzera

Langraitzeko espetxerako martxa egin zuten Arrasateko, Aramaioko eta Algortako 120 lagunek joan zen domekan, gaixo dauden presoak aske uzteko eskatzeko. Langraitzeko espetxeko erizaintzan daude Arrasateko Josu Uribetxeberria, Jon Agirre aramaioarra (zapatuan bete zituen 27 urte kartzelan) eta Algortako Angel Figeroa, hirurak gaixotasun sendaezinekin. Hiru presoek parez pare ikusi zituzten herritarrak eta amnistiaren aldeko oihuak eta euskal presoak etxeratzeko aldarrikapenak ez ziren falta izan. Elkartasuna adierazteaz gainera, askatasuna exijitzera eta egoera salatzera joan ziren hara.

Bestalde, Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako epaiketaren harira zapatuan Bilbon egingo duten manifestazioan parte hartzeko eta autobuserako txartelak ohiko tokietan salgai daudela jakinarazi nahi diete interesatuei.



Langraitzeko espetxearen kanpoko aldean egon ziren domekan. AAM



en dituzte, baita elkartasuna adierazteko ekitaldiak ere. AAM

## Debagoieneko preso politikoak

| IZENA | HERRIA | ATXILOTZE DATA | EPAIA | KARTZELA | EGOERA |
|---|---|---|---|---|---|
| Jon Agirre | Aramaio | 1981/05/11 | 30 urte | Langraitz | Kideekin |
| Ane Miren Alberdi | Elgeta | 2003/01/10 | 15 urte | Fleury Merogis | Kideekin |
| Aitor Aranzabal | Bergara | 2008/02/11 | Epaitu gabe | Navalcarnero | Kideekin |
| Iñaki Arietaleaniz | Bergara | 2005/03/19 | Prebentiboa | Osny | Kideekin |
| Josu Arkauz | Arrasate | 1991/03/20 | 30 urte | Puerto III | Kideekin |
| Joseba Arregi | Oñati | 1992/03/29 | 30 urte | Valdemoro | Kideekin |
| Xabier Arregi | Bergara | 2007/12/01 | 11 urte | Alacant-Foncalent | Kideekin |
| Amaia Arrieta | Arrasate | 2007/01/19 | 6 urte | Dueñas | Umearekin |
| Mikel Askasibar | Bergara | 1991/02/09 | 30 urte | Herrera | Kideekin |
| Luis Mari Azkargorta | Bergara | 88/04/21//03/11/27 | 30 urte | Zuera | Bakartuta |
| Gorka Aztiria | Arrasate | 05/04/07//07/09/27 | 18 hilabete | Valladolid | Kideekin |
| Joseba Erostegi | Antzuola | 1997/07/01 | 30 urte | Herrera | Kideekin |
| Zuhaitz Errasti | Aretxabaleta | 2005/07/28 | Prebentiboa | Moulins-Yzeure | Kideekin |
| Ino Galparsoro | Arrasate | 2008/04/30 | Prebentiboa | Soto del Real | Kideekin |
| Jose Ignacio Gaztañaga | Arrasate | 1988/03/29 | 30 urte | Albolote-Granada | Kideekin |
| Jose Miguel Gaztelu | Bergara | 1997/07/01 | 30 urte | Topas | Kideekin |
| Txus Goikoetxea | Arrasate | 2001/06/14 | 17 urte | Albacete | Kideekin |
| Jon Mikel Illarramendi | Oñati | 2003/07/30 | Prebentiboa | Moulins-Yzeure | Kideekin |
| Marixol Iparragirre | Eskoriatza | 2004/10/03 | Prebentiboa | Fresnes | Kideekin |
| Natale Landa | Arrasate | 2007/11/30 | 11 urte | Curtis-Teixeiro | Kideekin |
| Xabier Lazkano | Bergara | 1993/08/06 | 19 urte+4 hilabete | Alcazar de San Juan | Kideekin |
| Igor Letona | Arrasate | 2003/11/16 | Prebentiboa | Nanterre | Kideekin |
| Gaizka Olabarrieta | Arrasate | 05/04/07//07/10/10 | 18 hilabete | Martutene | Kideekin |
| Alberto Plazaola | Oñati | 1990/11/17 | 30 urte | Curtis-Teixeiro | Kideekin |
| Premin Sanpedro | Arrasate | 2001/06/14 | 17 urte | Algeciras-Botafuego | Kideekin |
| Xabier Ugarte | Oñati | 1997/07/01 | 30 urte | A Lama | Kideekin |
| Josu Uribetxeberria | Arrasate | 1997/07/01 | 30 urte | Langraitz | Kideekin |
| Jose Gabriel Urizar | Arrasate | 1985/02/26 | 30 urte | Jaen II | Kideekin |
| Kepa Urra | Aretxabaleta | 1992/01/29 | 30 urte | Puerto I | Kideekin |
| Xabin Usandizaga | Oñati | 1997/07/03 | 30 urte | Badajoz | Kideekin |
| Jesus Mari Zabarte | Arrasate | 1984/06/15 | 30 urte | Huelva II | Kideekin |
| Mikel Zubimendi | Bergara | 2007/10/05 | Prebentiboa | Daroca | Kideekin |

ITURRIA: AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA

Goio Etxaberen esanetan, "moldeak aldatu arren egoera bere gordinean ez da aldatu. Errepresioa bideratzen duten arrazoiek eta gatazka politikoak bertan diraute. Hortaz, lehen baldin bazeuden elkartasun keinu, babes eta laguntzak gaur ere badaude eta bihar ere izango dira. AAM desagerraziko duen gauza bakarra da egoera politikoari aurre eginez arazoa konpontzea".

Illart Azkaratek ere dio ez dituztela euren senideak inoiz espetxeetan bakarrik utziko: "Historiak erakutsi du preso politikoak, torturatuak eta laguntza beharrean diren senideak dauden artean AAM egongo dela. Bilatuko dira bideak ondo antolatzeko. AAMrekin amaitzea da beharbada errepresioaren bidez lortu nahi dutena, baina benetan amaitzeko euskal presoen eskubideak errespetatu, errepresioa gelditu eta benetan gatazka sortzen duten arrazoietara jo behar lukete".

Orain artean bezala jarraituko dute, hortaz, borondatez laguntza eta elkartasuna erakutsiz.

### ZER DA ZURETZAT AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA?



**Nekane Cid**
L. M. Azkargorta presoaren emaztea

### "Senideak bakarrik ez gaudela erakutsi dute"

"Babes handia izan da niretzat. Presoekin egiten dituzten basakeriak salatzen eta kaleratzen lagundu digute; dispertsioa, isolamendua, bizi osorako kondenak jendarteratu. Izugarrizko lana egin dute. Senideak bakarrik ez gaudela erakutsi digute. Epaiketa astakeria hutsa da, elkartasuna ezin daitekeelako epaitu. Deliturik ez dago beraien lanean".



**Axu Cardenal**
AAMko kide ohia

### "Sostengua emateko mugimendua da"

"Milaka pertsonak osatzen dugun mugimendua. Euskal borrokalari, kaltetu, preso, iheslari, atxilotu eta torturatuei sostengu ekonomikoa ematen die. Lan hori egiteagatik ari dira 27 lagun ez ezik, mugimendu osoa epaitzen. Atxilo ditzakete pertsonak, baina ez ideiak. AAM amaitzeko desiratzen nago, herriari urtetan eragindako errepresioaren amaiera litzatekeelako".



**Pedro Guridi**
Preso ohia

### "Kartzelan bizirik egotea ekarri du"

"Erreferente bat da; Euskal Herrian eramaten den borrokaren erreferentea, hain zuzen ere. Kartzelan egon naizenean ere, kalearekin kontaktua mantentzeko, nire herrian gertatzen ari denaren berri jakiteko laguntza izan da. Bada, azken finean, kartzelan bizirik egotea ekarri du niretzat Amnistiaren Aldeko Mugimenduak".



**Kepa Urra**
Euskal preso politikoa

### "Herriaren babesa helarazten digute"

"Euskal Herriaren aurkako errepresioari aurre egiten eta errepresaliatuen egoera herriratzen ezinbesteko lana egiten duen mugimendua da. Espetxean biziarazten dizkiguten baldintzen gainetik, herri oso baten babesa helarazten digute kanpoko berri emanez, gure senideei lagunduz eta gure eskubideak exijitzeko ekimenak eginez".



**AUTOBIDEAK** > TXOSTENA

# Ikerketa baten arabera, A-8 autobidea Estatuko merkeenetarikoa da

Gidariek, Donostia eta Bilbo lotzen dituen autobidea erabiltzeagatik, 0,08 euro ordaindu behar dituzte kilometro bakoitzeko



Argazkian, auto bat Arrasateko bidesarian autobidea ordaintzen. GOIENKARIA

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Bilbo eta Donostia lotzen dituen A-8 autobidea Estatuko garestienetarikoa zela uste zuten askok. Bada, *Consumer* aldizkariak ikertu dituen 16 autobideak kontutan hartuta, hori ez da horrela. Aldiz, Gasteiz eta Burgos lotzen dituen AP-1 autobidea laugarren garestiena da.

Malaga eta Estepona lotzen dituen AP-7 eta Madrid eta Toledo arteko AP-41 autobideak dira garestienak: kilometro bakoitzeko, 0,14 euro ordaindu behar dira. A-8 autobidearen tarifa, kilometro bakoitzeko, 0,08 euro da. Aldiz, AP-1 autobidearena, 0,11 euro kilometroko.

**BESTE HAINBAT ALDERDI**

*Consumer* aldizkariak egindako txostenean, autobideen bidesariez gain, beste hainbat alderdi ikertu dituzte, besteak beste, zoladuraren egoera, segurtasuna eta garbitasuna, eta zerbitzuguneen egoera. Horiek guztiak kontutan hartuta, bateez besteko nota eman diete autobideei; hala, A-8 autobideari "ondo" eman diote, eta AP-1 autobideari, "oso ondo".

Ikerketaren arabera, Bilbo eta Donostia arteko autobidearen zoladura egoera "oso onean" dago, eta autobidearen segurtasuna "ona" da. Errepide honi jartzen dioten eragozpen bakarra da: errepidearen eskuin aldean aldapa, horma eta hesi gehiegi daudela. Bestalde, A-8 autobidean aztertu dituzten bi zerbitzu guneak "eskasak" direla dio *Consumer* aldizkariko txostenak.

AP-1 autobidearen zoladura, segurtasuna eta tunelen egoera "oso onak" dira.

**FORU ARAUA ALDATZEKO ESKAERA**

Bestalde, Aralarrek autobideen bidesari sitseman aldaketak egitea proposatu du Batzar Nagusietan. Hain zuzen, Suitzan eta Austrian erabiltzen duten sistema eskatu dute. "Guk eskatzen duguna da ibilgailu arinendako urteko kuota bat finkatzea, Suitzan egiten den moduan. Era berean, 3,5 tonatik gorako ibilgailueek oraingo sistemarekin jarrai dezakete, baina hobekuntza egitea proposatzen dugu", azaldu digu Aralarko batzarkide Rebeka Ubera elgetarrak.

## Aratz elkartea nagusitu da Atzegik antolatutako film laburren lehiaketa

Atzegik antolatutako film laburren lehiaketako lehenengo eta bigarren sariak ekarri dituzte Debagoienera Aretxabaletako Aratz eta Arrasate-Bergarako Txolarte elkarteek. Hain zuzen, aretxabaletarrek lehen saria eskuratu dute *Amapolia* izeneko pelikularekin. Bestalde, Txolartek *Tariro-tariro* filmarekin bigarren saria lortu du. Gainera, aktore onenaren saria, Jabi Elgero bergararrak eroan du. Sari banaketa ekitaldia martitzenean egin zuten Donostian.



JOKIN ANTXIA

**LANDA EREMUA** > JARDUNALDIAK

## Gaur, landa turismoaren etorkizuna aztertuko dute

Hainbat aditu bilduko dira Arantzazun, Euskal Nekazarien Batasunak deituta

**M.B.** > ARANTZAZU

*Landa turismoaren etorkizuna mundu aldakor batean* izeneko jardunaldia egingo dute, gaur, Arantzazun, Euskal Nekazarien Batasunak (ENBA) antolatuta. Helburua da "baserriko errenta turismoarekin osatzea" erabaki dutenen etorkizunaren gainean "hausnarketa egin eta eztabaidatzea".

**LANDA-TURISMO EZBERDINAK**

Foru Aldundiko Landa Inguruneko diputatu Rafael Uribarrenek egingo du hasiera ekitaldia. Ondoren, 45 minutuko bi hitzaldi egingo dituzte. Kafe orduaren ondoren, Frantzia, Suitza, Katalunia eta Euskadiko landa turismoen ezberdintasunei buruz egingo dute berba. Bukatzeko, jardunaldiaren ondorioak aterako dituzte.

berriak 5 urte
Zatoz gurekin ospatzera!
Eskualdez eskualdeko ekitaldiak
• BERRIAk 5 urte. Bideoa
• Hitzaldia. Aurrera begirako erronkak
• Mokadua
DEBAGOIENAKO EKITALDIA
Maiatzak 20, asteartea, 20:00etan
Arrasateko Kulturaten
berria
luzatu bostekoa

> ATENTATUA

## Legutianoko atentatua gaitzesteko bilkurak egon ziren

Joan den eguaztenean Legutianoko Guardia Zibilaren kuartelaren aurka egindako atentatua eta Juan Manuel Piñuel guardia zibilaren heriotza gaitzesteko kale bilkurak egon ziren atzo Debagoienean.

Eguerdian egin zituzten elkarretaratzeak, erakunde publikoen aurrean, Oñatin eta Arrasaten, esaterako. Elkarretaratze isilak izan ziren eta, alderdi politikoekin batera, herritar batzuk ere egon ziren. Arrasatekoan, PSE-EE, EAJ, EA eta Ezker Batuko zinegotziak izan ziren. Oñatikoarekin bat egin dute Lourdes Idoiaga alkateak, Ainhoa Galdos alkate-ordeak eta Oñati Ezkerretik koalizioko ordezkariek, besteren artean.

> URTEURRENA

## 'Berria' sortu zeneko bosgarren urteurrena ospatuko dute

Ekainaren 21ean, bost urte beteko dira *Berria* egunkaria sortu zutenetik. Horregatik, Donostiako Kursaalean ospakizun ekitaldia egingo dute.

Ekainaren 21a bitartean, baina, hainbat ekitaldi egingo dituzte eskualdez eskualde. Horrela, datorren martitzenean, maiatzak 20, Debagoieneko ekitaldia egingo dute, Arrasateko Kulturaten, 20:00etan. Bertara eskualdeko harpidedunak, akziodunak, gizarte eragileak... daude gonbidatuta. Ekitaldia ondorengoa izango da: *Berria-k 5 urte* bideo emanaldia; horren ostean, Joanmari Larrarteren eskutik *Aurrera begirako erronkak* izeneko hitzaldia; eta amaitzeko, luntxa.

> EKONOMIA

## Eroskik 207 milioi euroko irabaziak izan ditu 2007an

Urte ona izan zen iazkoa Eroskirendako. Alde batetik, salmentak %19 igo dira, 7.642 milioiraino; lortutako irabaziek, berriz, %9 egin dute gora, eta 207 milioi eurokoak izan dira.

Bestalde, aipatu behar da egin dituen inbertsioen artean garrantzitsuena Caprabo enpresarena izan dela. Caprabo enpresa Eroski taldearen barruan sartzeak –zehazki Caprabo osoaren %75– Estatuko banaketa enpresen buru jartzen du Eroski. Modu horretan, 15.000 pertsona baino gehiago izango dira Eroskiko lantaldeko kide berriak; horrela, Eroskiko lantaldea 50.587 pertsonek osatzen dute.

**Iñigo Trueba** > Bidezko merkataritza taldeko kidea

# "Bidezko merkataritzaren kontzientzia lortzea da helburua"

JASONE ZABALA > ARRASATE

**Debagoieneko bidezko merkataritza taldekoa da Iñigo Trueba. Joan den maiatzaren 10ean, Donostian Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna ospatu zuten. Aldarrikapenak aurrera eramanez, hainbat ekitaldi egingo dituzte Debagoienean ere.**

**Maiatzaren 10ean Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna ospatu zen Donostian. Zer aldarrikatu duzue?**

Bidezko merkataritzaren helburuak –bidezko merkataritza eta klima aldaketaren arazoak– jendeari jakinaraztea izan zen eta da helburua, eta horretarako kanpaina bat dago martxan: *Egizu planetaren alde. Aukeratu bidezko merkataritza*. Bertan gogoratzen da nola herri txiroetan bizi direnak kaltetuta ateratzen diren, batez ere klima aldaketarengatik, eta horrek bidezko merkataritzan ondorioak sortzen ditu. Klima aldaketaren ondorioz egoten diren uholdeak, lehorteak... herri txiroetan duen eragina handiagoa da herri garatuagoetan baino.

**Aipatu duzun lelo horrekin zer adierazi nahi da?**

Aurrera eramaten ari garen kanpaina bi urterako izango da, bidezko merkataritzaren alde lan egiten duten beste herrialde batzuekin elkarlanean, hala nola Txekia eta Espainiarekin. Leloarekin lortu nahi dugu klima aldaketak dituen eraginaz jabetzea jendea; kontzientziatzea eta baita lan egitea ere.

**Bihar Aretxabaletan Euskararen Eguna ospatuko da. Zeintzuk dira egun horretarako antolatu dituzuen ekitaldiak? Eta Antzuolan?**

Aretxabaletan Loramendi Elkarteak eramaten du aurrera egun hori. Bertan bultzatu nahi duguna da Hiruatx elkartearen bidez, alde batetik, euskararen erabilera eta, bestetik, bidezko merkataritza zer den ezagutzera ematea herriko jendeari; bai Aretxabaletan eta baita Antzuolan ere postu ezberdinak jarriko ditugu, eta bertan jendeak aukera izango du elikadurako gauzak zein artisautzako gauzak erosteko, eta gailletak eta txokolatea dastatzeko ere egongo da. Hemendik ateratzen dugun dirua Arrasateko Eroski merkatalritzagunean dagoen bidezko merkataritzako Harreman dendara joango da. Domekan Aita Menni ospitalean ere egongo gara, gure kanpaina bultzatuz. Egun horietaz gainera, ekainaren 1ean Bergaran egongo gara, baita Mundumira festan ere, ekainaren 6tik 8ra. Amaitzeko, Arrasateko Elkartasun Egunean ere egongo gara.

**Ekitaldi horien guztien helburu nagusia zein da?**



Bidezko merkataritzako taldeko kide da Trueba. ARRITXU BARRUSO

**"Jendeari jakinaraztea izan zen eta da helburua, eta horretarako kanpaina bat dago martxan"**

**"Gobernuei inplikatzeko eskatu nahi diegu, bultza dezatela bidezko merkataritza"**

Jendeak kontzientzia hartzea klima aldaketak duen eraginaz. Horregatik, gobernuei inplikatzeko eskatu nahi diegu, bultza dezatela bidezko merkataritza; horretarako, egiten dugun ekitaldi bakoitzean sinadurak batuko ditugu. Ondoren, guztiak Espainiako presidenteari bidali nahi dizkiogu, bidezko merkataritzaren garrantziaz jabetzeko eta mundu justuagoa lortzeko borrokan laguntzeko.

ULMA — ULMA Hormigón Polímero, Koop. E
Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

Eguna: 2008ko maiatzaren 23a.
Ordua: 15:00etan lehen deialdia eta15:30ean bigarrena.
Tokia: Kultura Etxea - Oñati.

GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea.
2. 2007ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2008ko gestio plana berrestea.
3. ULMA Taldeari buruzko txostena.
4. 2007ko ekitaldiko kontuak eta balantzea aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
5. Auditore izendatzea.
6. Soberakin garbiak banatzea.
7. Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoen (H.K.S.F.) erabilera.
8. Egituraz gaindiko erakundeekin zerikusia duten gaiak.
9. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
10. Kapital ekarpenak derrigor aldatzeko eta, hala badagokio, Estatutu Sozialetako 17, 21, 38, 54, 56, 57 eta 72 artikuluak eta Lehenengo Xedapen Gehigarria aldatzeko akordioak.
11. Kooperatibaren Barne Araudiaren 44 eta 46 artikuluak aldatzea, hala badagokio.
12. Mendeko ekarpen finantzarioen jaulkipena.
13. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea.
14. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
15. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
16. Galderak eta eskaerak.

*Oñati, 2008ko maiatza*

OHARRA: Bazkide guztien jakinaren gainean zera jartzen da, kontabilitate liburuak eta deialdi honetan proposatutako estatutuko eta Barne Araudiaren aldaketen testuak eta zergatien txostena egoitza sozialean aztertzeko eskubidea dutela. Hala eskatzekotan, dokumentuok eman egingo zaizkie, edo doan bidaliko

LKS — LKS INGENIERIA, KOOP. E

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIALDIA

Eguna: 2008ko maiatzaren 23an.
Ordua: Lehenengo deialdia 10:00etan eta bigarrena 10:30ean.
Tokia: Gesalibar auzoko Aita Menni Ospitaleko Ekitaldi Aretoa (Arrasate).

GAI ZERRENDA

1. 2007ko maiatzaren 25eko Ohiko Batzar Nagusiko Aktaren onespenari buruzko txostena.
2. Aktaren onespenerako bazkideak izendatzea.
3. 2007ko ekitaldiko memoria, emaitzen balantze eta kontuak eta Gestio Txostena aztertu eta onartzea.
4. Soberakin erabilgarrien banaketa.
5. Heziketa eta Sustapenerako Fondoa banatzea.
6. Ekonomi Erregimeneko Estatutu Xedapenak.
   - Ekarpenak
   - Kapitalerako ordainketa
   - Kapitalerako ekarpenen eguneratzea
7. Lan Jarduera Borondatez Uzteko Laguntzen proposamena
8. Kontu-auditoreak izendatzea
9. Ingeniaritzaren eta Zerbitzuen Dibisio Koop. Elk.-ri buruzko txostena.
10. MCCri buruzko informazioa.
11. Galderak eta eskaerak.

*Arrasate, 2008ko apirilaren 17an.*
*Kontseilu Errektoreko Lehendakaria.*

OHARRA: Bazkide guztiek jaso dute Ohiko Batzar Orokorrak hartu beharreko erabakien proposamena.

**EKONOMIA** > DIRULAGUNTZAK

# Ibarrera 175,3 milioi euro, Foru Aldunditik

102 milioi jasoko dituzte udalek, azpiegiturak hobetzeko proiektuak laguntzeko

Udal Finantzaketarako Foru Fondotik 39,67 milioi euro bideratuko dituzte Debagoieneko herrietara

**M.B.** > BERGARA
Gipuzkoako Foru Aldundiak ezagutzera eman ditu 2008rako aurrekontutik zenbat diru bideratuko duen lurraldeko udaletara: hain justu ere, 1.197 milioi euro. Horietatik, 175,3 milioi Debagoieneko zortzi udal gipuzkoarrek jasoko dute: hain zuzen, aurrekontu osoaren %14,64.

Herri bakoitzak jasoko duen diru kopurua kontuan hartuta, Arrasatek jasoko du euro gehien, 54 milioi, eta Elgetak, berriz, gutxien, 991.000 euro.

**DIRUA, HIRU ATALETAN**

Foru Aldundiaren aurrekontua hiru zatitan banatzen da: alde batetik, zuzeneko dirulaguntzak daude; beste alde batetik, azpiegituretarako dirua; eta azkenik, herri bakoitzak Udal Finantzaketarako Foru Fondotik (UFFF) jasoko duena.

Zuzeneko dirulaguntzen bidez banatuko dituzten 429 milioi eurotik, 32,5 jasoko dituzte Debagoieneko udalek. Atal horretan, diru gehien jasoko dutenak Arrasateko (13 milioi) eta Bergarako (10 milioi) udalak dira. Ibarreko herriek jasoko duten diruarekin, guztira, 234 proiektu egingo dituzte.

Bestalde, azpiegituretan egin beharreko lanak egin ahal izateko, guztira 309 milioi euro banatuko ditu Foru Aldundiak, eta Debagoienera 102 milioi etorriko dira. Atal horretan, baina, ibarreko bi herrik ez dute inolako laguntzarik jasoko: Antzuolak eta Elgetak.

Azkenik, Udal Finantzaketarako Foru Fondoari (UFFF) dagokionez, 39,67 milioi euro banatuko dituzte ibarrean. Atal horretan diru gehien Arrasatek eta Oñatik jasoko dute. UFFF %8,2 igo da aurten, eta guztira 458 milioi euro banatuko dituzte.

## Herri bakoitzak jasoko duen dirulaguntza, atalka

| HERRIA | ZUZENEKOA | AZPIEGITURAK | UFFF | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| ANTZUOLA | 1.609.654,82 € | 0 € | 1.331.286,66 € | 2.940.941,48 € |
| ARETXABALETA | 1.618.192,04 € | 22.904.318,00 € | 4.156.489,91 € | 28.678.999,95 € |
| ARRASATE | 13.508.292,08 € | 26.086.078,00 € | 14.419.097,83 € | 54.013.467,91 € |
| BERGARA | 10.443.540,19 € | 5.846.968,00 € | 9.574.272,67 € | 25.864.780,86 € |
| ELGETA | 300.725,58 € | 0 € | 690.285,01 € | 991.010,59 € |
| ESKORIATZA | 1.420.512,78 € | 37.258.326,00 € | 2.538.571,69 € | 41.217.410,47 € |
| LEINTZ GATZAGA | 313.961,52 € | 10.608.990,00 € | 236.031,32 € | 11.158.982,84 € |
| OÑATI | 3.342.618,60 € | 150.813,00 € | 6.958.634,15 € | 10.452.065,75 € |

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

**Nerea Gangoiti** > Arrasateko AHT Gelditu!

## "Gelditourren helburua informazioa eman eta eztabaida bultzatzea da"

**M.B.** > ARRASATE
**Atzo heldu zen Debagoienera Gelditour, AHT Gelditu! Elkarlanaren ibilaldia. Hain zuzen, Arrasaten, Bergaran, Antzuolan eta Eskoriatzan egon zen. Arrasateko AHT Gelditu! Elkarlaneko kide Nerea Gangoitik eman dizkigu ekimenaren ezaugarriak eta helburuak.**



MIREIA BIKUÑA

**Gelditour iritsi da Debagoienera, eta lekukoa Durangaldeak hartuko du.**

Bai, hala da. Gaur, Arrasaten eta Bergaran egin ditugu ekitaldi nagusiak eta domekan lekukoa hartuko dute Durangaldeko kideek. Horretarako, irteera egingo dugu Udalatxera domekan: batzuk Arrasatetik irtengo gara eta beste batzuk, Durangotik. Eguerdi aldera tontorrean elkartuko gara, eta lekukoa emango diegu.

**Baina AHT Gelditu! Elkarlanaren Gelditour ekimenak aurrera jarraitzen du maiatzaren 31ra arte.**

Nafarroako Cortes herrian hasi genuen ekimena, eta AHTren bideak ukitzen dituen herri guztietatik pasako da kamioia maiatzaren 31ra arte. Egun horretan, Donostian, egun guztiko jaialdia egingo dugu. Debagoienetik autobusak irtengo dira bertara. Dena den, oraindik ez dugu erabaki izena non eman beharko den.

**Ze helbururekin abiarazi zenuten dinamika ibiltaria?**

Helburu nagusia herritarrei informazioa ematea da. Era berean, AHTk kaltetuko dituen herrien arteko elkarlana bultzatu nahi dugu, eta herri horietan dauden eragileen atxikimendua lortu gura dugu.Guk salatzen duguna da AHT bezalako proiektu bat egin ahal izateko ez direla pauso egokiak jarraitu. Guk uste dugu lehenengo informazioa zabaldu beharko litzatekeela, ondoren eztabaida sortu, eta azkenik, erabakiak hartu.

**Lortutako atxikimenduekin zer egingo duzue?**

Atxikimenduekin informazioa zabaldu gura dugu eragile ezberdinetara.

**Atxikitu gura duenak zer egin behar du?**

Orain arte, gehienbat, esparru ezberdinetan lan egiten duten eragileengana jo dugu, eta, beraz, taldeko atxikimenduak lortu ditugu. Baina aukera badago banakakoak egiteko.

**AHT Gelditu! Elkarlanaren inguruko berriak ezagutu gura duenak nora jo dezake?**

Informazio guztia biltzen duen webgunea dugu, hain zuzen, *www.ahtgelditu.org*. Hor ikus daitezke antolatuko ditugun ekitaldiak.

Auzo Lagun ERKOP

AUZO LAGUN, KOOP. E

Estatutu Sozialen 32. artikuluak dioenaren arabera

**OHIKO BATZAR OROKORRA**

**Eguna:** 2008ko maiatzaren 24a.
**Ordua:** 10:30ean lehen deian eta 11:00etan bigarrenean.
**Tokia:** Garaia Berrikuntza Gunearen auditorioa (Arrasate).

**EGUNEKO AZTERGAIAK**

1. Akten onespenari buruzko informea eta akordioa.
2. Memoriaren irakurketa eta onarpena.
   2.1. 2007ko Gestioari buruzko akordioa.
   2.2. 2008ko Gestio-Planaren onarpena
3. 2007ko kontuen eta balantzeen azterketa.
4. Soberakin garbien banaketa
5. Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
5.1. Sarrerako kuota eta ekarpena.
5.2. Kapitalaren ordaina.
5.3. Giza heziketa eta promoziorako fondoaren aplikaziorako irizpideak.
6. MCC; Banaketa elkarketa; ERKOP Nekazaritza-Elikadurako elkarketa txostenak.
7. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak.
8. Eskari eta galderak.

*2008ko maiatzaren 6an*

**EKONOMIA** > INBERTSIOAK

# Lanpostuak sortzeko inbertsioa egingo du Mondragon Taldeak

Guztira 2.300 milioi euro inbertituko ditu bere industria berriztatzeko eta enplegua bermatzeko helburuarekin

**M.B.** > ARRASATE
Mondragon Taldeak energia berriztagarrien eta gizarte-osasunaren esparruak sustatu nahi ditu, besteak beste, bere industria berritzeko eta enplegua bermatzeko.

Horretarako, 2.300 milioi euro inbertituko ditu lau urtean, hain zuzen 2012. urtera arte. Era berean, diru horrekin 90 proiektu abian jarriko dituzte, eta 2.500 lanpostu sortzeko asmoa dute.

**2.500 LANPOSTU BERRI**

Merkatuari aurre egiteko berrikuntza eta sustapena dira Mondragon Taldeak erabiliko dituen bi irizpideak 2009-2012 aldirako. Jose Mari Aldekoak zuzentzen duen taldeak 2012rako 2.500 lanpostu sortu gura ditu. "Aldaketak datoz, eta gure betebeharra da merkatuak sortzen dituen aukerak aprobetxatzea", dio Mondragon Taldeko Enpresa Sustapenerako kide Jose Mari Usatorrek. Helburu hori lortzeko, Mondragon Taldeko Kontseilu Orokorrak sustapena bultzatzeko ildo nagusiak onartu zituen urtarrilean egindako bileran. Han aurreikusitakoaren arabera, 90 proiektu berri jarriko dituzte martxan hurrengo lau urteetan; baina kooperatiba bakoitza izango da proiektu ezberdinak abian jarriko dituena.

Lanpostu berriak sortu ahal izateko, Mondragon Taldeak energia berriztagarrietan eta gizarte-osasun esparruetan egingo ditu inbertsioak. "Gure asmoa da bi esparru horietan sartzea, eta bakoitzaren ikerketa egitea, 12 bat negozio egiteko aukera izan dezagun", esan du Mondragon Taldeko Sustapen Zentroko zuzendari Javier Vallsek.

**HIRU GILTZARRI**

Mondragon Taldeak 2012rako duen helburu nagusia da fakturazioaren %30 produktu eta zerbitzu berriei esker lortzea, banaketa eta finantzak alde batera utzita. Bestalde, etorkizuneko erronkei aurre egiteko hiru giltzarri erabiliko ditu Mondragon Taldeak: hain zuzen ere, berrikuntza, ekintzailetza eta nazioartekotza.

**kontsumoa**



Inbertsioetan, UBT kontzeptua argi eduki behar da. GOIENKARIA

## Kontu korronteen errentagarritasuna oso baxua da

N.M. > BERGARA

Malguak izan arren, kontu korronteek oso errentagarritasun eskasa dute, edukitzekotan. Hala ere, aurrezkiak sartzerako orduan, Espainiako familien %44,39k entitate horiek aukeratzen ditu. Horrelako kontratuak nahiago dituztela dirudi, bereziki, diru gutxi dutenek, eta gutxi dira etekinak lortzera arriskatzen direnak. Espainiako Bankuak likidezia falta izugarria du krisi finantzarioaren ondorioz, eta atzerriko entitateek dirurik mailegatzen ez diotenez, komisio mota gehienak igo ditu azkeneko urtean zehar.

Inbertsio guztietan hainbat kontzeptu argi eduki behar dira, hauen artean, UBT edo Urteko Baliokide Tasa. Tasa horrek urte oso batean emango dituzten interesak biltzen ditu. Beraz, tentu handiz ibili behar da urte osorako eskaintzen ez denean. Adibidez, %6ko UBTa eskaintzen digute hilabete batean. Baina %6 hori urte beteari dagokionez, hilabete bati dagokion proportzioa egokituko zaigu soilik.



### Gazteak eta mugagabeko kontratua

Gazteen arazo larrienetariko bat kontratuen denboratasuna da. Espainian egin den ikerketa baten arabera, non 16 eta 29 urte bitarteko gazteak aztertu diren, lanean dauden gazteen %47k bakarrik du mugagabeko kontratua. Halaber, kontratu horien kopurua baxuagoa da atzerritarren artean. Lanbide publikoa ez da salbuespena, izan ere, Administrazio Publikoan lan egiten duten emakumezkoen %72,1ek eta gizonezkoen %56,2k aldi baterako kontratua du.



### Laguntza publiko batzuk ez dira aitortu behar

Laguntza publiko asko ez dira Errenta Aitorpenean sartu behar. Seme-alaben elikatzerako laguntzak ez dira aitortu behar, ezta elbarriak edo pertsona nagusiak zaintzeagatik ematen diren laguntzak ere. 600 eurotik beherako soldata duten 65 urtetik gorakoek ez dituzte aitortu behar zaharren egoitzan egoteko jasotzen dituztenak. Hiesa edukitzeagatik, Espainiako Gerran lesioren bat izan zutenek eta terrorismo biktimek jasotzen dituzten pentsioak ez dira aitortu behar.

**HEZKUNTZA** > MONDRAGON UNIBERTSITATEA

# Euskadi Europa osoan erreferente bihurtzeko akordioa sinatu dute

Mondragon Unibertsitateak eta Innobasquek proiektuen zuzendaritzarako masterra eskainiko dute 2009. urtean hasita

NEREA MENOR > ARRASATE

Mondragon Unibertsitatea eta Innobasque batu egingo dira proiektuen zuzendaritzarako goi mailako masterra eskaintzeko. Josu Zabala errektoreak eta Pedro Luis Uriarte Innobasqueko lehendakariak sinatutako itunak, proiektuak zuzentzeko goi mailako hezkuntzan, Europan erreferente bihurtuko du Euskadi. Hainbat ekintza eramango dituzte aurrera hezkuntza unibertsitarioan eta proiektuen zuzendaritzarako etengabeko formazioan.

Azkeneko helburua Euskadiren bigarren eraldaketa sozial eta ekonomikoa bultzatzea izango da. Innobasque Euskadiren berriztapenaren koordinatzaile eta bultzatzailea izango da prozesu honetan, eta Mondragon Unibertsitatea berriztapenaren gaineko ikerketen, garapen zientifiko eta teknologikoaren sustatzailea izango da.

Proiektuen gestio eta zuzendaritzak garrantzi handia hartu duen eremua da enpresa eta erakundeetan. Bi entitate hauek, MU eta Innobasque, egitarau zehatz bat jarriko dute abian, eta 2009an masterra eskaintzen hasiko da. Honela, Mondragon Unibertsitatea munduko unibertsitate ohoretsuenen artean kokatu da proiektuen zuzendaritza irakasteagatik.

Hitzarmenaren alorrean aurrera eramango diren ekintzetan, ondorengo esparruak jorratuko dituzte: gizarte-mobilizaziorako jarduerak, *2008, berriztapenaren urtea* bultzatzeko ekintzak; eta beste hainbat alorretan sartzen diren jarduerak. Hala nola, eraldaketa enpresariala, gizarte berriztapena edo ekintzailetza.

**MU-REN PROIEKTUAK ATZERRIAN**

Hau ez da proiektuen gainean MUk egiten duen eskaintza bakarra. Mondragon Unibertsitateak eta MCC Internacionalek sinatu berri duten lankidetza-hitzarmenaren arabera, unibertsitateko ikasleek Mondragon Taldearen atzerriko filialetan egin ahal izango dituzte euren karrera-bukaerako proiektuak. Helburua "ikasleari lan-giroan jarduteko eta haien prestakuntza enpresetako atal operatiboetan osatzeko aukera ematea" da. Hitzarmenaren iraupena hiru urtekoa izango da eta gehienez sei urteraino luzatu daiteke. Nazioarteko sei delegazio ditu, Brasilen, Errusian, AEBetan, Mexikon, Txinan eta Indian. Ikasleen eginkizunak lan merkatu-ikerketak, prospekzio-analisiak, negozio-aukeren analisia eta kooperatibak atzerrian ezartzeko ikerketak egitea izango da.

**MOODLE JARDUNALDIAK**

Moodle Esperientzien Elkartrukerako II. Jardunaldiak burutuko dira maiatzaren 23an Arrasaten. Moodleen erabilera eta garapen posibleei buruz eztabaidatzeko aukera eskaintzen da jardunaldi hauen bitartez. Moodle esperientzia unibertsitarioak eta ez-unibertsitarioak jorratuko dira, enpresa edo formazio iraunkorreko esperientziak, Moodlerentzako erabilgarritasun garapen berriak, ezarpena eta zabalkundea.

ESANAK

**"Europako gailurrera eramango gaituen bidea hartuko dugu belaunaldi bakar batean"**

**Pedo Luis Uriarte** > Innobasqueko lehendakaria




Pedro Luis Uriarte, Innobasqueko lehendakaria, eta Josu Zabala, MUko Errektorea. GOIENKARIA

## gure artekoak

**VIANO FUN** > Mercedes etxeak merkatuan du Viano Fun autoa. Batez ere, jende gazteari zuzendutako autoa da; furgoneta kontzeptua ezagutzen duenarentzat aukera ezin hobea da Mercedes etxeko Viano Fun modeloa.

**Aritz Linazisoro** > Goiko Leniz etxeko saltzailea

# "Aukera ona eta praktikoa eskaintzen du Fun modeloak"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Arrasateko Goiko Leniz etxean Mercedes autoak saltzen dituzte; tartean, furgonetak: Marco Polo eta Viano Fun. "Furgoneta kontzeptua ulertzen dutenentzat aukera ona da Viano Fun autoa. Kanpina eta furgoneta uztartzen ditu", azaldu du Aritz Linazisoro saltzaileak.

Bi luzera ezberdinetan merkaturatu dute furgoneta: 4,75 metrotan eta 4,99 metrotan. Luzera ezberdinen arabera eserleku kopurua ere ezberdina da: bost edo zazpi eserleku.

**OHEA, EGOKITUTA**

Beste furgoneta batzuekin alderatuta, egokitutako ohea dauka Viano Fun furgonetak. Atzeko hiru eserlekuak luzatu egiten dira; hala, 1,35x1,93 metroko ohea geratzen da (bertsio txikia). "Erdian, hegaletik irteten den mahai bat dago. Gidariaren eserlekua biratu eta eserleku hori eta atzealdeko beste hiru eserlekuen erdian mahaia geratzen da", dio Linazisorok.

Gainera, aukera bezala beste ohe bat ere badago: gorantz igotzen den sabaiko ohea. Modu horretan, lau pertsonarentzako lo egiteko ohea geratzen da Viano Fun furgonetan: bi goian eta beste bi behean.



Viano Fun furgoneta Mercedes Goiko Lenizen. ARANTZAZU EZKIBEL

**Viano Fun 2.0 CDI 116 ZP**

| | |
|---|---|
| Prezioa | 34.561 euro |
| Luzera | 4,99 metro |
| Zabalera | 2,24 metro |
| Kontsumoa | 6,9 litro /100 km(2) |
| Abiadura | 179 km/h(3) |
| Otik 100era | 13 seg. |
| CO2 isurketak | 221 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

**SEGURITATEA ETA EZAUGARRIAK**

"Beste turismo askok baino portaera hobea du furgoneta horrek errepidean", dio Linazisorok. Hortaz, seguritate ona dauka: ABS sistema, egonkortasun kontrola eta trakzio kontrola ditu autoak.

Ezaugarriei dagokienez, sei abiadurako kanbio-kaxa dauka. Gainera, bolantea norberaren altuerara egokitzen da eta hainbat funtzio kontrolatzeko botoiak ditu bolanteak. Aire-girogailu automatikoa eta berogailu estatikoa eskaintzen ditu. Baita nabigatzailea ere.

## etxeko leihotik



Leire Kortabarria
lkortabarria@goiena.com

# Haizetara botatako lumak, gero zeinek jaso?

Azken egunotan, Debagoienean bertan, izan dugu komunikabide batzuen sentsazionalismo-goseak eta beste batzuen interesak eragiten dutenaren beste adibide bat. Elgetako Domingo Iturbe kalearen auziaz nabil.

Elgetako Udalak kale horren izenaren nondik norakoak argitzeko prentsaurrekoa deitu eta hurrengo egunean oraindik gezurra esaten zebiltzan hainbat komunikabide ezagun. Tira; pentsa dezakegu nahastu egin zirela, gogo txarrez egin bariko hanka-sartzeren bat egon zela. Baina komunikabide jakin batek, istorioak berak nahi zuen zukurik ez zuela jakin zuenean, sartutako hanka ateratzerik ez zuen nahi izan; alegia, ez zuen albiste hori eman nahi izan. Hedabide batek bere ideologia izateko askatasun osoa du, baina horren izenean zein sentsazionalismoaren izenean bere egінbeharra traizionatzea eta bere irakurle edo ikus-entzuleak horrela iraintzea larria da, gero!

**"Komunikabide batek ez zuen sartutako hanka ateratzerik nahi izan"**

Bi ondorio nabarmenduko ditut. Bat: zuzenketa sartu zuten medioen hartzaileetatik, zenbatek sinistuko dute oraindik hasierako bertsioa? Eta bi: auskalo horrelako zenbat gol sartuko diguten, guk inoiz jakin barik. Arrisku hori egon badagoela jakitea da gure defentsa bakarra.

**> Korpus eguna**

**ospatuko dugu laster oñatiarrok. Iaz ez nuen joaterik izan, baina aurten ez dut hutsik egingo. Egun horretako edertasunaz gozatzen jarraitzeko, erakusketa zabalduko dute.**

**> Txokolategintzak**

**badauka leku-erreferente bat orain Oñatin, Klaxk-ek zabaldu duen txokolateixan. Herriko ikur kultural eta artistikoak agertzen dira txokolate-zorroetan. Lan polita egin dute.**

## begi-bistan



**Ahatea Irizar jauregiko loratEgian (Bergara) 2008/05/09**

**Argazkia:** Arantzazu Ezkibel.
**Testua:** Arantzazu Ezkibel.

Bitorianatxorekin batera iritsi zen ahatea Bergarara. Pazko jaietako giroa ezagutu nahiko zuen! Irizar jauregiko lorategian harrapatu genuen. Bakarrik eta galduta zegoela zirudien.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Andoni Zubizarreta**
FUTBOLARI OHIA

Athletic futbol taldeko jokalari ohia Kursaalean egon zen hitzaldi baten hizlari. Hain zuzen, enpresa munduan kirol ideiak nola landu daitezkeen azaldu zuen. Aretxabaletarra Make a Team enpresako ordezkaria da, Juan Antonio Corbalanekin batera.



**Lurdes Idoiaga**
OÑATIKO ALKATEA

Oñatiko alkatea Kutxako agintE batzorde berriko kideetako bat da. Kutxako administrazio kontseiluak dituen 17 kideetatik bederatzi aukeratu zituzten apirilean egindako batzar nagusian.

Bestalde, Xabier Iturbe da Kutxako presidente berria.



**Jose Manuel Ruiz**
ENTRENATZAILEA

Bederatzi denboralditan Elgoibar eskubaloi taldeko entrenatzaile izan dena omendu zuten, maiatzaren 3an. Oñatiarrak elkarteko presidente Antxon Gurrutxagaren eskutik oroigarria jaso zuen. Euskal Herriko eskubaloi federazioko ordezkariak ere egon ziren.

Oñatiko Murgialdai baserrikoa jaiotzez, Txilen bizi da gaur egun Mertxe Galdos. 26 urte zituenean sartu zen Nevers ahizpen konpainian. Madrilen egon zen lehenengo; han Kimika ikasketak egin zituen. 1985ean Hego Amerikara joan zen. Urte asko eman ditu Bolivian, Potosiko goi-lautadan eskolak ematen. Orain, erretiratuta dago eta Santiagon (Txile) bizi da.

**Mertxe Galdos** > Misiolaria Txilen

# "Denentzako beste badago, baina aberastasuna gaizki banatuta dago"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

**Martxo hasieran etorri zen Mertxe Galdos oñatiarra familiakoak bisitatzera. Hiru urtean behin izaten du aukera hori misiolari oñatiarrak; dagoeneko Txilera joana da hango lanekin jarraitzera. Urte hauetako bizipenak azaldu dizkigu.**



Mertxe Galdos, Murgialdai baserriko atean. ARANTZAZU EZKIBEL

**Misiolari moduan, zer egiten duzu Txilen?**

Gaur egun erretiroa hartuta daukat eta ez dut eskolarik ematen. Hala ere, beste hainbat lan eta konpromiso ditut. Alde batetik, gu bizi garen parrokian laguntzen dut; bertan egiten diren elizkizunak antolatzen laguntzen ibiltzen naiz. Hau da, gizartean Jesusen hitza zabaltzea da gure ardura. Elizara etortzen diren lagunekin biltzen gara eta batzarrak egiten ditugu.

Bestalde, etorkinekin egiten dugu lan. Txilera etorkin asko heltzen dira, batez ere Perutik. Haiekin egon eta ahal den neurrian laguntza eskaintzea ere bada gure ardura.

**Etorkin asko iristen da Txilera?**

Bai, esan bezala, batez ere Peruko etorkinak dira Txilera iristen direnak. Txile aurrerapauso handia egin duen herria da; oinarrizko beharrak aseta daudela esan daiteke. Beste herrialde batzuetan, Perun esaterako, pobrezia handiagoa dago. Horregatik, jendea Txilera bizimodu berri baten bila etortzen da.

Etorkin txiletarrak bizi kalitatea hobetu gura du, eta Europara edo AEBetara joaten da.

**Bestalde, haurdun dauden nerabeekin ere egiten duzue lan.**

Bai, hala da. Osasun etxearekin batera egiten dugu lan. Haurdun dagoen nerabea osasun etxera joaten denean, datu guztiak hartzen dizkiote. Neska gaztea bakarrik joan bada edo etxean arazoak dituela konturatzen badira osasun etxekoak, guri deitzen digute. Osasun etxetik nerabearen datuak ematen dizkigute eta gure lana haien gurasoekin egotea da. Nerabearen eta gurasoen arteko zubi lana egiten dugu. Egoera zein den azaltzen dugu; gero, jarraipena egiten diogu nerabeari; haurrak bi urte izan arte egiten dugu jarraipena.

13 eta 17 urte bitarteko neskak dira eta eskolan, urte amaieran izaten duten jaian geratzen dira haurdun.

**Txilen bizi aurretik Bolivian egon zinen. Zer egiten zenuen han?**

Bolivian La Llaguan, Potosi probintzian egon nintzen. Txilerekin alderatuz, hango egoera ezberdina da. Herrialde oso aberatsa da; baina hango aberastasun guztia beste herrialde batzuek ustiatzen dute. Gaueko eskola batean egiten nuen lan; hara, batez ere, langileak, emakumeak eta meatzariak etortzen ziren. Lanpostu hobea lortu eta euren burua gainditu gura zutenak.

Bolivian mineral asko dago; urrea, zilarra, eztainua... Oraingo presidentea hasi da mineral batzuk nazionalizatzen, eta, dirudienez, aurrerantzean, gehiago nazionalizatzeko asmoa dauka.

**Alde handia dago Txileren eta Boliviaren artean?**

Bai, bi herrialde horietako egoerak ezberdinak dira. Txilek azken urteetan aurrerapauso handia eman du. Oinarrizko beharrak bermatuta dituen herria da; gaur egun, haur guztiek eskolara joateko eskubidea dute. Europako herrialdeetara begira dagoen herria da. Bolivia oso herrialde aberatsa da, baina pobrezia handia dago.

ETORKINAK

**"Txilera etorkin asko etortzen dira; batez ere, Peruko etorkinak izaten dira"**

BOLIVIA

**"Bolivia herrialde aberatsa da: mineral asko dago, baina beste herri batzuen esku"**

TXILE

**"Azken urteetan, Txilek aurrerapauso handia eman du; Europara begira dagoen herria da"**

**Hego Amerikan eta Ertamerikan aldaketa gertatzen ari dela esan daiteke. Nola ikusten duzu egoera?**

Bai, poliki-poliki aldaketa badator. Bolivian, esaterako, gaur egungo presidentea indigena da [Evo Morales]. Gertatzen dena da inguruan dituen asko eta asko indigenak direla eta ez dutela behar besteko hezkuntzarik horrelako karguetan egoteko. Hortaz, asmo on asko izan arren, ez daude gertatuta.

**Urte hauetan guztietan, zer izan da gogorrena?**

Bolivia den moduko herrialde aberatsa izanda, horren gaizki zergatik bizi diren pentsatzea da gogorrena. Azken finean, guztiak ondo bizi izateko besteko aberastasuna badago; baina ez da aberastasun hori ondo banatu. Pena ematen du hori ikusteak. Izan ere, Boliviako eskualde aberatsenetan izugarrizko etxeak ikus daitezke. Baina handik aldendu eta miseria dago. Kontraste handia dago aberatsen eta pobreen artean. Hori hemen ez da gertatzen.

**Nola ikusten duzu Elizako goi organoek eta herriak bizi duten aldea?**

Egia da tartea dagoela Elizak dioenaren eta kalean egiten duen lanaren artean. Baina Txilen, esaterako, parrokian lan handia egiten da. Kaleko jendea ondo antolatuta dago eta lan handia egiten dute batzarretan. Bertako gotzainak ere lan handia egiten du kaleko jendearekin.

**Badaukazu Oñatira bueltatzeko asmorik?**

Oraingoz, ez. Osasunez ondo nagoen bitartean, han jarraituko dut. Pozik bizi naiz.



zabalik

Eneida Iturbe

# Ur faltan

Miquelek (bai, *q*-rekin, katalana da eta) sufritu egiten du Antzuolako iturriak ura bota eta bota ikusten dituen bakoitzean. Nire lehengusu Mikelek, aldiz, ikaragarri disfrutatzen ditu bizikletan buelta batzuk egin eta gero egunero Kalebarrengo iturrian edaten dituen zurrutadak. Inoiz iturria siku topatzea posible denik ere ez du imajinatzen. Miquelentzat pantanoak euron gaitasunaren %29an beteta egotea dezente da; Mikelentzat, berriz, asko ala gutxi? Auskalo! Ez du bere hamar urteetan hortaz arduratu beharrik izan.

Ura falta da Bartzelonan. Ura eta beste zenbait gauza. Turistentzat bakarrik da oasi hiria. Ura ekartzeko hamaika ideia eta aipatu ezin den hitz hori (badakizue, "tras... ba... sea") saihesteko beste hainbeste modu asmatu dituzte Generalitatean. Ura faltan eta sormena soberan hemen. Astelehenean Panamako banderadun barkua ailegatu zen portura. Egun baterako ura zekarren. Agortu da honezkero.

**"Miquelentzat pantanoak %29an beteta egotea dezente da"**

**"Panamako barkuak egun baterako ura zekarren; agortu da honezkero"**

Joan zen aste bukaeran, azkenean, ganoraz egin zuen euria. Ondo dakite bai Pazkoak pasatzera Saloura hondartza gosez eta eguzki bila etorritako bergararrek. Zaparradei esker, egoera ez ei da hain larria eta igerilekuak betetzeko debekua bertan behera laga dute. Uda alderako ur barik geratzeko arriskua dago eta ez da egoera larria? Ez txaletetako igerilekuak ur barik lagatzeko adina, itxura denez.

Gauzak hala, azkenekoz Antzuolan izan nintzenean Kalebarrengo iturrian betetako botila bat ur hartu nuen kotxean. Ez zen, baina, ura Bartzelonara ailegatu. Bidean edan nuen, Monegrotako beroa eta Osborneko zezenak nolabait digeritzeko. Han ere ur faltan behar dute derrigor, nola azaldu bestela halako paraje iharra?

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## SAN JUANEN AURRETIK, OSPAKIZUNIK EGONGO DA?

**Arrasateko irakurle batek deitu digu honako kezkarekin: aurten San Juan jaiak aste barruan izango direla-eta, irakurle horrek jakin gura du ea aurreko aste bukaeran ospakizunik egongo den; eta, bestetik, Dragoi Jana noiz izango den.**

Arrasateko Udaleko Kultura Sailera jo dugu argibide eske. Han baieztatu digute San Juan bezperaren (ekainak 23, astelehena) aurretik egongo dela jaietako ekintzarik Arrasaten. Esan digute oraindik antolatzen dabiltzala eta aurrerago jakinaraziko dituztela ekintza zehatzak.

Hala, aurreko zapatuan, Mondra kirol taldeak ardo-dastatze jaialdia egingo du, nahiz eta hori, izatez, ez dagoen jai egitarauan. Bestetik, Txosna batzordeak ere asmoa azaldu du aste bukaera horretan kontzertuak antolatzeko. Horrez gain, Udalak gaineratu du 22rako, domeka, ere ekintzak antolatuko dituela, "domeka hutsik gera ez dadin".

Ekintza horien aurretik ere beste ospakizun batzuk egongo direla gogorarazten du Arrasateko Udalak: hain zuzen ere, hilaren 14an umeen danborrada izango da eta 15ean, helduena.

Gure irakurlearen beste galderari erantzunez, AED elkarteak oraindik ez du zehaztu Dragoi Jana ze egunetan izango den.

## ZER EGIN BEHAR DA 400 EUROAK JASOTZEKO?

**Oraindik ere errenta aitorpena egiteko garaian gaude, eta zergadun batek hauxe galdetu digu: "Zapaterok agindu zuen zergadun guztioi 400 euro bueltatuko zigutela. Neurri hori indarrean dago, eta, hala bada, zer egin behar dut diru hori jasotzeko?".**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Sailera deitu dugu, eta, han esan digutenez, "oraindik ez dago indarrean" neurri hori, eta, aldaketarik baldin badago, "jakinaraziko" diete herritar guztiei. Oraingoz, Ogasuna lantzen dabil zelan aplikatu Espainiako Gobernuak proposatutako 400 euroko txeke hori, eta litekeena da modu progresiboan aplikatzea, azkenean: hau da, zenbat eta errenta maila txikiagoa, orduan eta laguntza handiagoa. Oro har, neurri horrek 117 milioi euroko inbertsioa eskatuko du Gipuzkoako Ogasunarengandik.

Errenta aitorpenarekin jarraituz, bestalde, 2007ko errenta eta ondarearen autolikidazio proposamenak onartzeko epea luzatu egin du Ogasunak. Hain zuzen ere, maiatzaren 23ra arte egongo da aukera. Argibide gehiago dago *www4.gipuzkoa.net/ogasuna* webgunean edo 902 10 00 40 telefono zenbakian.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrazkiz

Alex Ugalde




blog

## Debagoiena, zigortuta

**Joxe Aranzabal**
goiena.net/blogak/faroa

Leintz Gatzagan hasi eta Bergara bitartean, badaude hainbat proiektu, behar beharrezkoak, baina geldirik daudenak: tranbia da horietako bat. Aspalditik hasita behar zuen, baina geldirik dago. Olandixoko tunela da beste bat, Mondragoen, eta hori ere geldirik dago. Mankomunitateko presidentea, bestalde, kartzelan dago, Ino Galparsoro.

Sinestuta nago batek baino gehiagok, Madrilen eta hemen, ordainarazi nahi dietela debagoiendarrei ezker abertzaleari eman izana botoa. Horregatik daude proiektu horiek hasi barik.

Mondragoeko Udala, bestalde, geldirik dago, egoera berezian, gai ez dela aurrera eramateko arnas luzeko proiekturik. Horrela egon zen aurreko agintealdiaren azken bi urteak, orduko eskandalu inmobiliarioak zirela-eta, eta horrela segituko du agintealdi honetan, zentsura mozioak aurrera egin edo ez. Mondragoetarrei ez zaie urik faltako etxeko iturrietan, baina hortik aparte, gauza gutxi.

## Astebete Ino barik, egunero Inogaz

**Patxi Gaztelumendi**
larrabetzu.org/gaztelumendi

Arrasaten nabil egunero, Ino bera ezagutzeko parada izan dut. Andre atsegina, langile porrokatua,

plazara

Oraintsu ospatu dira Debagoieneko Dantzarien Eguna eta Trikiti Eguna, eta gaur dira hastekoak Bergarako maiatzeko erromeriak. Baina, bestalde, euskal dantzen egoeraren gainean iritzi ezkorrak sarritan entzuten dira, hain zuzen, garai bateko indarrik dagoeneko ez dutela esaten dutenak. Juan Mari Baseta Abarka taldeko presidenteak iritzi ilun horiek argitzen ditu honako artikuluan.

Juan Mari Baseta *

# Aupa, konpañero!

Orri honetan idatzitakoa dantza herrikoiari lotuta dago. Hor dabil gure elkartea eta beste dantza mota batzuk egiten dituztenekin ez dugu harremanik, lagunartekotik aparte.

Zabalduta dago eta edonon entzun daitekeena zera da: euskal dantzen egoera txarra dela eta denbora gutxiren bueltan ia desagertuta egongo direla. Edalontzia erdi hutsik ikusten dutenekin eztabaidatzea alferrikakoa da.

Ezin da esan euskal dantzak eta horren inguruan mugitzen diren taldeak egoera onenean daudenik. Bergaran bertan, Xamatz taldekoek dantza uztea erabaki zutenetik talde bat osatzeko arazoak daude. Gaur egun mutilen talderik ez dago. Bailarako herri batzuetan ez da dantzari txikien eguna antolatzen, orain urte gutxira arte egiten zen bezalaxe. Beste dantza mota batzuetara pasatuz ikus dezakegu hainbat bikote eman dituen herriak, Bergarak, alegia, datorren urtean ez duela partaiderik izango Pazkoetan jokatuko den txapelketan.

Baina horren aurrean, gaur egun, Bergaran bertan, Moises Azpiazu eskolak ehun neska-mutil baino gehiago ditu dantza ikasten. Jardun eta Abarka elkarteek antolatzen duten nagusientzako ikastaroan ere, jende multzo galanta biltzen da, astean bi egunetan. Osintxun lan ederra egiten dute ikuskizunak antolatzen eta beste bailarako herri batzuetan ere ikastaroek arrakasta dutela badakit.

Bergaratik kanpora joaten bagara, ikusi ditut dantzari txiki egunak Durangaldean, Bizkaiko Txorierrin, Araban, Errenterian… eta gauzak ez dira asko aldatzen. Herri dezente daude taldeak osatzeko arazoekin eta beste batzuk, aldiz, talde politekin.



MIKEL ARROIABE

Galdera hau izango litzateke: zergatik gaude horrela? Eta etorkizuna, zer?

Gaurko egoeraren zergatia azaltzeko, esango nuke faktore batzuk bildu direla.

Demografikoki, Euskal Herria aldatu egin da, eta ume kopurua baxuagoa da. Ume horiek beste ekintza batzuetara joaten dira eskolako lanetatik aparte, eta dantzarako denbora gutxi dute. Baina horretaz aparte, esango nuke dantza gaizki kudeatuta dagoela.

Gaur egun, talde askotan ardura dun bakarra (irakaslea, gehienetan) egoten da, eta berak esaten duena egiten da. Pertsona horrek ez baditu gertuko batzuk, eta horiek ez badiote laguntzen antolakuntza lanetan, gauzak bertan behera geratzen dira. Horregatik, gurasoak inplikatzen ez badira antolatze lanetan, taldearen iraupena mugatuta dago. Taldeei buruz mintza naiteke bakarrik, baina, dantza solte eta aurresku txapelketetan, gauza bera gertatzen da. Txapelketak antolatzen jarraitzeko, beharrezkoa da gurasoak inplikatzea dantzariak sortzeko, eta antolatzaileekin hitz egitea euren beharrak jakiteko.

**"Bergaran, Xamatz taldekoek dantza utzi zutenetik talde bat osatzeko arazoak daude"**

**"Bestalde, Moises Azpiazu eskolak ehun neska-mutil baino gehiago ditu dantza ikasten"**

Esandakoaren laburpena egitea ez da samurra eta, sinplifikazio guztien moduan, arriskutsua izan daiteke. Baina dantza herrikoiak antolakuntza eta egitarau berriak behar dituela esango nuke; bere oinarriak galdu barik plazaratzea, gaurko eta etorkizuneko garaietara aldatuz. Herrialde batzuetako irakaskuntza planetan, dantzek ere txokoa dute. Hori oso lagungarria litzateke.

Ez nuke bukatu nahi albiste bat jakinarazi eta besarkada bero bat luzatu gabe dantza solteko koordinatzaile izan den Joxe Juan Ugalderi. Dantzan ibilbide luzea duena, nahiko buruko min edukitakoa epaile lanetan eta bere herriko dantzaren historia liburuxka eder baten bildu duen gizonari, *Lezo dantzari*, alegia. Gure herrian ospatutako erromeria nazionalean buruz buru lan egin genuen eta gogoko ditut hark bidalitako e-mailak *aupa, konpañero* agurrarekin.

*Bergarako Abarka dantza taldeko presidentea da.

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Jatekoak lasai eta seguru erosten dituzu?

| | |
|---|---|
| BAI | %85,7 |
| EZ | %14,3 |

**> BASERRITARRARI EROSI**
Gurean baserritarrari erosten dizkiogu barazkiak zuzenean. Konfiantza daukagu berak ekartzen digunarekin.
**Ira**

**> JARAMONIK EZ**
Nik irteten diren albiste horiei –olio kutsatua, behi eroak…– ez diet jaramonik egiten. Beste gauza batzuei erreparatzen diet: itxura, iraungitze data…
**Ana**

**> KONTUZ IBILI BEHAR DA**
Horrelako alarmak daudenean, kasu egin behar zaie; begira ze gertatu zen 80ko hamarkadan koltza olioarekin… Paranoiko ez gara egingo, baina kontuz ibiltzea ez dago gaizki.
**Markel**

**> MARKA EZAGUNAK**
Ezagunak diren eta fidagarritasuna duten markak erosten ditut, eta txolloekin ez naiz fidatzen. Neurri horiek hartuta, nahiko lasai joaten naiz erostera.
**Josune**

**DATORREN ASTEKOA: Euskal futbol taldeak jarraitzen bazabiltza?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

eta egun hauetan guztietan frogatu dudanez, oso maitatua gainera (…). Arrasatera etorri naiz gaur ere, inoiz baino goizago. Langileek greba egiten duten arren, Info7 irratirako zenbait kronika egin asmo ditut, kaletik, telefono mugikorrarekin. Euskal Herrian, hemengo audio-argazkia eskaintzeko helburuagaz.

Autoa gura izan dudan lekuan itxi ostean, egunero ikusten dudan liburutegia zarratuta ikusi dut, eta kartel asko inguruetan, atzo baino propaganda gehiago. Eta dendak itxita. Eta kafetegiak. Eta tabernak. Eta herri batean egoten den oro, bidai agentziak, estankoa, kirol dendak, banketxeak, biztanleen arreta zerbitzua, udalaren egoitza guztiak, bulegoak… buelta bat baino gehiago eman diot herriari. Ez nuen inor ikusten gainera (…).

Kazetariak ere ikusi ditut, kolegak, baina aspaldion sarritan datozen arren, ez dira batere maitatuak. Sekulakoak esan dituzte Arrasateri buruz, eta gaur kamara eskutan, irudi bila ari ziren. Ikusten zutena filmatzen ez ditut ikusi baina (…). Txokotxo batean, ordenadorea piztu, 11etako informatiboa egin, eta aspaldian lagata dudan blogari ekin diot. Hamaiketako albistegia entzun gura baduzue: Zer kontatua asko eman du hileotan Arrasatek. Asko ikasi dugu guztiok. Politikaz, etikaz, konpromezuaz, justiziaz, kudeaketaz, elkartasunaz, salaketaz… baina batez ere pertsonen balioak nabarmentzeko aukera izan dut. Eta orain badakit, egunero Ino gogoan izango dudala, egunero ondoan, egunero egingo dugula zerbait bere alde. Itzuli dadin, etorri daiten, berean jarraitu dezan. Herritarrek erabaki bezala, alkate. Herriak hautatu bezala, Arrasaten.

koplak

Irati Agirreazaldegi

## Ziklistak, gurpil gaineko artistak

Gurpil gainean abiatu da
Italiako Giroa.
Eguraldia bezala zoro
dabil txirrindu giroa.

Euskaltelekin laranjaz doaz
Irizar eta Velasco.
Tropel barruan baietz fin jardun
saiatu baitira asko.

Zortea etsai, bidean laban
ta bazterrera erori.
Altxa ta segi, askok baleuka
harek aina kategori.

Zein den gogorra ziklista baten
eguneroko jarduna
Gaitzerdi euren borondatea
duten bideko laguna.

Profesionala ordea soilik
ez da gaur egun artista.
Errepidean asteburutan
dabil hamaika artista.

Baina zer gabiz txirrindulari,
errubera eta Giro.
Eroriko ta porra kontua
inguruan ez da giro.

# Aratz, zure mezuak heldu zaizkigu

**Jexux Ugarte, Pili Larreta eta Igotz Ugarte**
Oñati

Aratz, konturatu gara Internetek ez daukala konexiorik zu zauden lekuan, baina batbatean, ez dakigu nolako komunikazio sistemarekin, zure mezu garrantzitsu batzuk jaso ditugu berehala egun hauetan, eta idatzi honen bidez denei transmititzea nahi diegu.

Zure lehen mezua honela ulertu dugu:

"Aita, ama, Igotz, zmz? Ni oso ondo nago, esplika ezinezko beste parametro batzuetako espazioan bizitzen hasi naiz, eta etortzen zaretenean ikusiko duzue... Bitartean, nire presentzia fisikorik gabe bizitzen ohitu beharko duzue, baina nire espirituak ez du alde egingo zuen ondotik e! Eta beti aldamenean edukiko nauzue, indarrez bizitzen jarraitzeko esaten!".

Bigarrena ere berehala jaso dugu:

"Eskerrak milaka pertsonei eman behar dizkiezue, egun hauetan jasotako laguntza eta berotasunagatik:

- Hasteko, bizikletarekin eginiko nire azken ibilbidean lagun izan nituen Ander, Ruper eta Jokini, balore eta heldutasun handiarekin lagundu zidatelako.

- Zer esanik ez, jausi nintzen lekura etorri ziren mediku eta beste laguntzaile guztiei.

- Gure familia, zuen betiko lagunak eta familia, ikastolako irakasleak, zuen laneko lagunak eta beste hainbat eta hainbat, ondoan sentitu nituen beti.

- Aipamen berezia nire koadrilakoek eta nire beste lagun guztiek merezi dute. Nik egun hauetan, zuen inguruan, surik egiterik ez neukan, baina lagun denen artean ez dakit zer piztu duten… baina sekulako berotasuna eduki dut. Esaiezue apustu handia egingo nukeela mundu osoan lagun talde jatorragorik ez dagoela… Esan, baita ere, bidali dizueten idazlana patxadaz irakurri dutela, hunkituta gelditu naizela, eta laster nire mezuak hemen daukagun intranet sistema bereziaren bidez bidaliko dizkietela.

- Eskerrak eman behar dizkiezue, baita ere, nire ondora etorri eta zuekin egon diren herritar eta kanpotar guztiei. Neu ere oso pozik sentitu naiz zuei animuak ematera hainbeste jende hurbildu denean".

Bidali diguzun azken mezuak honela dio:

"Gogoratuko zarete nire desioa, hiltzen nintzenean, gorputza erraustu eta Urbia inguruan botatzea zela. Hor utzi ditudan zuhaitz txiki batzuk ere landatu ditzakezue leku horretan. Igotz, beste zuhaitzak zainduko dituzu, ezta? Aita, bila zabiltzan lursailtxoa lortzen duzunean, abisatu. Esango dizut zein fruta arbola sartu behar ditugun, nire zuhaitz txikiekin batera.

Eta gaurkoz, azken gauzatxoa, ama: eguraldiaren informazioa egunero bidaliko dizuet, nagoen lekutik dena igartzen da-eta...".

Laster arte, Aratz.

# SOS Udalatx

**Leire Urretxo**
Arrasate

SOS: egoera larrietarako sorospen dei internatzional moduan erabiltzen diren hiru hizki ezagunek dirudienez mortse kodean dute jatorria, hizki hauek erabiltzean oso zaila baita mezuan gaizkiulertuak egotea. Hemen, hiru hizki hauek Udalatx izenaren aldamenean idazteak ez dauka ere gaizkiulerturako lekurik; gure mendia egoera larrilarrian baitakagu, lagunok. Udalatxeko harrobiek mendiari nahikoa kalte egin ez badiote, orain Abiadura Handiko Trenak eragingo dizkion ondorioak are eta larriagoak izango dira.

Zoritxarrez, eta geldiarazten ez badugu, gure Euskal Herri txiki honetan, makro azpiegitura ero honek izugarrizko txikizioak eragingo ditu inguru askotan, eta SOS egoerak gure lurraldeetan nonahi azalduko zaizkigu. Horregatik, guztion laguntza behar dugu gutxi batzuen interesen arabera diseinatutako proiektu burugabe hau geldiarazteko. Garapen mota hau nahi dugu? Abiadura Handiko Tren bat behar dugu euskal herritarrok? Eztabaida dezagun, bada, baina beranduegi izan baino lehen sortu dadila eztabaida.

Agian mendia ezagutzen ez duzuenok, edo mendia, natura, gertutik bizi izan ez duzuenok jasangarritzat hartu ahal duzue Udalatx moduko inguru bat betiko galtzea, uztezko aurrerakuntza baten izenean, baina benetan, oker zaudete, uztezko aurrerapen horrek eragingo dituen ondorioak larriegiak eta ordaindu beharreko prezioa garestiegia baitira gizartearentzat, gu guztiontzat onuragarriak izateko. Proiektu honen ibilbidea ikusi besterik ez duzue, Udalatxeko magaletatik paseo bat eman besterik ez duzue, benetan euskal AHTren zentzugabekeria neurri baten bada behintzat ulertzeko.

Hitz asko esan ahal dira astakeria honen inguruan, baina guztion ahotsa da beharrezkoa duguna, SOS erraldoi bat Arrasateko, Euskal Herriko, eztarri guztietatik da behar duguna, horrekin txikizio honen erantzukizuna dutenei entzunarazi gure mendia jasaten ari den eta jasango duen egoera jasanezina izango dela eta guk, bailarakook, gure mendia betiko galduko dugula.

Guztion ahotsaren oihartzuna gure mendietako txoko guztietan zabal dezagun, eta domekan dei hori Udalatxeko magaletan irudika dezagun. Maiatzaren 18an hitzordua daukagu gure mendiaren alde egiteko.

# Aupa, Ino!

**Pedro Iturbe** (Antzuolako alkatea)
Antzuola

Zer moduz gureak ez diren lur horietan? Galdera tontoa dela badakit, baina barrenean sentitzen dudana kontatzen hasteko asmatu dudan era bakarra da.

Zergatik kartzelaratu zaituzten galdetzen diogunean gure buruari, erantzun mordoxka bat etortzen zaizkigu, azkenaldian nahiko errebelde ibili omen zara, bidegorriak, autobiak, lorategiak, Mankomunitateko egoitza berria, arrasatearren bizi kalitatea nola hobetu pentsatzen eta lantzen milaka eta milaka ordu sartu baitituzu. Agian baten batek esplikatu ahal izango digu honek guztiak, nondik edo handik den ez dakit zein talde edo egituren aldeko kolaborazioa.

2007ko maiatz inguruan ezagutu genuen elkar, zu Arrasateko alkategai eta ni, berriz, Irimo, Gorla eta Arrolako magaletan aurkitzen den Antzuolako alkategai. Erronka garrantzitsua guztiontzat, gure herria beste era batera antolatzeko aukerarekin amesten genuen eta lan horretan jardun dugu urtebeteko bidean. Gauzak hobeto edo okerrago, bizkor edo motelago, baina gure lana agerian uzteko nahiarekin, herriari udaletxeko ateak ireki eta ahal genuen heinean berarekin sintonian erabakiak hartu. Hamaika buruhauste izan ditugu bidean, hiltegia dela, zabor kudeaketa dela eta beste hainbat konturen inguruan, baina tarteka-tarteka gure buruei barre egiteko tarte txiki bat bilatzen genuen.

Nola aldatzen diren gauzak, herritarrek hautatutako ordezkaria zilegitasun guztiarekin alkatetzan egon behar zuenean kartzelaratu, bahitu zaituzte. Garbi dago era batera edo bestera mapa politikotik kanpo nahi gaituztela, eta horretara doaz. Epaile mediatiko baten aginduz kartzelaratua izan zarela diote batzuek eta hori egiteko eskubiderik ez dagoela ere beste hainbatek. Baina zer demontre, zurikerietan dabiltza berriz ere, orain artean ez zarela alkatea izateko duina leporatu dizute, etikarik eta moralik ere ez duzula hainbat aldiz entzun behar izan duzu, dimisioa eskatzen duten mozio etikoak aurkeztu dizkigute eta beraiek, orain eskuak burura eramaten dituzten berberek, beraien komunikazio taldeak martxan jarri eta guztiok saminez bizi genuen heriotza bat beraien helburu politikoetarako erabiltzen eta errentagarritasuna lortzen saiatu dira. Beraien iruzur politikoa gauzatu ahal izateko faxismoaren elurrezko bola hau sortu dute, "nik esatea nahi dudana esan ezkero kanporatua edo kartzelara", eta herritarren hitzari muzin egin eta beraien demokrazia autoritarioa inposatu nahi dute. Horrela ohiturik geunden hainbat alorretan: AHT, errauskailua, langileen kontrako jazarpenak, torturak, dispertsio politikak, eta abar, eta abar. Baina, hala ere, zerbaitetaz harro baldin bagaude ez garela beraiek bezalakoak, ez baitiegu esan dizkiguten guztiak beraiei leporatuko, duintasunik ez dutela ez diegu esango, etikarik ez dutela ez diegu esango, inmoralak direnik ere ez diegu esango. Gauza bat bakarrik esango diegu eta benetan barrubarrutik irteten zaidan zerbait: herriak hautatutako ordezkariak paretik kentzeko erabiltzen ari diren metodoak erabiltzeko lotsa gutxi behar dela, hitz batean esanda lotsagabe batzuk direla. Lotsagabeak dira, duela 30 urte herri honi egin zioten iruzurra errepikatu nahi dutelako, beraien poltronak besterik inporta ez zaielako, 30 urtean herri honek bizi duen gatazka gainditzeko alternatiba bat ere aurkeztu ez dutelako, gerra zikina antolatu eta gauzatu zutelako, dispertsio politika hiltzailea oraindik ere martxan dutelako, euskal preso politikoentzat soilik balio duten legeak egin eta hauek heriotza zigorrera kondenatzen dituztelako, tortura ahalbidetzen duten mekanismoak mantentzen dituztelako, talde politikoak beraien interesen arabera legez kanporatzen dituztelako, gaitzetsi eta ez gaitzestearen kontuarekin errepresioaren eta kartzelaren jomugan jartzen gaituztelako.

Beraz, orain agian berandu da, zu kartzelaratu zaituzte eta beste hainbatekin egingo dutena espainiar "eskubide estatuaren" baitan baitago. Errepresioak hainbat bide ditu, lotsarik gabe herriak hautatutako karguei dimisioak eskatzen dabiltzanei gauza bat esango nieke: eskerrak ematea herriaren zati bati eskubide sozial eta politikoak murrizteagatik. Beraiek badakite soluziobidea gatazka elikatzen duten bi korapiloak askatzetik etorriko dela, herri honi dagozkion lurraldetasun eta autodeterminazio eskubideak errespetatu bitartean, inongo gaitzespen eta mozio etikorik herri honek horrenbeste behar duen gatazkaren gainditzea ez duela ekarriko. Herritarren interesak interes partidisten gainetik ez dauden bitartean jai daukagu.

Aurrekoan Arrasaten egon ginen zure askatasuna exijitzen, kaleak beterik eta herria minduta, gehiegikeriez nazkatuta eta beraiek hautatu zuten alkatea askatzeko eskatuaz. Baina errealitateari aurre egin behar diogu, ezin diogu egoerari ihes egin, kolpatzen gaituzten bakoitzean indar handiagoz lan egiteko inbitazioa egiten digute, oraindik ere hainbat lan eta zeregin ditugula ohartzen gara eta beti bezain tinko mantenduko gara. Ez dugu lan erraza izango, baina Mankomunitatean erruz saiatuko garela ziur egon, desestabilizazio eta kriminalizazio kanpaina honi aurre egingo diogu. Beraz, ez dituzte beraien helburuak lortuko, etikaz jantzi nahi izan dituzten mozioak mozio patetikoak izatera heldu direlako eta udaletatik kanporatzea lortuko ez dutelako, beraien indarkeria demokratiko, etiko, moral eta duinaren bitartez ez bada, zurekin egin duten bezala.

Beno, guapisima, orain arte izan zaren bezala izaten jarraitu, egunero erakutsi zenigun lan, duintasun eta zintzotasunarekin egoerarik okerrenean ere ziur aurrera egingo duzula eta gainera horrela maite zaitugulako! Besarkada bat, mila muxu eta aurrera bolie!

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33 20570 BERGARA** | **Telefonoa: 943 25 05 05** | **Faxa: 943 25 05 12** | **Posta elektronikoa: goienkaria@goiena.com**


Ezagutzen gaituzu. Aurten ere emango ditugu dirulaguntzak, Nazioarteko Programen bidez atzerrian praktikak edo ikasketak egin ahal izateko.
IZEN-EMATEA MAIATZAREN 15etik EKAINAREN 30era
www.kutxasocial.net
Gizarte Ekintza, kutxaren izateko arrazoia.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa


MILAR
ELKORO
Renove
Operazioa
-%10
Milar Elkoro Olarte, 1 ARRASATE Tel.: 943 79 18 86


GUREAN SARRITAN
3×2
ERAMAN 3 ETA ORDAINDU 2
Eskaintza honek 2008ko maiatzaren 15etik 24ra balio du
Eroskik gomendatua
CERVEZA Pilsen AURUM IBERICA SPECIAL Alc. 5,8% Vol. ELABORACIÓN TRADICIONAL
3×2
ERAMAN 3 ETA ORDAINDU 2
PACK 1 EROSITA 1,45€
PACK-a 0,97€
AURREZTU MERKEENA
Garagardoa, AURUM Special, 6x25 cl-ko packa
EROSKI
zurekin

# Herriak

**ARRASATE** > 18-23 **BERGARA** >24-29 **ARETXABALETA** > 31-33 **ESKORIATZA** > 34-35 **ANTZUOLA** > 36 **ARAMAIO** > 37 **ELGETA** > 38 **LEINTZ GATZAGA** > 39



**> ARRASATE**
Olandixoko tunela eraikitzeko lanak laster hasiko dira **> 18**



**> ARETXABALETA**
Otala Zelai eguna ospatuko dute etzi, domeka, Aozaratzan **> 31**



**> ANTZUOLA**
Sagastiko biribilgunea datorren urterako egin nahi dute **> 36**



**> ARAMAIO**
Sastiña ermita itxita egongo da, konponketak egiteko **> 38**



**KOLUNBARIOAK** Errautsak gordetzeko 60 kolunbario (eskumako aldean) jarri dituzte kapera atzeko horma-hilobietako batean, eta dagoeneko erabiltzen hasi dira. N.M.

**BERGARA** > KOLUNBARIOAK

# Kolunbarioak erabilgarri daude dagoeneko Bergarako kanposantuan

**KUTXATILA BAT**
25x30x20 zentimetroko kolunbario bakoitzak errauts-kutxatila bakarra gordeko du

**BAKARRA**
Bergarako kolunbario zerbitzua bakarra da Debagoienean

**NEREA MENOR** > BERGARA

Azkenaldi honetan, geroz eta herritar gehiagok aukeratzen dute hildakoak erraustea. Hori dela eta, errautsak kanposantuan gordetzeko eskariak ugaritu egin dira. Eskariei aurre egiteko, Bergarako Udalak kanposantuko horma-hilobietan kolunbarioak jartzeko erabakia hartu zuen eta dagoeneko onartuta daude ordenantzak. Bailara osotik, Bergaran bakarrik eskaintzen da zerbitzu hori.

Kolunbario bakoitzak errauts-kutxatila bakarra gorde dezake. Era berean, kutxatilak hilotz bakarraren errautsak gorde ahal izango ditu. Hasiera batean, hiltzeko unean udal erroldan izena emanda zutenak bakarrik onartuko dira. Hala ere, herritarren beharrei erantzuteko nahiko toki izanez gero, herrian jaio baina hiltzean bertan bizi ez zirenen errautsak ere gorde ahal izango dira.

Kolunbarioen neurria 25x30x30 zentimetro da, eta aurreko aldea granito beltzekoa dute. Altzairu herdoilgaitzezko identifikazio-plakan, hildakoaren izena eta abizenak edo ezizena azalduko dira, eta, horrekin batera, jaiotza eta heriotza datak ere ipiniko dituzte.

Hilerriko esparruaren zaintza egingo du Udalak, baina ez du bere gain hartzen errauste-kutxatilari edo plakari beste norbaitek egindako lapurretaren, ezta naturak egindako kalteen erantzukizunik.

DATUA

**125**

EUROKO TASA

Kolunbarioa erabiltzeko epea 10 urtekoa izango da, 125 euroren truke. Tarifa horrekin, 30 urtean amortizatu nahi da 60 kolunbario sortzeak ekarri duen 22.845 euroko inbertsioa.

**10 URTEAK LUZATZEKO AUKERA**

Kolunbarioa erabiltzeko epea hamar urtekoa izango da, 125 euroko tasaren truke. Erabiltzeko epea amaitu eta hilabetera inork ez badu errauts-kutxatila jasotzeko eskatu, Udalak hezurtoki komunera eramango du. Bestalde, epea amaitu aurretik etengo balitz kontzesioa, pertsona horri ez zaio dirurik bueltatuko. Hasierako hamar urteak luzatzeko aukera egongo da, epe hori amaitu baino hilabete lehenago eskaria egin eta tasa ordainduz gero. Udalak epea luzatzea uka dezake, baldin eta hurrengo urteetako beharrei erantzuteko toki nahikorik ez dagoela uste baldin badu.

**ESKAERAK**

Kolunbarioa eskatu nahi duenak Udaleko Erregistro Orokorrean Udalak emango dion eskari-inprimakiarekin batera ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du: eskatzailearen Nortasun Agiriaren fotokopia; edozein errausketa-labetan erraustu izana egiaztatzen duen dokumentua; udal-tasa autolikidatu izanaren agiria; eta aurretik lurperatu izan ez diren hilotzen errauts-kutxatilak baldin badira, Erregistro Zibileko heriotza-inskripzioa.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 17 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Domeka, 18 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Astelehena, 19 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Martitzena, 20 | Fdz. Corcuera | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Eguaztena, 21 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Eguena, 22 | Amezua | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Egubakoitza, 23 | Español | Araba, 4 | 943 79 18 65 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 17 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Domeka, 18 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Astelehena, 19 | Urrutikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Martitzena, 20 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 21 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Eguena, 22 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Egubakoitza, 23 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 17 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 18 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 19 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Martitzena, 20 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 21 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 22 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 23 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 17 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 18 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 19 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 20 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 21 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 22 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 23 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

### TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 17**

Hodeiak izango ditugu egun osoan, eta euri arina hanhemenka. Iparraldeko haizea ibiliko da arin, eta tenperaturak jaitsi egingo dira gradu pare bat.



**Domeka, 18**

Zapatuko oso giro antzekoa izango dugu domekan: hodeiak eta, tarteka, euri zaparradatxoak. Haizeak mendebaldeko ukitua hartuko du.

### EUSKAL HERRIAN

Aste bukaera desitxurosoa izango dugu, maiatz erdialdea izateko. Bai zapatuan, bai domekan zerupea hodeitsu egongo da eta han-hemenka prezipitazio arinak botako ditu. Iparraldeko eta iparmendebaldeko haizea ibiliko da eta tenperaturak gradu pare bat behera egingo du.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Astelehena, 12 — **10 ºC**

**MAXIMOA** Eguaztena, 7 — **27 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **66,1 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 7 | 27 ºC | 12 ºC | 10,2 l/m² |
| Eguena, 8 | 20 ºC | 12 ºC | 7,5 l/m² |
| Egubakoitza, 9 | 18 ºC | 12 ºC | 20,3 l/m² |
| Zapatua, 10 | 16 ºC | 13 ºC | 12,3 l/m² |
| Domeka, 11 | 20 ºC | 13 ºC | 0,3 l/m² |
| Astelehena, 12 | 24 ºC | 10 ºC | - l/m² |
| Martitzena, 13 | 24 ºC | 12 ºC | 15,5 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA MAIATZEAN



| Ilbete | Ilbehera | Ilberri | Ilgora |
|---|---|---|---|
| 5 | 12 | 20 | 28 |

## oharrak eta deialdiak

ARRASATE

**> Emakumeondako historia tailerra**

*Emakumeon memoria berreskuratzen* delako historia tailerra antolatu du Emakume Txokoak maiatzaren 23 eta 24rako, eta izena emateko aukera dago eguenera bitartean. Argibideak, 943 79 41 39 telefonoan.

ARRASATE, OÑATI

**> 'Ura ala ibai-arroa, zer kudeatu?' berbaldia**

Iñaki Antiguedad hidrologo eta EHUko irakasleak hitzaldiak egingo ditu: *Ura, garapen iraunkorraren ispilua*, astelehenean, Arrasateko Goi Eskola Politeknikoko 5001 gelan, 19:15ean; eta *Ura ala ibai-arroa, zer kudeatu?* delakoa, martitzenean, hilak 20, Oñatiko kultura etxean, 18:30ean, Agenda 21en barruan.

ARRASATE

**> Erretiratuaren Eguna ospatuko dute**

Abaroa elkarteak Erretiratuaren Eguna ospatuko du maiatzaren 31n. SUDCek antolatutako bazkarirako eta zozketarako txartelak jaso daitezke, bazkide txartel eguneratua aurkeztuta, maiatzaren 22ra bitartean, 18:00etatik 19:30era, astelehen eta eguenetan, eta 18:00etatik 19:00etara, egubakoitzetan. Bestalde, Donostiara irteera egingo du Abaroak maiatzaren 27an; izenematea 21ean egin behar da, 10:30ean hasita.

OÑATI

**> Bidegorriaren aldeko bizikleta martxa**

Txirrinka taldeak gaur, egubakoitza, egingo du hileko ibilaldia Debagoienean bidegorri sarea eskatzeko. Oñatiko plazatik abiatuko dira 18:30ean, eta herriko kale nagusietatik ibiliko dira. Herriko plazan bukatuko da ibilaldia.

BERGARA

**> Gor-itsutasunaren gaineko gela irekia**

Gor-itsutasunaren, pertsona gorrengan duen eraginaren eta eguneroko bizitza antolatzeko moduaren gainean gela irekia egingo dute eguaztenean, hilak 21, Aransgin, 16:00etan. Casimiro Ondo gor-itsu gazteak eta Guillermo Azkarate Aransgiko koordinatzaileak gidatuko dute.

OÑATI

**> 'Gatazkaren lantze etikoa' ikastaroa eta Ebanjelioaren gaineko ikastaroaren aurkezpena**

Honako ekintzak antolatu ditu Elkar Hezik: *Gatazkaren lantze etikoa* ikastaroa, hilaren 17an eta 24an, 09:30-11:30, herritar guztiondako, Arantzazuko Ama kaleko egoitzan; eta hilaren 20an, *Ebanjelioa gaur hemen, bertatik bertara* ikastaroaren aurkezpena, Lehen Hezkuntzako liburutegian, 18:30ean.

BERGARA

**> 'Bullying'-a eta arrazakeria, berbagai**

*Bullying*-aren eta arrazakeriaren gaineko antzerki-forum saioa egongo da bihar, zapatua, Aroztegi aretoan, 17:00etan. 8-12 urte artekoendako da.

OÑATI

**> Haur eskolan matrikula egin daiteke**

Txiki txoko haur eskolan matrikula egiteko aukera izango dute 0-2 urte arteko umeek maiatzaren 19tik 30era arte, biak barne, irailean hasteko. Argibideak, 943 71 64 05 telefonoan.

ESKORIATZA

**> Kulunka haur eskolan matrikula egin daiteke**

Kulunka Haur Eskolan matrikulazio epea maiatzaren 19tik 30a bitartean izango da, eta 19an eta 20an, ate irekien egunak izango dira, 17:00etatik 19:00etara.

BERGARA

**> Mendi irteera antolatu du Zahar Berrik**

Elosu-Irukurutzeta-Elosu mendi irteera antolatu du Zahar Berrik etzirako, domeka. Argibideak eta izenematea, Jardun elkartean.

OÑATI

**> Udalekuetan izena emateko aukera dago**

Udalekuetan parte hartu gura duten umeek matrikula egiteko aukera dute bihar, zapatua arte. Euskadiko Kutxan umearen datuekin txartela entregatuz egin behar da ordainketa. Hainbat xehetasun postaz jasoko dute gurasoek.

BERGARA

**> Herriko taldeekin CDa egin nahi dute**

Txapa Irratiak dei egiten die herriko talde eta bakarlari guztiei CD baten parte har dezaten. Horretarako, kontzertuak egin nahi dituzte. Interesa dutenekin batzarra egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean, 19:00etan.

ARRASATE

**> Gaur da udalekuetan izena emateko epea**

Gaur, egubakoitza, bukatzen da Txatxilipurdiren udalekuetan izena emateko epea. Oraingo uztailean 2 eta 16 urte bitarteko umeek eman dezakete izena Txatxilipurdi elkartearen egoitzan, Pablo Uranga kalean.

**943 25 05 05**
**goienkaria@goiena.com**

**kale inkesta**

# Joaten zara herriko kirol taldeen partiduak ikustera?



**Jabier Alonso**
Langilea
Eskoriatza

Bai, joaten naiz; gehienbat, nesken saskibaloiko partiduak ikustera. Nesken partiduak ikustea gizonena ikustea baino entretenigarriagoa da. Jende gehiagok joan beharko luke.



**Lorenzo Santiago**
Langilea
Eskoriatza

Lehen, joaten nintzen. Orain, ez daukat asti gehiegirik. Gainera, futbol federatua zegoenean herrian, nik jokatu egiten nuen. Halakoetara jendea joatea bultzatu egin behar da.



**Idoia Gomez**
Langilea
Eskoriatza

Orain, ez naiz joaten. Lehen, joaten nintzen. Saskibaloia gustatzen zait, eta nik uste dut herriko jendeak gehiago joan beharko lukeela halako partiduetara animatzera.



**Maria Jose Souto**
Langilea
Eskoriatza

Nik lehen saskibaloian jokatzen nuen. Baina, alaba dudanetik, alde batera utzita daukat. Nire anaiek ere futbolean jokatzen zuten. Jendeak gehiago joan beharko luke horrelakoetara.



**Pili Amutxastegi**
Langilea
Eskoriatza

Egia esatearren, inoiz ez naiz joan. Hala eta guztiz ere, jarraitzen dut herriko taldeen egoera, eta uste dut jendeak sarriago joan beharko lukeela kiroldegira partiduak ikustera.

**txistuak**



GOIENKARIA

## Arrapalarik ez dute jarri plazako lanetan

Aste honetan, aretxabaletar batek bidali digu kexa. Kontua da, plazan egiten ari diren lanak direla-eta, hankaz gora dagoela dena: "Plazara joateko, eskailera batzuk ipini dituzte, baina ez dute jarri arrapalarik. Horrela, bai elbarriendako bai umeen kotxeekin doazen gurasoedako izugarrizko oztopoa da", adierazi digu herritar horrek.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

**asteko datua**

## 15.500

Dirulaguntza hori emango dio Eskoriatzako Udalak Eskoriatzako Kirol Elkarteari 2008. urterako. 15.500 euroak bi zatitan ordainduko dira: %60 hitzarmena sinatu eta hurrengo hilabetean eta gainontzekoa, denboraldia bukatu eta gastuei dagokien dokumentazioa aurkeztu ostean.

**usteak uste**

**Larraitz Zeberio**

## Mende laurdena, bide erdia

Azken bi urteetan arrazoi ezberdinengatik kale egin ostean domekan Herri Urratsen izan nintzen. Gustura ibili nintzen naiz eta gauzak asko aldatu diren niretako.

Zenbat aldatu diren konturatu nintzen 18:00ak aldera gazte koadrilaz beteriko gune bat haurraren karroarekin gurutzatzen saiatu nintzenean.

Herri Urratsen aurten baino jende gehiago ikusi izan dut. Domekan ez zen jende uholderik zirkuituan ez eta ogitartekoak hartzeko ilara handirik ere. Eguraldiak, baina, errespetatu zuen Iparraldeko Ikastolen festa eta egun pasa polita egin nuen, aurten familian.

Gauza batzuk, ordea, ez dira sekula aldatzen. Bezperan, gendarmeekin egin nuen topo Behobiako zubian. Egunean, bertan, Polizia Nazionalak hartu zuen txanda. Guardia Zibila iluntzean ikusi genuen, Beran, Lizuniagako aduana zaharrean. Patruila bakarra zegoen bistan, bi agente.

Lau pertsona geunden autoan eta batek berehala bota zuen: "Hara Flamarique eta bere sargentoa!". Barre egin genuen *Noaoa* saioko pareaz gogoratuta. Eta ez ginen bakarrak izan.

Gure atzeko autoan zetozenei ere komentario berdina entzun genien Lizuniagako Bentan.

**5 galdera...**

## Kontxi Caballo

Garbituko administratzailea
Aretxabaleta

**1. Zein garbiketa mota egiten dituzue zuen enpresan?**
Mantentze-lanak, leku bateko lanak amaitu eta ondorengo garbiketak eta ezohikoak. Normalean, enpresetan, udaletxeetan, bizilagun elkarteetan...

**2. Aurten, zoru-garbigailuak 50 urte betetzen ditu. Garbiketarako tresnarik garrantzitsuena dela uste duzu?**
Ez dago zalantzarik; zoru garbigailua asmatzeak aldaketa handia ekarri zuen ordura arteko garbitzeko moduan, batez ere, erraztasunari dagokionez. Ordura arte, emakumeek belauniko jarri behar izaten zuten lurra garbitzeko. Horrez gain, zoru-garbigailuarekin aurrezten den denbora ere garrantzitsua da.

**3. Zer da garrantzitsuena garbiketa on bat egiteko?**
Nire iritziz, batez ere, beharrezkoa da pertsona arduratsua izatea, ordenatua, gauzak zaintzen jakitea eta, horrekin batera, garbiketarako egokiak diren produktu eta material egokiak erabiltzen jakitea.

**4. Lekuaren ezaugarrien arabera, garbitzeko era ere ezberdina izango da, ezta?**
Garbitzeko era baino gehiago, leku bakoitza garbitzeko erabili behar den produktuak izan behar du ezberdina. Adibidez, ez da gauza bera asko erabiltzen ez den txoko bat edo koiperik ez dagoen bat garbitzea –bulego bat, adibidez– edo koipe eta zikinkeria ugari dagoen bat garbitzea –lantegi bat, adibidez.

**5. Edozeinek etxean garbiketa ona egiteko, zer da oinarrizkoa?**
Jakin beharra dauka produktu bakoitzak zertarako balio duen; garbitzeaz gain, garbia dagoela iruditu behar zaigu. Askotan, garbi dagoela uste dugu, baina ez da horrela izaten. Gehiago edo gutxiago, denok garbitzen dugu etxean, baina gakoa da ondo garbitzea.





Arrasateko Mendebaldeko Saihesbidearen maketa, Udala aldetik. Eraikinak Garaiakoak dira; tunela, Olandixokoa. GOIENKARIA

**AZPIEGITURAK** > ARRASATEKO MENDEBALDEKO SAIHESBIDEA

# Olandixoko tunelaren obrak laster hasiko dira

Lanak dagoeneko adjudikatuta daude; behin hasita, 27 hilabetean bukatu beharko dituzte, eta 41 milioi euro inguru kostako da

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak iragarri zuen Olandixoko tunela eraikitzeko obrak udaberri inguruan hasiko zirela, eta halaxe da. Oskar Rekaldek, Diputazioko Errepide Saileko prentsa arduradunak, esan duenez, saihesbide hori egiteko lanak dagoeneko adjudikatuta daude eta "aste gutxi barru hasiko dira".

Bi kilometro luze izango da, eta bide horretako osagai nagusiak hiru izango dira: Olandixoko tunela, 860 metro luze izango dena, bi biribilgune eta Aramaio ibaia zeharkatzeko zubia. Behin obrak hasita, 27 hilabetean bukatuko dituzte. Ikusten denez, beraz, bi urte baino gehiago erabiliko dituzte obrak egiteko, izan ere, Rekaldek esan duen moduan, "obra potoloa da. Ia kilometro bateko tunela egin behar da, eta hori obra handia da".

**AHALEGIN HANDIA**

Horrekin batera, Diputazioko ordezkariak azpimarratu du Diputazioarendako "ahalegin handia" dela Olandixoko tunela eraikitzea: "Ez da oso ohikoa izaten eskualdeko errepide baten saihesbidea egitea. Gainera, Arrasatek badauka beste saihesbide bat. Dena den, ikusten dugu beharra badagoela, eta pentsatzen dugu mesede egingo diola inguruko zirkulazioari". Obra handia denaren erakusle da hor egin behar duten inbertsioa: 41 milioi euro inguru. Hortik %86 erabiliko dute Olandixoko tunela egiteko (27 milioi euro).

Saihesbidea Mugarriko zubiaren ondoan egingo duten biribilgunean hasiko da, Aretxabaleta eta Arrasate arteko mugan. Hasierako zatia mendi-mazelaren erdialdean barrena joango da, industria eraikinak gainditu ondoren; punturik garaiena ibar batzuen ondoan egongo da eta, jarraian, beherantz egingo du, tunelean sartuta.

Olandixoko tunelari dagokionez, bestelakoen artean, 860 metro luze izango da eta %2,50eko malda izango du. Bestalde, tunelaren irteeran eraikiko dute Aramaio ibaia zeharkatzeko zubi berria.

**POLITIKA** > GOBERNUAREN KOMUNIKAZIO OFIZIALA

# Alkatea aske uztea exijitu du Gobernu Batzarrak

Alkatea kartzelaratu zutenetik, lehenengo Tokiko Gobernu Batzarra egin zen

**U.M.** > ARRASATE

Asteleheneko Tokiko Gobernu Batzarrean, Ino Galparsoro alkatea kartzelaratu zutenetik egindako aurreneko udal gobernu batzarrean, Udalaren eguneroko jardunarekin lotutako gaiez gainera, komunikazio ofizial bat onartu zuten gobernu-kideek.

Batetik, "alkatearen erabateko askatasuna exijitzen" dute, haren "senide eta lagunei" elkartasuna adierazteaz batera. Gaineratu dute, Arrasateko udal gobernuaren ustez, "Ino Galparsororen kartzelaratzeak motibazio guztiz politikoa" duela eta kokatu dute "Espainiako gobernua ezker abertzalearen aurka aurrera eramaten ari den ofentsiban".

Bestetik, udal gobernuak elkartasuna adierazten dio, baita ere, Luis Mari Apraitzi, egubakoitzean jasandako erasoaren aurrean. Hain zuzen, EAJko kidearen autoaren aurka koktel batzuk bota zituzten.

**"ERABAKITZEKO ESKUBIDEA"**

Eta bukatzeko, adierazi dute "Euskal Herria gatazka gordinean murgilduta dagoela" eta hori gainditzeko diote "beharrezkoak diren baldintza demokratikoak berreskuratu beharrean" gaudela. Bide horretan, "ezinbestekotzat" jotzen dute "lurraldetasuna eta erabakitzeko eskubidearen aitortza" eta euren "konpromisoa eta borondatea" adierazten dute "konponbiderako urratsak eman daitezen".

**OSASUNA** > ODOL-ATERATZEAK

# Odol emaile zahar zein berriei deia, odola emateko

Dei berezia egin gura dute 18 urte dituzten gazteak odola ematera joan daitezen

**U.M.** > ARRASATE

Arabako Odol Emaileen Elkarteak deialdia egin du datozen bi eguazten eta bi eguenetan (maiatzaren 21, 22, 28 eta 29an) odola ematera joateko. Orduak eta odola emateko lekua betiko berak dira: osasun zentroan, 16:30etik 20:00ak bitartean. Isabel Viloriak, odol emateen koordinatzaileak, esandakoaren arabera, ohiko odol emaileak deitzeaz gainera, deitu gura dituzte, bereziki, "18 urte bete dituzten gazte horiek, lehenengo aldiz odola ematera joan daitezen eta guztiondako eredu izan daitezen".

**ARRASATEKO DATUAK**

Horrekin batera, 2007an Arrasaten egindako odol-ateratzeen datuak ere helarazi dituzte. Haien arabera, odol emaileen elkarteak egindako 12 irteeretan, 438 lagunek eman du odola osasun zentroan. Horrez gainera, zenbait lantegitan eta MUn ere izan ziren iaz. Adibidez, Fagor Garagartzan, 232 emailek eman zuen odola elkarteak egin zituen lau irteeretan. Mondragon Unibertsitatea dator gero, 172 emailerekin beste lau irteeratan. Eta Fagor San Andresen, berriz, irteera kopuru berean 156 emaile izan zituzten. Fagor Arrasateri dagokionez, bi irteeratan, 103 emaile izan ziren: 98, Euskadiko Kutxan; 77, Ikerlanen; 74 , Fagor Elektronikan; 54, Auzo Lagunen; eta 51, Alecopen. Bukatzeko, JMAra behin etorri ziren eta 23 emaile izan zen han.




**AZPIEGITURAK** > LUR AZPIKO APARKALEKUAK

# Aparkalekua eskuratuz gero, 1.500 euro opari

Biteri eta Laubideko parkingetako aparkalekuak saltzeko kanpaina berezia antolatu dute

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Kanpaina abiarazi behar dute astelehenean Biteri eta Laubideko aparkalekuak promozionatzeko. Lur azpiko 290 bat aparkaleku dituzte oraindik salgai (50 urterako emango dituzte), eta haien salmenta bultzatu gura dute.

Hori lortzeko, aparkaleku bat eskuratzen duenari 1.500 euro oparituko dizkiote, Ibai Arte merkatarien elkarteko saltokietan gastatzeko. Horrez gainera, aparkalekua bera ordaintzeko "finantzazio-erraztasunak" ere emango dituzte, Vasconia banketxearekin (165 euro hilean, hamar urtez). Informazio guztiarekin eskuorriak banatuko dituzte, eguaztenean hasita.

**HITZARTUTAKO PREZIOA**

Halako plaza bat 15.000 euro kostatzen da: "Udalarekin hitzartutako prezioa da hori, espekulaziorik ez gertatzeko. Oso prezio ona da; pentsa, Gasteizko Dato kalean eraikitzen dabiltzan aparkaleku batean 90.000 eurotan dabiltza saltzen plazak", azpimarratu dute Bikanitik, Arrasateko lur azpiko aparkalekuen kontzesioa duen enpresatik. Kanpainari dagokionez, Arrasateko Udalak, Bikani enpresak eta Ibai Arte elkarteak elkarlanean landutako ekimena da.

**IA 600 APARKALEKU**

Biteri parkingari dagokionez, berriz, 2007ko udaberrian estreinatu zuten. Guztira, 597 aparkaleku ditu, 432 Biterin eta 165 Laubiden; Biterikoen artean, 150 dira txandaka erabiltzekoak, publikoak. Publikoen kasuan, ondo funtzionatzen dutela adierazi dute Bikanikoek: "Badira egun eta ordu batzuk beteta egoten direna: egubakoitzetan goizeko azoka txikiarekin edo arratsalde askotan, 17:00etatik 18:00etaraartean, asteburuetan, e.a.".

> POLITIKA

## Preso jarraituko du Ino Galparsoro alkateak

Ino Galparsoro Arrasateko alkatea kartzelatzearen aurka haren defentsak aurkeztutako helegitea atzera bota du Baltasar Garzon epaileak. Hain zuzen ere, kartzelan mantentzea erabaki du Garzonek, "EAE-ANVko kide gisa ETA-Batasunaren aginduak jarraitzeko asmoa". Alkatearen defentsak iragarri du berriro errekurrituko dutela.

> EUSKARA

## Euskara lan esparruan, eguaztenean

Datorren eguaztenean euskararen egoera aztertzeko hirugarren mahai-ingurua egingo du AED elkarteak. Dani Larreak Emunek presidenteak eta Agurtzane Loidik Elhuyarreko ordezkariak jardungo dute, 19:00etan.

**bere ustez**



Antxon Mendizabal

## Ino, maite zaitugu!

Mozio etikoarekin batera pluraltasun politikoa eta eskubide guztiak defenditzen dituzten horiek, ideia ezberdinak edukitzeagatik, gure herriko alkatea, Ino Galparsoro, espetxean sartu dute. Hau da gure demokrazia. Frankismoaren trantsizioak ezarritako miseria demokratiko eta etikarekin identifikatzen dena. Euskal Herrian, herritarren eskubideen aurka etengabeko erasoa egiten duena. Dominazioren etika eta demokrazia barregarria. Hemen eta orain, Euskal Herriko herritarren atal zabal batendako, demokraziak, zapalkuntza, ustelkeria, espainikeria, eta manipulazioa adierazten ditu. Demokraziaren jantziekin frankismotik datozen bela beltzak.

**"Demokraziaren jantziekin, frankismotik datozen bela beltzak"**

Garbi gelditu da, mozio etikoaren atzean disidentzia politikoaren eskubideen urraketa garbia egon dela. Eskenatoki politiko eta sozial berria eskatzen duten herritarren ahulezia gauzatzeko, botereak diseinatutako plangintza. Mozio etikoaren atzean, bake prozesuaren irtenbide politiko eta demokratikoa planteatzen duten indar politikoak, ezabatu nahi dituzte. Eta hori da hemen gakoa. Hori da hemen nahi dutena. Gure herriaren eskubideen suntsiketa definitiboa.

**ZERBITZUAK** > ARRATOIAK KONTROLATZEKO

# Arratoien kontrola egiteko hileroko udal zerbitzua dago

Bilboko Menforsan enpresak prebenitzeko tratamendua eta segimentua egiten ditu



Eguaztenean 10:30ean arratoia zebilen Zarugalden, lasai asko. S.A.

**U.M.** > ARRASATE

Udaberri bete-betean gaude eta gauza atsegin asko ekarri ditu urtaro horrek berarekin. Baina baita ere oso atseginak ez diren beste batzuk; esaterako, arratoien ugalketa. Horren erakusle da Zarugalde kaleko bizilagun batek eguaztenean bidalitako argazkia. Bada, hori ikusita, Udalera jo dugu, halakoetan zer egin behar den jakin guran.

**HILERO ETORTZEN DIRA**

Arrasateko Udalean, Obra eta Zerbitzu saila arduratzen da kontu horiekin. Amaia Arana saileko teknikariak emandako azalpenen arabera, Arrasateko Udalak badu zerbitzu bat arratoien ugalketa kontrolatzeko, eta jakinarazi du hilero egiten dutela Arrasaten "prebenitzeko tratamendua; hilabete bakoitzeko erdialde inguruan etortzen dira".

Horrez gainera, teknikariak gaineratu duenez, segimendua ere egiten dute eta "nonbaitetik abisuren bat dagoenean, berriz, bereziki etortzen dira, tratamendua ipintzen dute leku horretan eta gero segimendu berezia egiten dute. Adibidez, maiatzaren 7an Santa Teresatik jaso genuen abisua", azaldu du udal teknikariak.

**POZOIAREN BITARTEZ**

Bilboko Menforsan enpresak egiten ditu garbiketa berezi horiek, Arrasateko kaleak garbitzen dituen Cespa enpresak azpikontratatuta.

Pozoia erabiltzen dute arratoiak akabatzeko, eta normalean gizakiok ikusi ere egiten ez ditugun lekuetan ipintzen dute: "Abisua jasotzen duten guneko saneamendu eta argiteria arketetan eta halako lekuetan ipintzen dute". Eta noizbait pertsonek edo txakurrek ikus genezakeen lekuren batean bota behar badute, berriz, abisatu egiten dutela dio Aranak: "Kartel batekin abisua ipintzen dugu; adibidez, zakurren jabeek euren zakurrak hara eraman ez ditzaten eta pozoiarekin istripuren bat gerta ez dadin".

Horrenbestez, horixe, kalean edo etxean arratoiren bat ikusiz gero udaletxera deitu behar da: 943 25 20 06 (Amaia Arana).

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74

**ZINEMA** > EKOLOGIA

# EkoZinemaldia Arrasateko Kulturatera iritsiko da hilaren 27an

Zor ekologikoaz sakondu nahi du ekimen horren bidez Ekologistak Martxan taldeak; film emanaldiak, hitzaldia, eta tailerra izango dira lau egunetan

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Ekologistak Martxan taldeak EkoZinemaldia antolatu du aurten bigarrenez. Euskal Herriko hainbat txokotan egingo da egitasmo hori; tartean, Arrasaten. Filmen emanaldia maiatzaren 27tik 29ra bitartean izango da, Kulturateko areto nagusian.

Horren helburua zor ekologikoa gisara ezagutzen denaren gainean sakontzea dela jakinarazi du Ekologistak Martxan-ek. Hala, arlo zabal hori lantzen dituzten filmak ikusi ahal izan dira. Hilaren 27an, martitzena, *Crudo despertar* eta *Ripsol-Contrajunta 2007* izeneko filmak egongo dira ikusgai Kulturaten.

**HITZALDIA**

Eguaztenean, berriz, *Los ojos cerrados de America Latina* proiektatuko dute; eta maiatzaren 29an, azkenik, Paraguayko *Soberania Violada* filma botako dute. Azken horren ondotik, erregaien gaineko hitzaldia egingo du Movimiento Agrario y Popularreko kide Gida Roak. Laborantza transgenikoek eragiten duten giza eskubide eta ekologikoen urraketa salatzen du horrek. Film emanaldi guztiak Kulturateko areto nagusian izango dira, 19:00etan. Sarrera dohainekoa izango da.

Horrez aparte, maiatzaren 31n, birziklatutako materialarekin egindako jostailuen tailerra egongo da Seber Altube plazan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bitartean.

**JAIAK**

## San Juanetako kartel lehiaketa deitu du Udalak

**U.MADERA/M.BITERI** > ARRASATE

Hilabete pasatxo besterik ez da falta herriko jai nagusietarako, eta Udala badabil beroiek antolatzeko zereginean. Horren adibide da 2008ko San Juan jaietarako kartel lehiaketa deitu duela Udalak.

Lehiaketara edozein pertsona aurkez daiteke, eta kartela egiteko teknika librea izango da, baina kartelek, derrigorrez, *2008 San Juan Jaiak Arrasate* testua izan beharko dute. Horrez gain, irudia, gutxienez, 28x31 zentimetrokoa izan beharko dela kontuan eduki behar dute interesatuek.

Bestalde, kartelak datorren maiatzaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dira BAZen (Biztanleen Arreta Zerbitzuan). Arratsalde hasierara arte aurkeztu ahal izango dira horiek; 14:00ak arte, hain zuzen. Egilearen nortasuna azaldu gabe eta atzeko aldean lelo bat duela utziko dira han kartelak. Horrekin batera, gutun-azal itxi batean, lelo bera eta egilearen datuak adieraziko dira.

**SARIA, 750 EURO**

Lehiaketaren irabazleak 750 euroko saria jasoko du. Saritzen den lana Udalaren esku geratuko da, eta kaleratzeko eskubidea izango du berak.

Egoki ikusten bada, aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa egingo da. Saritu barik geratzen diren lanak erakusketa horren azkeneko egunetik hasi eta 30 eguneko epean jaso ahal izango dira. Epe horretan egileek jaso ez badituzte, erreklamazio edo indemnizazio eskubiderik ez dute izango; Udalak horiek gura duenerako erabili ahal izango ditu.

**MUSIKA** > KONTZERTUAK

## Sorkun & Vicepresidentes eta Willis Drummondekoek joko dute 3.60 aretoan

**M.B.** > ARRASATE

Ohikoa den bezala, gaur, egubakoitza, kontzertuak izango dira Arrasateko 3.60 aretoan. Sorkun abeslari ezaguna izango da han, Vicepresidentesekin batera. Ez da emanaldi bakarra izango; Willis Drummond taldekoak ere agertokira igoko dira. Kontzertuak 23:00etan hasiko dira. Beñat Silum Soundz dj ere han izango da.

**JESSIE EVANS ETA TOBY DAMMIT**

Domekan, bestalde, Jessie Evans eta Toby Dammit bikote estatubatuarra izango da Amaia Antzokian. Dammit ezaguna da Iggy Pop-en ondoan bederatzi urtez egon zelako, besteak beste. Evans, bestetik, Subtonix talde ospetsuan ibilitakoa da, beste askoren artean. Bikote horren emanaldia 20:00etan hasiko da, esan bezala, Amaia Antzokian.



Sorkun & Vicepresidentes taldea 3.60 aretoan izango da gaur. GOIENKARIA

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



margolan
margoak

margo industriala
margo orokorra
margo dekoratiboa
erreformak orokorrean
fatxadak

Sagasti auzoa 5-3D • ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 13 • 665 73 39 55 • 687 57 07 77



PUB HAIZEA
arrasate

Hiruna
construcciones, reformas y contratas

Ondo pasatu
Zigarrolako jaixetan!

Elkano kalea 5, behea
Arrasate
Tel.: 943 77 17 20
Faxa: 943 79 81 30
Mug.: 635 706 990
hiruna@hirunaconstrucciones.com



BASATI
TABERNA
943 711768

# ZIGARROLAKO JAIAK 2008
## ARRASATE



**Maiatzak 16**

10:00 KANPAI ERREPIKA eta etxafuegoak.
10:15 Haurrentzako KIROL-JOKOAK auzoko eskoletan.
11:30 DANBORRADA San Frantzisko ikastolako umeekin.
17:00 HERRI MERIENDA auzoko haur guztientzat gazte txokoan.
19:00 IKURRINA IGOTZEA. Buruhandiak gaitariekin batera.
19:30 Auzoko erretiratuentzako JAI-AFARIA Al-Andalus kultura etxean.
23:00 ROCK KONTZERTUA San Antolin plazan: Ozen, Muskaria eta Scam.
San Isidro eliza ondoan KAIXO taldearekin DANTZALDIA.

**Maiatzak 17**

09:00 Musakolako I. BTT IRTEERA.
11:00-13:30 PUZGARRIAK San Antolin ikastolan.
11:30-12:30 KENPO ERAKUSTALDIA San Antolin ikastolan.
12:00 HERRI TXIKITEOA, gaitariek alaituta.
13:30 URREZKO ASTOKILOAK eman eta jartzea.
15:00 HERRI BAZKARIA San Isidro eliza ondoan.
16:00 XIII. XAKE IREKIA San Antolin ikastolan.
17:00 HERRI KALEJIRA.
17:00-20:00 PUZGARRIAK San Antolin ikastolan.
18:00 San Isidro SOKATIRA SARI NAGUSIA.
19:30 BURUHANDIAK gaitariekin batera.
23:00 ROCK KONTZERTUA: Los Cretinos, 5 Twisters eta Shaggy Daddy & The Troublemakers. San Isidro eliza ondoan KAIXO taldearekin DANTZALDIA.
Gauerdian MODA IKUSKIZUNA auzoko pertsonaia xelebreenekin.

**Maiatzak 18**

11:30-13:30 PUZGARRIAK.
11:30 GIMNASIA ERRITMIKO erakustaldia Musakolako kiroldegian.
12:30 TXIKITEOA txarangarekin alaituta.
16:30 AUTO TELEGIDATUEN ERAKUSTALDIA Elkanoko garajeen gainean.
18:30 KALEJIRA txarangarekin.
22.30 ETXAFUEGO jaurtiketa eta jaien amaiera.

Virginia ile apaindegia • Gaindegi jatetxea • Maiatz ile apaindegia
Musakola elektrizitatea • Ziorla taberna • Musakola estankoa • Berogi okindegia
Azpilikueta harategia • La Estrella taberna • Txinato taberna • Iosu taberna
Basilio taberna • Arrasate elektrizitatea • Meneta taberna • AGR Erreformak SL
Beberly taberna • Udalaitz SL • Amuebladora Mondragonesa taldea
Tourline Express mensajeria • Argi-Plastik SL • Bereya elektrizitatea
Iluna taberna • Jey Juliwer taberna • Lirain ile apaindegia • Eguren arraindegia
Kabia altzariak • Berango sukaldeak • Hiper Eroski kafetegia • Goi Solutions

**ONDO PASATU JAIETAN!**


Kintana Urdanetaren kontrako norgehiagokan. JOSETXO ARANZABAL

**SASKIBALOIA** > LEHENENGO MAILA, IGOERA FASEA

# Urteko azkena, bihar, 18:00etan

Aurreikuspenek zioten igoera faseko oilarren arteko partidua tentsio handikoa izango zela; ez da horrela izango, biek bete dute-eta helburua

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Urteko garaipen ospatuenetakoa izan zen orain dela hilabete eta erdi MUk Gasteizen eskuratu zuena, E.Leclerc taldearen kantxan. Orduan, talde hori zen MUkoen agintaritza kolokan jar zezakeen kontrario bakarra, baina zuri-moreek neurria eman zuten eurena ez zen kantxan –nahiz eta euren zaleen babesa izan–, eta 77-85 irabazita sekulako aurrerapausoa egin zuten EBAra bidean.

Orain, Gasteizkoak datoz errebantxa bila, baina orain dela gutxi aurreikusi zitekeena baino zeingehiagoka lasaiagoa izango da biharkoa, bi taldeetako inork ez duelako ezer jokoan.

**LANAK EGINDA**

Igoera faseko lehenengo sailkatuak etxeko lanak eginda iritsi dira azken jardunaldira. MUk hamabost egun dela bete zuen helburua, eta gasteiztarrendako joan zen asteko norgehiagoka izan zen erabakigarria. Cafes Aitonari irabazita (72-71), Leclerc izango da EBAra igotzeko Lauko Finala jokatuko duen taldeetako bat –bigarren sailkatuak beste lurraldе batzuetako azpitxapeldunekin kanporaketa jokatu behar du–. Hala, Gasteizko taldeak kanporaketa hori ahalik eta ondoen prestatzea du helburu. Normala den moduan, MUkoek oporrak dituzte buruan, eta baita biharko Zigorrolako ospakizunak ere.

**MENDIKO BIZIKLETA** > IRTEERA

# Mendiko bizikleta irteera, bihar, Zigorrolan, 09:00etan

Antolatzaileek bi ibilbide aurreikusi dituzte; luzeak 37 kilometro ditu, eta motzak 22 inguru

**X.U.** > ARRASATE

Zigorrolako jaiak direla-eta, jai egitarau barruan lagun koadrila batek mendiko bizikleta irteera antolatu du biharko. 09:00etan izango da irteera ordua, baina antolatzaileak 08:15etatik izango dira izenak hartzen, Legargaingo plazan: "Izenematea 10 eurokoa izango da, eta diru kopuru horrekin jatekoak eta edatekoak emango ditugu; baita oparitxo bat ere", adierazi dute antolatzaileek.

**BI IBILBIDE**

Horrelako bizikleta irteeratan ohikoa den moduan, antolatzaileek bi ibilbide aurreikusi dituzte, txirrindulari denak ez dau-de-eta gorputzaldi berean: "Zigorrolatik irten, eta *sietecaminos*-etik Urkulu aldera joan eta gero, Kurtzetxikira itzuli eta San Prudentzio gainetik Zigorrolara jaitsiko gara. Hala, kiroldegi parean jatekoak eta edatekoak emango ditugu –22. kilometroa izango da–, eta animatzen direnek Anporreta aldera egingo dute, ibilbideko bigarren zatira. Gura duenak, baina, sabela beteta etxerako bidea hartu ahal izango du".

**SEGURU BARIK**

Antolatzaileek gogorarazi dute biharko bizikleta irteerak ez duela segururik izango: "Ibilbideak ez ditu oso jaitsiera arriskutsuak, baina badaude pare bat malda kontuz ibili beharrekoak. Hala, jakinarazi gura dugu irteerak ez duela segurorik izango".

Hori bai, bizikleta irteera amaitutakoan kiroldegiko dutxak erabili ahal izango dituzte, eta bizikletak garbitzeko gunea ere jarriko dute.


Bizikleta zaleak ibilbidea hasteko zain, Eskoriatzan. ARTXIBOA

> ATLETISMOA

### Benjamin mailako atletek Mojategin jardungo dute bihar, eta Almeriara joango dira pertigistak

Bihar goizean benjamin mailako atletek jardunaldia izango dute Mojategin. Horrekin batera, domekan eskola arteko txapelketak egingo dituzte Eibarren.

Atleta nagusiagoak, baina, batera eta bestera ibiliko dira asteburuan. Jonathan Perez eta Lander Errasti Madrilen izango dira, eta Almerian Maialen Axpe, Lore Mar eta Oihana Zubizarreta.

## futbitoa zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Cipris-Saukelu Abian | 3-4 |
| Kalapatxak-Equs | 6-3 |
| McAwenDauen-Cicatrus | 10-2 |
| Betrayer-HLB 108 | 5-6 |

**PARTIDUAK**

| Maiatzak 17, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| **12:00** HLB 108-Cicatrus | **Lasagabaster** |
| **13:00** Lasagabaster-Kokots | **Cicatrus** |
| **17:00** Iriztu-Dublin | **Kokots** |
| **18:00** Total Disaster-Kokots | **Iriztu** |

| Maiatzak 18, domeka | Epaileak |
|---|---|
| **11:00** McAwen-Lasagabaster | **Iriztu** |
| **12:00** Cipris-Iriztu | **Mc Awen Dauen** |
| **13:00** Dublin-Iturriotz | **Cipris** |
| **17:00** Betrayer-Kalapatxak | **Abokajarro** |
| **18:00** AT Celaya-Abokajarro | **Kalapatxak** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | McAwen Dauen | 46 | 17 |
| **2.** | Dribling | 35 | 17 |
| **3.** | Cipris | 34 | 17 |
| **4.** | Lasagabaster | 32 | 16 |
| **5.** | HLB 108 | 31 | 17 |
| **6.** | Betrayer | 31 | 17 |
| **7.** | Kalapatxak | 29 | 17 |
| **8.** | Saukelu Abian | 29 | 17 |
| **9.** | Dublin | 28 | 17 |
| **10.** | Iriztu Taberna | 28 | 17 |
| **11.** | AT Celaya | 28 | 17 |
| **12.** | Abokajarro | 20 | 17 |
| **13.** | Iturriotz Taberna | 20 | 17 |
| **14.** | Equs | 16 | 17 |
| **15.** | Bar Kokots | 15 | 16 |
| **16.** | Cicatrus | 15 | 17 |
| **17.** | Total Disaster | 9 | 17 |
| **18.** | Ekaitz Taberna | - | - |
| **19.** | Iluntz | - | - |
| **20.** | THC | - | - |

### Asteburuan, liga jardunaldia, eta kopako finala, maiatzaren 31n

Kopako final-laurdenak jokatu zituzten joan den astean, eta dagoeneko badakigu zeintzuk izango diren finalean. Beste behin, Dribling izango da finaleko bi taldeetako bat, eta oraingoan Cipris taldea izango dute aurrean. Hala, ligako sailkapeneko bigarren eta hirugarren sailkatuak izango dira zein baino zein gehiago.

Ligan, berriz, aldaketa gutxi. Mc Auen Dauen taldeak jarraitzen du lider, hamaika puntuko aldearekin. Bitartean, sailkapenaren erdialdean dabiltzan taldeek orain egin behar dute azken bultzada, hurrengo fasera sailkatzeko.




ESKORIATZAKO KULUNKA HAURRESKOLA eta ARRASATEKO BEDOÑABE HAURRESKOLA

**Matrikulazio epea zabalik**

**NOIZ: Maiatzaren 19tik 30 arte.**
**NON: Eskoriatzako Kulunka Haurreskolan (Gaztañadui, 25. Luis Ezeiza ondoan)**
**Arrasateko Bedoñabe Haurreskolan (Alfonso VIII. 1)**
**NORENTZAT: 2007 eta 2008 urteetan jaiotakoentzat.**
**INFORMAZIO BILERA ARRASATEN: Maiatzaren 19an, arratsaldeko 17:00etan.**
**ATE IREKIAK ESKORIATZAN: Maiatzaren 19 eta 20an, 17:00etatik 19:00etara.**
**Harremanetarako zenbakiak:**
Eskoriatzako Haurreskola: 943715770
Arrasateko Haurreskola: 943797686
Haurreskolak

txutxu-mutxua



BESAIDE

## Besaide mendi elkartekoek irteera egin zuten joan den domekan

**Besaide mendi elkartekoek joan den maiatzaren 11n mendi irteera egin zuten Nafarroa aldera. Torralba del Rio–Nuestra Señora de Kodes–Joar gailurra (1.414 metro)–Nazar mendatea–Nuestra Señora de Ibernalo-Kanpezu izan zen ibilbidea. Arrasatetik 07:30ean atera ziren Torralba de Rioraino. Puntu hartan, 09:15 aldera hasi zuten ibilbidea. Guztira, bost ordu eta erdiko ibilbide gogorra izan zen behe laino artean. 30 bat lagun inguru joan ziren ibilbidea egitera. Irudian, bertara joan zirenek Joar gailurrean ateratako argazkia. Hurrengo irteera ekainaren 1ean izango da. Orduan, Lizarragako mendatea–San Donato–Unanua–Arbizu artean.**

kanpotarrak Arrasaten

**Pilar Albiol** > Katalana
Arrasaten bizi da

# "Faltan, Bartzelonako argitasuna sumatzen dut"

**JASONE ZABALA** > ARRASATE

**Vilanova i la Geltru (Bartzelona) herrikoa da Pilar Albiol. Haren senarra arrasatearra da. Katalunian ezkondu zen eta Arrasatera etorri zen bizi izatera; eta dagoeneko lau urte daramatza Arrasaten bizi izaten.**



Pilar Albiol.

Pilar Albiol pozik bizi da gure artean. Arrasatear batekin ezkondu zen duela lau urte. Herria utzi eta Arrasatera etorri zen. Bi seme-alaba izan ditu, Ainara eta Iñaki: "Izenak jartzeko orduan asko pentsatu genuen, ezin zirelako ahoskatzeko zailak izan Katalunian bizi den familiarentzat", adierazi digu Albiolek. Etxean seme-alabei euskaraz eta katalanez egiten diete. Euskararekin lehen hartu-emana Bartzelonan bertan izan zuen: "Bi urtean euskarazko eskoletara joan nintzen, gure kulturarekin antz handia duen hizkuntza delako". "Orain, Arrasaten, euskarazko irakasle bikain bat dauka, alaba Ainara. Eta horrekin batera honakoa adierazi du: Janariari dagokionez, eta "askotan esaten den arren", Albiolen ustez, oso ondo jaten da hemen, "batez ere, amama Pilik prestatzen dituen jakiak". Paisaiak gustuko ditu, baina horrenbeste euri ez du oso gogoko; Vilanovako argitasun falta igartzen du. "Bartzelonako familia ere faltan sumatzen du, baina Arrasaten duen familiarekin gauza guztiak errazago egiten direla esan digu: "Kataluniara joaten gara bisitan, ahal dugun guztietan, gainera; izan ere, garrantzitsua iruditzen zait, batez ere, seme-alabendako. Etorkizunean, ikusi egin beharko da zer gertatzen den baina, oraingoz, pozik gaude hemen".



**ONDAREA** > TRIKUHARRIAK ETA TUMULUAK

# Herriko bi eremu megalitikoak garbituko dituzte hilaren bukaeran

Bi fasetan egingo ditu garbiketa lanak Udalak: maiatzean eta azaroan

Lanak Udaleko mendi brigadak egingo ditu, arkeologo baten zuzendaritzapean


Kapirixo elkarteko kideak, Irukurutzetako eremu megalitikoa garbitzen, 1995ean. UDAL ARTXIBOA

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA
Herriko eremu megalitikoa garbitu egingo dute. Bi estazio megalitiko daude Bergarako udalerrian: Udala-Intxorta eta Elosu-Karakate. Lehenengo eremuan, bost trikuharri eta bi tumulu daude Bergarako lurretan, eta bigarren eremuan, bost tumulu. Guztira 12 megalito daude, eta horiek garbituko ditu Udalak hilaren bukaeran, maiatzaren 27tik 30era bitartean. Udalaren asmoa da bi eremuak garbi mantentzea aurrerantzean ere.

**BABES MAILA HANDIENA**
Bi eremu megalitiko horiek Monumentu Multzo Kalifikatu izendatuta daude eta babesik handiena dute. Horrek esan gura du gune horien erabilerak zientifikoa edo kulturala bakarrik izan behar duela eta horietan garbitzea, kontserbatzea, berritzea eta arkeologikoki ikertzea bakarrik egin daitekeela. Horrela, garbiketa lanak arkeologo baten zuzendaritzapean egin behar dira.

Lurailan enpresako Luis del Barrio arkeologoaren agindupean egingo du Udaleko mendi brigadak megalitoen garbiketa. "Megalito batzuek 5.000 urte dituzte. Garbiketa lanak kontu handiz egin behar dira, trikuharriak eta tumuluak apurtu barik", dio Luis del Barrio arkeologoak. Lanen aurrekontua 3.950 euro da. Lursailen jabeen kolaborazioa ere izango du Del Barriok garbiketa lana egiteko. "Eremuak garbi egonda, bi helburu lortzen dira: eremu megalitikoa urrutitik ere ikustea eta mendian egin behar den edozein lanen aurrean babestea", dio Del Barriok.

**AZAROAN BIGARREN GARBIKETA**
Garbiketa lanak bi fasetan egingo dituzte: maiatzean eta azaroan. Azaroan megalito guztien garbiketaren errepasoa egingo dute. Udalak, dena dela, eremu horiek garbi mantentzeko asmoa du eta ez du baztertu datozen urteotan ere garbiketa lanak egitea. Bestalde, Mundumira jaialdiaren barruan, eremu megalikora irteera antolatu dute ekainaren 6rako. Pol-Pol mendi taldeak egingo ditu gidari lanak.

## Kapirixo elkarteak material didaktikoa ere atera zuen

Kapirixo elkarteak Elosu-Karakate eremu megalitikoa garbitu zuen duela urte batzuk, 1995eko urritik 1997ko apirila bitartean, hain zuzen ere. Guztira, 45 pertsonak hartu zuten parte.

Udalak utzitako lanabesak erabili zituzten garbiketa lanak egiteko. Garbitzeaz gain, eremu megalitikoaren seinalizazioa ere egin zuten: eraikin bakoitzari bere argibidea jarri zioten eta informazio orokorreko panelak ere jarri zituzten.

Bideoa eta material didaktikoa ere prestatu zuen Kapirixok.


Keixeta hegoaldean dagoen trikuharria eta tumulu batzuk. UDAL ARTXIBOA

Janari prestatuak
ENKARGUZ

Bergara • 695 70 11 37

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

Mujika
gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

**MENDEKOSTE JAIAK** > BALANTZEA

# Errekortadoreak eta koadrilen eguna, ekitaldi jendetsuenak

Martitzeneko Brakala taldearen kale antzerkia izan da eguraldiak zapuztu duen ekitaldi bakarra

Datorren urtean tabernariei ere proposatuko die Udalak edalontzi berreralbigarriak erabiltzea


Koadrilen eguneko herri bazkarirako 500 txartel saldu zituzten. NEREA MENOR

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Mendekoste jaien balantze ofiziala martitzenean egingo du jai batzordeak, baina Udaleko Kultura Sailak aurreratu du positiboa dela. "Uste dut eguraldiak ez dituela jaiak zapuztu, nahiz eta lehenengo egunetan askorik ez lagundu. Ekitaldi bakarra gelditu da bertan behera euriagatik: martitzenean Brakala taldeak egin zuen kale antzerkia ez zuten bukatu", dio Enara Minguez Kultura zinegotziak. Parte-hartzeari buruz, Minguezek uste du jende askok hartu duela parte aurtengo Mendekoste jaietan. "Txosna batzordeak egun guztirako egitaraua prestatu du aurten eta, gauez ez ezik, egunez ere jende asko ibili da jaietan. Ekitaldietan parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet Udalaren izenean", gaineratu du Kultura zinegotziak.

Ekitaldirik jendetsuenak izan dira bigantxa, errekortadoreen ikuskizuna eta astelehenean koadrilen eguna ospatzeko prestatutakoak. "500 txartel saldu ziren herri bazkarirako, eta ondorengo jolasetan ere askok hartu zuten parte", zehaztu du Minguezek. Bestalde, edalontzi berrerabilgarriei esker, zikin gutxiago batu dela onartu du Kultura zinegotziak eta dio datorren urtean tabernariekin hitz egingo dutela, haiek ere horrelako edalontziak erabiltzeko.

**GERTAKARIRIK EZ**

Udaltzaingoaren esanetan ere, jaiak ondo pasa dira. "Domekatik astelehena bitarteko gauean, zaborraren bi edukiontzi irauli zituzten, Burdiñaten eta Ibargarain, baina gainerakoan ez da aipatzeko ezer gertatu", dio Alfonso Alonso udaltzainburuak. Lapurrei buruz, aurten gutxi ibili direla dio Alonsok: "Kartera bakarra agertu da bulegoan".


Puzgarriekin eta jolasekin gozatu zuten umeek martitzenean Ipintzako gunean. NEREA MENOR

> JAIAK

### Arte azoka egin gura dute San Antonio auzoko jaietan

Artelanen azoka egin gura dute San Antonio auzoko jaietan. Gure Ametsa elkartea ari da antolatzen. Asmoa da eskuz egindako produktuen azoka egitea: egurrezko tailak, buztinezko ontziak eta oihalarekin, kristalarekin eta paperarekin eskuz egindako artelanak, adibidez. Bildumak ere sartzen dira. Parte hartu gura duenak izena eman behar du telefono zenbaki honetan: 648 01 32 40.

Azoka hiru hilean behin egiteko asmoa du Gure Ametsa elkarteak. Horrela, lehenengoa ekainaren 15ean egingo dute, auzoko jaietan, eta irailaren 28an eta abenduaren 21ean egingo dituzte hurrengo biak.

> HEZKUNTZA

### Gor-itsuen inguruko hitzaldia egingo dute Aransgin

Gor-itsuei edo usher sindromeari buruz hitz egingo dute datorren eguaztenean, maiatzak 21, Aransgin. Itsutasun mota horrek pertsona gorrengan duen eraginaz hitz egingo dute. Eguneroko bizitza nola antolatu ere eztabaidatuko dute, besteak beste.

Usher sindromeaz berba egitera etorriko dira Casimiro Ondo gor-itsu gaztea eta Guillermo Azkarate, Aransgiko koordinatzailea. Hitzaldia 16:00etan hasiko da eta herritar guztiendako da.

EDEL
TAPIZ DENDA
*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena*
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374-SS
BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34



Musika Eskolako hainbat taldek hartuko dute parte biharko kontzertuan. MUSIKA ESKOLA

**MUSIKA** > MUSIKA ESKOLAKO TALDEEN KONTZERTUA

# XX. udaberriko kontzertua, Musika Eskolakoen eskutik

Kontzertua zapatuan izango da Udal Pilotalekuan Musika Eskolako hainbat talderekin, 19:00etan

Emanaldiaren ostean, afaria egongo da nahi duten guztiendako Udal pilotalekuan bertan

**JASONE ZABALA** > BERGARA
Bihar, zapatua, Bergarako Musika Eskolako taldeek XX. udaberri kontzertua eskainiko dute, 19:00etan Udal Pilotalekuan. Tere Aranzibiak egingo ditu aurkezle lanak. Kontzertuan eskolako talde guztiek parte hartuko dute, besteak beste: Suzuki taldeak, trikitilariak, txistu taldeak, akordeoi orkestrak, abesbatzak, Gazte Bandak, orkestrak eta aurrehizkuntza eta hizkuntza musikaleko ikasleek. Ondoren afaria egongo da. Aurten, aldaketa txiki batekin dator hori: urtero domekan izan ohi da kontzertua eta bazkaria egin izan ohi dute; baina aurten, zapatuan eskainiko dutenez, urteroko bazkariaren ordez afaria egingo dute.

**EGITARAUA**
Egitarauak hasiera, baina, arratsaldean izango du; hala, 18:30ean, trikiti taldearekin kalejira izango da; ondoren, 19:00etan kontzertua, Udal Pilotalekuan, eta 21:00etan, afaria pilotalekuan. Jarraian, guztiondako jaialdia. Kontzertuko egitarauari dagokionez, Suzuki biolin taldeak hiru lan eskainiko ditu. Ondoren, akordeoi orkestrak bi lan eskainiko ditu; hirugarrenik, orkestra sinfonikoak beste hiru lan eskainiko ditu; trikiti taldeak bals herrikoia eskainiko du; haurren abesbatzak bi lan eskainiko ditu Eli Mendiaratz piano-jolearen laguntzarekin; txistu taldeak lau lan eskainiko ditu, hauen artean, *Ixil-ixil* kanta herrikoia; Gazte Bandak Alberto Laskurainek moldatutako marrazki bizidunei buruzko lan bat eskainiko du; eta azkenik, aurre-hizkuntza eta hizkuntza musikaleko ikasleek Bergarako Musika Eskolako martxa eskainiko dute.

**IKUSKIZUNA** > ANTZERKI FOROA

## Indarkeria eta jarrera bortitzak ekiditeko antzerki saioa dago bihar Aroztegi aretoan

Sarrera doakoa izango da; 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei dago zuzenduta

**J.Z.** > BERGARA
Bihar, zapatua, *bullying*-aren eta arrazakeriaren inguruko antzerki foro saioa egingo dute Bergarako Aroztegi aretoan, 17:00etan. Bergarako Udaleko Kultura Sailak antolatu du ekitaldia, Arantzazuko Baketik zentroaren laguntzarekin. Baketik zentroan dagoen antzerki taldea etorriko da Bergarara. "Antzerki bat egingo dute; bertan, indarkeria jasaten duen ume baten istorioa kontatuko da. Zoritxarreko amaiera izango du antzerkiak". azaldu du Maider Osa Bergarako Kultura teknikariak.
Antzerkiak ordu erdi pasako iraupena izango du, eta 8 eta 12 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta.

**UMEEN PARTE-HARTZEA**
Antzerkiaren ondoren, antzerki taldekoek bertan bildutakoen parte-hartzea bultzatuko dute. Istorioa nahiko tristea denez, "haurrei istorioa zer iruditu zaien galdetuko diegu eta beraiek protagonistaren lekuan egonez gero zer egingo luketen galdetuko diegu", adierazi digute antzerki taldekoek. Modu horretan, amaiera zoriontsua bilatzen ahaleginduko dira. Baketik zentroa 2007ko urrian hasi zen antzerki foroaren bitartez indarkeria lantzen. Astelehenetik eguenera Arantzazun duten zentroan eskaintzen dute antzerki foroa. Orain arte, Arantzazutik ia bost mila ume pasa direla esan dute; eta, Baketik antzerki taldeko arduradunek gaineratu dute ume horien jarrera eta erantzuna oso ona izaten dela.

> ERAKUSKETA

### Mendekoste jaietako kartel erakusketa kultura etxean

Gaurtik hasita eta datorren maiatzaren 24a arte, Mendekoste jaietarako aurkeztu ziren kartel guztien erakusketa egongo da kultura etxean. Irabazleari, baina, gaur emango zaio saria, 19:00etan. Guztira 40 kartel aurkeztu ziren, eta guztien artean, Mikel Calvoren kartela aukeratu zuten epaimahaikoek. 600 euroko saria jasoko du Calvok.
Erakusketa ikustera joan nahi duen edonork aukera ezin hobea dauka, eta kultura etxera hurbildu baino ez du, ondorengo ordutegian: astelehenetik eguakitzera 18:00tik 21:00etara eta zapatuetan 12:00etatik 14:00etara.

> ERROMERIAK

### Moises Azpiazu dantza taldea eta Unsain anaiak, gaur Muniben

Abarka dantza elkarteak eta Udalak batera antolatu dituzte Munibe plazan maiatzeko egubakoitzetan erromeriak. Erromeria saio horien barruan, gaur 20:30ean Moises Azpiazu dantza taldearen saioa egongo da, eta ondoren Unsain anaiekin erromeria.
Moises Azpiazu dantza taldea herriko dantza askeko umeen taldea da; guztira, 140 neska-mutiko inguru dira taldean, baina gaur, 90 ume inguru egongo dira Munibe plazan dantza askeko eta taldekako emanaldia eskaintzeko.
Moises Azpiazu taldekoen emanaldiaren ondoren, Unsain anaiekin erromeria egongo da, Munibeko plazan bertan.

> ERAKUSKETA

### Joxerra Elortzaren pintura lanak ikusgai Aroztegi aretoan

Joxerra Elortza (Elgoibar, 1957) margolariaren lanak egongo dira ikusgai domekara bitartean Aroztegi aretoan. Guztira, 15 margo jarri ditu elgoibartarrak Bergarako aretoan. Elortzaren margoak oso estilo berezia dute. Kolore asko erabiltzen ditu, kolore biziak batez ere. 1992an ere egin zuen erakusketa bat Bergaran.
Betidanik margotu izan du Elortzak; txikitako zaletasuna du margotzea. Aroztegi aretoa gaur, egubakoitza, 18:00etatik 20:30era egongo da zabalik; bihar, berriz, 12:00etatik 14:00ak arte eta 18:00etatik 20:30 arte; eta domekan, 12:00etatik 14:00ak arte.




**OGIZUN**
**okindegia**

**DENDA BERRIA**
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37




Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13



# ZAHARRAK BERRI SAIOA

Aste honetan:

zaharRak BERRI



**NOIZ:** maiatzak 21 eta 22

**NOR:** Larraitz Ugarte
Biart abokatu bulegoa

**GAIA:** Lapurretak.

Zure intereseko **elkarrizketak**, **erreportajeak** eta **tertuliak** batzen dituen programa berria daukazu **GOITBn**

EGUAZTENETAN **20:15**ean
EGUENETAN **13:15**ean

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara,
**SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!**
**Deitu** programan zehar **943 00 08 34** telefonora

Goitb Goiena Telebista

*Ikustekoa!*

Babeslea: kutxa URREZKO ZERBITZUA



Argazkian, finaletako protagonistak antolatzaileekin, asteleheneko sari banaketa ekitaldian. Giro polita izan zen Udal Pilotalekuan. TXOMIN MADINA

**PILOTA** > BERGARA HIRIA

# Ollo-Lintzoain eta Elezkano-Landaburu, txapeldun berriak

Nagusien mailan, Ollok eta Lintzoainek 22-18 irabazi zieten Mendizabali eta Larrinagari

Zale mordoa Udal Pilotalekuan, tartean Mendizabal antzuolarraren jarraitzaile asko

**T. MADINA/E. MENDIBIL** > BERGARA

Ikusmin handia piztu zuten Bergara Hiriko finalek astelehenean. Antzuolatik etorritako zaleek ezin izan zuten baina Mendizabalen garaipena ospatu: nagusien txapela Ollok eta Lintzoainek jantzi zuten, Mendizabali eta Larrinagari 22-18 irabazita. Gorriek egin zuten lehen tantoa, baina Mendizabalek eta Larrinagak aurrea hartu zien, markagailuan 1 eta 7koa jarri arte. Hortik aurrera, baina, gorriek erreakzionatu egin zuten, eta 14-9 aurretik jartzea lortu zuten. Mendizabal eta Larrinagak ez zuten etsi, eta hala, tantoak eginaz, 16na eta 17na berdindu zuten. Azkenean, baina, Ollo eta Lintzoainek bikote sendoa osatzen zutela erakutsi zuten, eta ez ziren geratu garaipena eskuratu arte. Esan bezala, 22-18koa izan zen azken emaitza. Mendizabali dagokionez, domekan izango du txapela eskuratzeko hurrengo aukera, Getxon finala jokatuko baitu.

**LINZOAIN ETA ELEZKANO, ONENAK**

Bestetik, 22 urtez azpikoen finalean, Elezkano eta Landaburuk 22 eta 11 hartu zituzten mendean Jaunarena eta Bergera astelehenean. Finalen ostean sari banaketa iritsi zen; irabazleendako ohiko txapelak eta finalistendako trofeoez gain, txapelketako onenak bereiztu nahi izan zituzten antolatzaileek: nagusien mailan Lintzoain aukeratu zuten txapelketako pilotari onena, eta 22 urtez azpikoan artean, berriz, Elezkanok eskuratu zuen saria.

Aurtengoa Bergara Hiria txapelketaren 13. ekitaldia izan da. Apirilaren 1etik 16 bikote izan dira lehian; antolatzaileak pozik agertu dira pilotarien mailarekin zein zaleen erantzunarekin.

**MENDIA** > BAIGORRIKO MENDI LASTERKETA

## Xabier Lijo bigarren izan da Baigorriko mendi lasterketan

**E.M.** > BERGARA

Xabier Lijo bergararra bigarren sailkatu zen aste bukaeran Baigorrin, Lapurdin jokatutako mendiko lasterketan. Hiru kategoria bereiztu zituzten antolatzaileek eta Lijok *Trail Villages* deiturikoan hartu zuen parte, Jose Luis Albizuri azkoitiarrarekin batera. Aipatutako kategorian 116 bikote izan ziren lehian eta, esan bezala, Albizuri eta Lijo bigarren geratu ziren. Bi egunetan, ibilbideko 90 kilometro egin behar izan zituzten partaideek. Egubakoitzeko etapan, 45 kilometrokoa, hirugarrenak izan ziren Lijo eta Albizuri eta zapatukoan bigarren geratu ziren. Guztira, 12 ordu eta 28 minutu behar izan zituzten Albizurik eta Lijok proba amaitzeko. Jegard eta Rivoire izan ziren irabazleak, 11 ordu eta 44 minutuko markarekin.



Xabier Lijo, artxiboko irudian. Datorren aste bukaeran Aizkorriko maratoia egingo du.

> PILOTA

### Bergara-Berastegi herri arteko txapelketan gaur

Herri arteko txapelketaren barruan, Bergarako pilotariek Berastegikoen aurka jokatuko dute gaur, egubakoitza, 19:00etan. Aurreko astean Bergarak 1-2 irabazi zuen Berastegin. Kadete mailan 22-5 galdu zuten eta gazte eta senior mailetan gailendu ziren, 16-22 eta 8-22.

> FUTBOLA

### Alebin eta infantil mailetako gaztetxoei deia domekarako

Bergara KEk dei egiten die futbolean jokatzeko interesa duten alebin eta infantil mailako gaztetxoei. Domekan, hilaren 18an, entrenamendu saioak izango dira Ipintzan: 09:00etan alebin mailakoak entrenatuko dira eta 10:30ean infantilak. Kirol jantzia eraman behar dute gaztetxoek.

> KARATEA

### Shotokan taldeko beste sei lagunek, gerriko beltza

Shotokan taldeko sei lagunek gerriko beltza lortu berri dute Santanderren: Unai Zabarte, Maddi Larrea, Jon Urkia, Mikel Aginagalde, Iker Moreno eta Haizea Iñarra dira. Urkia eta Iñarra gerriko beltza lortzen duten gipuzkoar gazteenak izan dira aurten, 13 urterekin.

> FUTBOLA

### Nesken txapelketa antolatzako bilera astelehenean

Astelehenean, hilaren 19an, bilera izango da Ipintzan, nesken futbol txapelketa aurrera ateratzeko. Txapelketan parte hartzeko interesa duten taldeei bilerara joateko dei egiten zaie. Taldeko ordezkari bana joatea nahikoa da. Bilera 19:00etan izango da.

> MENDIKO BIZIKLETA

### Mendiko bizikleta zeharkaldiak Mundumiran

Ekaineko lehen aste bukaeran ospatuko den Mundumira jaialdiaren barruan, mendi bizikleta iragarri dute Lokatza Ziklismo Eskolak, Mundumirak eta Kirol Zerbitzuak, ekainaren 7rako. 44, 38 eta 22 kilometroko ibilaldiak gertatu dituzte. Izenematea Agorrosin kirolgunean egin daiteke.

mingainari tiraka

Kristina Soriano > Goiz Argiko zuzendaria

# "Pertsonekin lan egitea oso polita da"

NEREA MENOR > BERGARA

**Duela 13 urte ireki zuten Goiz Argi etxez etxeko laguntza zerbitzua Simon Arrietan. Lehenengo egunetik dabil bertan lanean Kristina Soriano, eta elkarteko arduradun nagusia da orain. Bulego lanak egiten ditu: Udalarekin hartu-emanetan egoten da eta langile berriak kontratatzen ditu.**



**Ze zerbitzu eskaintzen ditu Goiz Argik?**

Etxerik etxeko laguntza eskaintzen dugu: arreta pertsonala, alde batetik, eta etxekoa, bestetik. Pertsona nagusiak zaintzen ditugu normalean: ohetik jaikitzen ditugu, botikak ematen dizkiegu, janaria prestatzen diegu, erosketak egiten ditugu… Astelehenetik egubakoitzera egiten dugu lan eta, egoera berezietan, zapatu goizetan. Laguntza puntuala eskaintzen dugu; hiru ordu ematen ditugu, gehienez, etxe bakoitzean.

**Zuen zerbitzuak jaso nahi dituenak nora jo behar du?**

Jendea udaletxera joaten da zerbitzu horren eske, laguntzak ematen dituzte. Gero, Udala gurekin harremanetan jartzen da, eta laguntzaileak bidaltzen ditugu. Nahi duenak guregana ere jo dezake zuzenean, zerbitzu pribatua ere eskaintzen baitugu.

**Zein herritan egiten duzue lan?**

Bergaran, Arrasaten eta Antzuolan, udalekin elkarlanean ibiltzen gara. Zerbitzu pribatua Arrasaten eta Bergaran eskaintzen dugu. Gure egoitza Bergaran dago, baina bezero gehienak Arrasatekoak dira, herri handiagoa delako, agian.

**Ze prestakuntza dute laguntzaileek?**

50 langile daude. Guztiek laguntzaile titulua lortzea da gure helburua. Kurtso asko egoten dira erakunde ezberdinetan, eta horiek egiteko erraztasunak ematen dizkiegu. Laguntzaile titulurik ez dutenek etxeko lanak bakarrik egiten dituzte.

**Nola deskribatuko zenuke zuen lana?**

Polita da pertsonekin lan egitea. Etxerik etxeko zerbitzua asko aldatu da. Lehen, etxea garbitzeko bakarrik kontratatzen zen; orain, berriz, zerbitzu ezberdin asko eskaintzen dira.

hau be badogu

## Inguruak zeharkatuz, 92 kilometroko txangoa antolatu zuten herriko zikloturistek

**Argazkiko zikloturista talde horrek 92 kilometroko ibilaldia egin zuen joan den apirilaren 6an. 60 lagunek osatzen dute taldea, baina horietatik 20 bakarrik animatu ziren txangora. Egun hotza izan zela kontatu digute; hala ere, goizeko bederatzietan plazan elkartu ziren guztiak, eguna bizikleta gainean pasatzeko asmoarekin. Otxandiora heldu zirenean, hamaiketakoa hartzeko etenalditxoa egin zuten. Kontu-kontari ibili ziren bertan kirolariak eta, ogitartekoa amaitutakoan, Durangorako bidea hartu zuten. Kanpanzartik Bergarara heldu eta nor bere etxera joan zen, atseden hartzera.**



GOIENKARIA

bere ustez



Andres Osa

## Burua tente

Ezker Abertzalea erakundeetan parte hartzeko bultzaka ibili zirenek orain sartzen utzi ez, eta sartzea lortu dutenak bertatik kanpora bota eta isilaraztea da etengabeko ahalegina PNV-PSOE, PP eta Arrasateko kasuan EArena ere bai. EB-Zutik eta Aralarrek badirudi mantendu egingo dutela emandako hitza. Isaias Carrascoren heriotza alderdikeriaz erabili dute eta, erre ke erre burugabekeriak egiten dihardute. Herritar multzo handi bat iraindu eta haserrea, gorrotoa, ikusiezina sortu dute, onik batere ez, horixe da egiten ari direna.

**"Herritar multzo handi bat iraindu eta haserrea, gorrotoa, ikusiezina sortu dute"**

Batasunarekin akzio diktatorial berdina izan zuten. Ezker Abertzaleak berriro erantzun ausarta eman die. EAk anti-natura formula erabili nahi du bere gabezia estaltzeko.

Gestio efikaza eta gardena, soldatak murriztu, jantxakur gutxiago, jokabide zintzoa, ustelkeriei egurra, hori da egungo udal agintarien delitua. Aipatu alderdiek irentsi ezinean dabiltza. Burumakur ibili beharko dute herriko kaleetan. Ino eta lagunak, berriz, burua tente dutela!

Eta, autobusez Oñatitik San Prudentziora joateko zergatik Arrasatera joan behar da eta Bergararako autobusa hartu? Absurdo hau zuzentzea nori dagokio?

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA
Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

GAZTELU, S. A.
BURDINDEGIA
HORNIDURA INDUSTRIALAK
Mintegi kalea 1
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 34 50 • 943 76 32 48
Faxa: 943 76 32 52
E-mail: gaztelu.s.a@euskalnet.net
Web: www.ferreteriagaztelu.com

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903




# OTALA ZELAI EGUNA 2008

maiatzaren 18a, domeka

- **10:00**
Otala Zelaian haurrentzako LASTERKETAK. *Izen emateak 9:30etatik aurrera.*
- **10:00**
Aretxabaletako txistulariekin DIANA.
- **11:00**
XXX. KROSS HERRIKOIA, Otala Zelaitik aterata Urkulu urtegiari itzulia. *Izena emateak bertan.*
- **11:15**
PATIN TOPAKETA: Urkulun, haur, gazte eta heldu-entzako topaketa patinekin.
- **12:00**
Otala Zelaiko krosaren SARI BANAKETA.
- **12:30**
ANIMALIEN JOKUAK.
- **12:30**
KANPAIAK OTALA ZELAIAN, kanpai jole zahar eta berrien ekitaldia.
- **13:00**
PAELLA LEHIAKETA: *Antolatzaileek arroza, olioa, tipula, gatza, kolorantea eta berakatza jarriko dituzte, gainontzeko osagaiak partehartzaileek jarri beharko dituzte. Epaimahaiaren lana errazteko, partehartzaileak bi taldetan banatuko dira.*

**Izen ematea: 5€**

| | A TALDEA | B TALDEA |
|---|---|---|
| 1. SARIA | 100 € | 100 € |
| 2. SARIA | 70 € | 70 € |
| 3. SARIA | 50 € | 50 € |

- **13:00**
Aretxabaletako Leizarra musika eskolako TRIKITILARIAK.
- **13:30**
SAGARDO FESTA.
- **14:30**
BAZKARI HERRIKOIA. Antolatzaileek mahaiak eta aulkiak ipiniko dituzte eta bazkaria norberak eraman beharko du.
- **15:30**
Trisketa taldearekin BASERRI JOKOA.
- **16:30**
DANTZALDIA Txinparta taldearekin.
- **18:00**
Loramendi dantza taldearen eskutik DANTZA SAIOA.
- **19:00**
DANTZALDIA Txinparta taldearekin.

**Oharra:**

Eguraldi txarra eginez gero, jaia Iturrigorri frontoian ospatuko da.







**OSPAKIZUNA** > OTALA ZELAI EGUNA

# Patin topaketa eta kanpai-joleen erakustaldia, Otala Zelai egunean

## Horiekin batera, urteroko ekitaldiak izango dira: Urkuluko krosa eta lasterketak, animaliekin jolasak, paella lehiaketa eta dantza erakustaldiak


Gazteak zezentxoarekin jolasean iazko Otala Zelai egunean. MIRARI ALTUBE

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Etzi, domeka, ospatuko da Otala Zelaiko erromeria, Udalak antolatutako ekitaldiei esker. Eguraldia lagun izanez gero, Aozaratzako zelaian izango da jaia, baina euriarekin, Iturrigorri frontoian egingo dute. Batean edo bestean, erromeria giroa sortuko dute herritarrek, eta aurten, lehenengoz, berrikuntza bi izango dira: patin topaketa Urkulun (11:15) –ume, gazte eta helduak elkartu gura dituzte komunak dauden inguruan–, eta kanpai-jotze erakustaldia Otala Zelain (12:30).

**AUTOBIDEA IKUSTERA**
Ibilalditxoa egiteko ohitura du udalbatzak auzo alkateekin batera Otala Zelaiko erromeria egunean. Aurten, autobideko lanak zelan doazen ikustera joango dira –orain dela hiru urte, lanak hastear zeudela egindakoa: udaletxetik atera eta, Izurieta auzo ingurutik, Apotzagaetxebarriraino. Bazkaltzeko, urtero legez, Matikua jatetxera joango dira.

### Egitaraua:

10:00 Gaztetxoen lasterketak.
10:00 Diana txistulariekin.
11:00 Herri krosa, Urkuluri bira. Izenematea, bertan.
11:15 Patin topaketa; Urkuluko komunen inguruan elkartuko dira harrobirantz joateko.
12:00 Lasterketen eta krosaren sari banaketak.
12:30 Animalien jokoak.
12:30 Kanpai-jotze erakustaldia.
13:00 Paella lehiaketa. Antolatzaileek jarriko dituzte arroza, olioa, tipula, gatza, koloratzailea eta berakatza; gainerakoak norberak eroan behar ditu. Izenematea, 5 euro.
13:00 Leizarra musika eskolako trikitilariak.
13:30 Sagardo festa.
14:30 Herri bazkaria; norberak eroan behar du.
15:30 Baserri jokoak Trisketa taldearekin.
16:30 Dantzaldia Txinparta taldearekin.
18:00 Dantza saioa Loramendi dantza taldearen eskutik.
19:00 Dantzaldia Txinpartarekin.

**OSPAKIZUNA** > EUSKARAREN EGUNA

# Biharko jai egunak borobildu eta bukatuko du Euskararen Astea

## Gaur (17:30), Antton Irusta ipuin kontalariak eta Enrique Morente marrazkilariak ipuin tailerra eskainiko diete umeei, udaletxe zaharrean

**M.A.** > ARETXABALETA
Loramendi Euskara Elkarteak ekitaldiz gainezka antolatu duen Euskararen Astea aurrera doa, eta bihar egingo duten Euskararen Egunak borobilduko du.

Leizarra musika eskolako trikitilariek girotuko dute herria goiz partean, eta ondoren, inguruko baserrietako gazta dastatzea eskainiko dute (13:00) Mitarte kalean. Bien bitartean, bertso-txikiteoa egingo dute Iban Urdangarin eta Iker Zubeldia bertsolariak lagun dituztela. Bazkaltzeko, babarrunak izango dira Iturrigorri frontoian (14:30), eta bazkalostean, jolasak, bertsolariak, trikitilariak eta zelan ez, urtero datozen Bilboko gaitariak.

Arratsaldean (17:30), kale antzerkia eskainiko du Zirika Zirkusek Kurtzebarri eskolako jolastokian. Bukatutakoan (19:00), Larrin dantza egingo dute Durana kalean, eta handik, Arlutz osteko kantxara joango dira, Beinke-Loramendi datza egiteko (19:30). Bukatzeko, Tapia eta Leturia eta Jokinekin erromeria izango da.


Hizkuntzen ekologia izan zuen berbagai Amaia Anterok, eguaztenean. M.A.



**MERKATARITZA** > HITZARMENA

# Merkataritza sustatzeko hitzarmenarekin, zapatuan herrian erostera bultzatu gura dute

Umeendako puzgarriak jartzen jarraituko dute, eta zapatuetan 25 eurotik gorako gastua egiten dutenek bonuak jasoko dituzte



Udalaren, Aretxarteren eta Erostegiren ordezkariak hitzarmena sinatzen. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Atzo, eguena, sinatu zuten Udalak, Aretxarte merkatarien elkarteak eta Erostegi enpresak merkataritza sustatzeko hitzarmena. 2008an sartzearekin batera hasi ziren herriko giroa eta, era berean, merkataritza sustatzeko ekimenak egiten: umeendako puzgarriak jartzen hileko zapatu baten. Orain, hitzarmenarekin, bultzada handiagoa eman gura diote egitasmoari.

**32 DENDA ARETXARTE ELKARTEAN**

Orain arte legez jarraituko dute hileko zapatu goiz baten gaztelu puzgarriak jartzen. Zerbitzu horregatik 4.000 euro ordaindu ko dizkio Udalak Erostegi enpresari, eta herriko txoko ezberdinetan jarriko dituzte: ekainaren 7an, esaterako, Loramendi kalean, Dorleta tabernaren atzeko partean.

Horrez gain, herriko dendetan erosketak egitera bultzatzeko, beste ekimen bat jarriko dute abian: puzgarriak dauden zapatuetan, Aretxarte elkarteko dendetan 25 eurotik gorako erosketak eginez gero, txartelak banatuko dituzte; eta txartel horiekin, Kioskoan gozokiak eskuratu ahal izango dituzte, Brasilena kafetegian kafe bat hartu eta Orly tabernan freskagarri bat. Aretxarte elkarte barruan herriko 32 denda daude, euren artean ile-apaindegi bi, kafetegi bat eta taberna bat.

argazki zaharra

# Denok UDA animatzera



Peña Farias lagun taldea UDA futbol taldearen jarraitzaile amorratua zen. Argazkian, Julian Jausoro, Jose Regidor, Nerea eta Amaia, partidura bidean.

Aste bukaeran, etxean jokatuko duen denboraldiko azken partidua dauka preferenteko taldeak, eta animatzera joateko dei egin egiten du Peña Fariaseko kide ohi batek.

**Testua:** GOIENKARIA.
**Urtea:** 1970.

**HEZKUNTZA** > EKINTZAILETASUNA

# Museoa Basabeazpin, birziklatutako gauzekin

Film laburrak egin dituzte 5 urtekoek, Iban Gonzalez kameralariarekin

**M.A.** > ARETXABALETA

Ekintzailetasuna hartu dute gai Arizmendi ikastolako umeek azken asteotan lantxoak egiteko. Eta Basabeazpiko ikasleek museoa gertatu dute birziklatutako materiala erabilita. Etxean jasotako ontzi, kaxa, tapa eta beste hainbat material eroan zituzten ikastolara, eta imajinazioa lanean jarrita, hainbat artelan bihurtu dituzte bertan: freskagarrien latekin, guardasola; hodiekin, Satur eta Nina robotak…

Arteak ez daukala mugarik jakinik, ikus-entzunezko saioa ere gertatu dute. Argazkiak atera zituzten lehenengo ikasleek, eta zaratak, doinuak, esaldiak, irrintziak eta garrasiak grabatu gero, lana osatzeko. Harrituta geratu dira museoko bisitariak lortutako emaitzarekin, eta, artearekin gertatu ohi denez, batzuei ez diete grazia handirik egin lanek.

**FILM LABUR BI**

Ikasle nagusienek –5 urtekoak–, ostera, film laburrak egin dituzte. Iban Gonzalez kameralari aretxabaletarra izan dute lagun, eta lau minutu inguruko bi film grabatu dituzte: *Istripua* eta *Bakeroen bizitza*. Ederto moldatu dira kamera aurrean aktore gazteak, eta joan zen egubakoitzean egin zuten estreinaldian txalo zaparrada handia jaso zuten. Egindako lana eskertzeko, Argitxo sariak banatu zizkieten irakasleek.


Satur eta Nina robotei begira, Basabeazpiko museoko bisitariak. MIRARI ALTUBE

> IZENEMATEA

## Matrikulatze epea zabalik dago Leizarra musika eskolan

Astelehenean, hilak 19, hasi eta ikasturtea bukatu bitartean, ekainak 20, egongo da zabalik Leizarra musika eskolako matrikulatze epea. 2008-2009 ikasturtean instrumenturen bat jotzen edo dantzan ikasi gura dutenek Otalora kalean dagoen musika eskolatik pasatu behar dute (17:00-19:00).

> IZENEMATEA

## Ekainaren 1eko mendi martxarako izenemate epea zabalik dago

Murrukixo MEk V. Mendi Martxa antolatu du. Ekainaren 1ean, domeka, izango da, eta 26 kilometro egin beharko dituzte Aretxabaleta inguruan.

Izena emateko, martitzenetan (19:00-20:00) Murrukixoren egoitzatik pasatu edo deitu (943 79 93 74) behar da; egunean bertan ere eman daiteke.

Iber
Loteria
Paper denda
Liburuak
Otalora 2. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

PIENSOS UNZUE S.A.
FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

**ERRETIRATUAK** > PAKE LEKU ELKARTEA

# Erretiratuen astea hilaren 26an hasiko da

Txokolate-jana, herentziaren gaineko hitzaldia, bi irteera, bingo jokoa eta bazkaria, besteak beste, egingo dituzte erretiratuek ekainaren 1era arte

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Pake Leku elkarteak gertu du erretiratuen asterako egitaraua. Hain zuzen, ekitaldiak maiatzaren 26tik ekainaren 1era arte egingo dituzte, eta, besteak beste, irteerak, hitzaldia eta bazkaria antolatu dituzte.

**TESTAMENTUEN GAINEAN**
Erretiratuen astea maiatzaren 26an, 17:00etan hasiko dute elkartean bertan egingo duten txokolate janarekin. Ondoren, dantzaldia egingo dute. Ekitaldi horretan parte hartzeko txartelak eskura daitezke hilaren 20ra arte.

Nagusilan eta Bizikasi elkarteen laguntzarekin antolatuta, testamentu eta herentzien gaineko hitzaldia egingo du Javier Perez abokatuak. Hitzaldia maiatzaren 27an izango da, 17:00etan hasita. Gainera, maiatzaren 29an, asteroko bingo jokoa egingo dute, baina opari bereziekin.

**BI IRTEERA ANTOLATU DITUZTE**
Erretiratuen astearen barruan, bi irteera egingo dituzte, San Martinera bata eta Arrikrutzera bestea. Maiatzaren 28an, 10:30ean irtengo dira elkartetik San Martin aldera, bertan hamarretakoa egiteko. Antolatzaileek oinetako erosoekin joateko aholkua eman dute. Era berean, maiatzaren 30ean egingo dute Arrikrutzera irteera, 14:30ean irtenda. Bi irteeretarako txartelak Pake Lekun jaso behar dituzte, maiatzaren 20a baino lehen.

Ospakizunekin bukatzeko, Erretiratuen Eguna ospatuko dute ekainaren 1ean, eta German Gonzalez (95 ute) eta Basilisa Madina (94 urte) omenduko dituzte. 12:30ean, meza nagusia entzungo dute parrokian, eta bazkaria egingo dute kiroldegiko kantxan. Bazkalostean, besteak beste, Udal Musika Bandaren, Aloña Abesbatzaren eta Oñatz dantza taldearen saioak izango dituzte. Txartelak 10 eurotan eros daitezke, maiatzaren 20ra arte.



KONTZEJUPETIK

**Pake Lekuko zuzendaritza batzordea, berrituta**

Pake Leku zuzendaritza batzorde erdia berritu zuten apirilaren 9an egindako urteko batzarrean. Horren harira, bi presidente izango dituzte aurrerantzean: hain zuzen, Jesus Mari Igartua eta Maria Angeles Moiua. Gainerako kideak hauek dira: Rafael Ugarte (idazkaria), Antonio Leturiaga (diruzaina), Carlos Marton, Juan Mari Igartua, German Aramendi, Ines Murguzur, Amador Saiz, Jose Mari Aramendi, Mila Martinez de Zuazo, Ana Mari Liziaga, Jose Antonio Altube eta Javier Agirrebaltzategi.

**OSPAKIZUNA** > TXANTXIKU IKASTOLA

# Gaur eta bihar ospatuko dute Ikastolaren eguna

Gurasoendako antzerkia, jolasparkea, tailerrak eta Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizuna antolatu ditu ikastolak gaurko eta biharko



Irudian, iazko antzerki emanaldiko momentu bat. TXANTXIKU IKASTOLA

**M.B.** > OÑATI
Atzo arratsaldean, Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako antzerki emanaldia eta Xabier Amurizarekin solasaldia egin zituzten arren, Txantxiku Ikastolaren eguneko ospakizun potoloenak gaur eta bihar egingo dituzte.

Horren harira, gaur arratsaldean, 14:30etik 18:00etara, jolasparkea jarriko dute ikastolako jolaslekuan. Eskola orduak bukatzen direnean, haur guztiendako zabalduko dituzte ateak. Bestalde, gurasoei zuzenduta, jaialdia egingo dute Santa Ana antzokian, 18:00etan hasita, Lehen Hezkuntzako lehenengo, bigarren eta bosgarren mailetako ikasleek eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetakoek.

**PIRRITX ETA PORROTX**
Bihar, 11:00etan zabalduko dituzte ikastolako ateak. Jolasparkeak egongo dira jolaslekuan eta plazako pilotalekuan. Era berean, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako geletan, tailerrak eta eskulanak egingo dituzte. Arratsaldean, 18:00etan, Pirritx eta Porrotx pailazoek *Eskerrik asko!* ikuskizuna eskainiko dute kiroldegiko kantxan. Saio horretan, Haur Hezkuntzako 5 urteko neska-mutikoek parte hartuko dute.

Bestalde, ikastolaren 40. urteurreneko argazkien erakusketa eta bideo emanaldiak egingo dituzte areto nagusian.

> JAIAK

### Kasablankan, San Isidro, eta Araotzen, Trinitate jaiak ospatuko dituzte gaurtik domekara arte

*Isidrotxo* basurdearen jaitsierarekin hasiko dituzte Kasablankako jaiak 18:00etan. Gauean, 22:00etan, rock-metal jaialdia egingo dute. Bihar, mus txapelketa, haur jolasak, eta erromeria egongo dituzte, besteak beste. Domekan, 12:00etan, meza ospatuko dute .

Araozko jaiak, bihar eta etzi ospatuko dituzte. Bihar, mus txapelketa, umeendako jolasak eta bertsolarien laguntzarekin, auzo afaria egingo dute. Domekan, 10:30ean, meza ospatuko dute, eta 12:00etan herri kirolen jaialdia egingo dute Araotzeko plazan.

> EMANALDIA

### Bertso saioa egingo dute gaur gauean, Bertso Eskolaren 25. urteurreneko ekitaldien barruan

Oñatiko Bertso Eskolak bete duen 25. urteurreneko ekitaldien barruan, bertso saio xelebrea egingo dute gaur gauean, 22:30ean. Amets Arzallus egongo da gai jartzaile lanetan, eta bere agindupetara abestuko dute Joxe Munduate, *Mañukorta*, Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano, Iker Zubeldia, Julen Zelaieta eta Xabier Zeberio bertsolariek. Herritarren erantzuna ona izango dela uste dute bertso eskolakoek. Saioa Rodrigo Mercado de Zuazola Institutuko areto nagusian egingo dute.

> DEIALDIA

### Udako Unibertsitatean ikastaroa egin gura dutenendako beka eskatzeko epea zabalik dago

Udako Eukal Unibertsitateak edo Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian egingo dituen ikastaroetarako laguntza jaso gura dutenek eskaerak egin ditzakete dagoeneko. Bi baldintza bete behar dituzte beka eskuratzeko: alde batetik, Oñatin erroldatua egotea, eta, beste alde batetik, ikaslea edo langabea izatea. Era berean, norberak ikastaroko matrikula aldez aurretik ordaindu beharko du, eta agiria aurkeztu beharko du. Udalak emango duen laguntza ordaindutakoaren %50 izango da.

**KIROLA** > ERAKUNDEAK

# Hitzarmena egin dute kirol elkarteak eta Udalak

## Eskoriatza Kirol Elkarteak jasotzen dituen dirulaguntzak arautzeko modua da hitzarmena

## Intxaurtxuetako lokalaren eta Udalaren kirol azpiegituren erabilera ere arautu dituzte

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Eskoriatzako Udalak eta herriko kirol elkarteak hitzarmena sinatu berri dute, Eskoriatzako Kirol Elkarteak Udaletik jasotzen dituen dirulaguntzak arautzeko eta bi erakundeen arteko harremanak sendotu eta elkarri informazio gehiago emateko.

Eskoriatzako Kirol Elkartea 1984an eratu zuten, eta honako alorrak ditu barnean: saskibaloia, areto futbola, mendia, pilota eta txirrindularitza. 1986a ezkero, EAEko elkarteen barruan eratuta dago. Kirol elkartearen helburua da herrian kirola bultzatzea. Hala, batez ere gazteekin lan egiten dute, kirola egiten ohitu eta nagusiagotan ere praktikatzen jarrai dezaten.

Udaleko Kirol batzordeak uste du urte hauetan guztietan elkarte horrek egindako lana goraipatzekoa dela, eta merezi duela bi erakundeen arteko harremanak formalizatzea eta arautzea. Horretarako egin berri dute hitzarmena.

**URTERO DIRULAGUNTZAK**
Udalak erabaki du 2008rako 15.500 euro ematea. Horrez gain, kirol elkarteak aukera izango du bestelako ezohiko jarduerak antolatzeko dituztenean, Udalari bestelako dirulaguntzak eskatzeko. Dirulaguntza horiek bi zatitan ordainduko dira: %60 hitzarmena sinatu eta hurrengo hilabetean, eta gainontzekoa, denboraldia bukatu eta kirol elkarteak gastuei dagokien dokumentazioa aurkeztu ostean.

Bestalde, Udalak kirol elkarteari Intxaurtxueta 9ko etxabean dagoen lokala uzten dio trukean, ezer eskatu barik. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera kirol elkarteak lau urtean erabili ahal izango du lokala. Gainera, lokalaren gastu orokorrak Udalaren esku gelditiko dira.

**EUSKARAREN ALDEKO JARRERA**
Modu berean, kirol elkarteak Udalak dauzkan kirol azpiegiturak erabili ahal izango ditu, baldin eta erabileraren gaineko egutegi bat zehazten badute.

Bestalde, Udalak kirol elkarteari eskatu dio euskararen aldeko jarrera indartzeko. Hala, argitaratuko dituzten agiri guztietan euskarak presentzia nabarmena izango du, eta kirol jardueretan euskara erabiltzen ahaleginduko dira.

Aipatutako konpromiso guztiak berrituz joango dira, baita hitzartutako dirulaguntzak ere. Bitartean, adostutako guztia gainbegiratzeko ardura kirol elkarteko presidente Manolo Muñozek eta Udaleko Kirol batzordeko Ander Agirianok izango dute. Harremanak sendotzeagatik pozik daude bi erakundeak.



Argazkian elkarteko nesken saskibaloiko taldea Añorgan. IMANOL SORIANO

**OSPAKIZUNA** > AITZORROTZ KULTURA ELKARTEA

# Jaiaren balorazio oso ona egin dute

## Euriak eragin zien arren, iragarritako ekitaldi guztiak aurrera eraman zituzten antolatzaileek

## Mahaiaren bueltan 85 pertsona batu ziren kontzejupen bazkaltzeko, adin guztietakoak

**I.B.** > ESKORIATZA
Aitzorrotz kultura elkarteak urteko ospakizun nagusia egin zuen joan den zapatuan. Ekitaldiz josita egon zen eguna, eta herritarren esku-hartzea handia izan zen. Arazo bakarra eguraldia izan zen. Horren erruz, ekitaldi batzuk lekuz aldatu behar izan zituzten.

Hain zuzen ere, eguna hasteko txistulariek ezin izan zuten kalejirarik egin. Horren ordez, kontzejupen emanaldia egin zuten. Horren ostean, hainbat herritarrek *Esko Hitza* webgunea aurkeztu zuten Udaleko osoko bilkuren aretoan.

Eguerdi partean, Aretxabaletako dultzaineroak ausartu ziren kalejira egiten eta, jarraian, bertsolariekin batera tabernarik taberna ibili ziren kantuan.

**85 LAGUN BAZKALTZEN**
Bazkaria ere kontzejupera eraman behar izan zuten. Bertan, 85 herritar batu ziren, adin guztietakoak. Horietatik 20 umeak ziren, eta guztiak gustura egon ziren mahaiaren bueltan; are gehiago, Andoni Otamendi eta Egoitz Alkorta bertsolarien laguntzarekin.

Ordurako, eguraldiak hobera egin zuen, eta ausartu ziren arratsaldeko kontzertu akustikoak herriko plazan, Inkernu tabernaren alboan, egiten. Fermin Balentzia bakarlariak eta Lain taldeak hala egin zuten, baina ain_1 taldearen emanaldia taberna barrura eraman behar izan zuten, euriagatik. Gauean, berriz, rocka izan zen Inkernun: Eskoriatzako S-Covers eta Berrizko Sei Urte taldeak. Giroa, paregabea.



Joan den zapatuan 85 lagun batu ziren herri bazkarian. GOIENKARIA

> IKASTAROA

### Zapatuan, munduko dantzen beste saio bat egingo dute frontoian

Bihar, zapatua, munduko dantzen gaineko beste saio bat egingo dute Eskoriatzako pilotalekuko gimnasia gelan. Ohikoa duten moduan, 17:30etik 20:00etara bitartean egingo dute, eta irakaslea Patxi Montero izango da.

Oraingoan, honako dantzak ikasteko eta egiteko aukera izango dute: oinarrizko dantza errazak (ezagunak eta berriak, biak), Errusiakoak eta Greziako dantza errazak, hain zuzen ere. Interesatuek 5 euro ordaindu beharko dituzte egunean bertan.

Bestalde, jakinarazi dute hilaren 31n Bilbon egingo duten munduko dantzen lehenengo festara joan gura dutenek Monterori galdetzeko.

> UDALEKUAK

### Udalekuetan izena emateko azkeneko eguna hilaren 23a da

Udaleko Gazteria Zerbitzuak uztaileko udaleku irekietarako matrikulazio epea zabaldu du. Uztailaren 3tik 23ra bitartean egingo dituzte, eta 1996 eta 2004 bitartean jaiotakoei zuzenduta daude.

Udalekuak goizez eta arratsaldez egingo dituzte, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara bitartean. Interesatuek 42 euro ordaindu beharko dituzte. Hala ere, bi anai-arreba apuntatzen dituztenek 71 euro ordainduko dituzte; eta hiru badira, 84 euro.

Izena emateko azkeneko eguna maiatzaren 23a izango da. Bi aukera daude: martitzen eta eguenetan Gazteria Zerbitzuan eta astelehenetik egubakoitzera Tortolisen.

> EUSKARA

### Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina abian dago

Eskoriatzako Udaleko Euskara Sailak *Nora begira zaude? Egizu euskaraz* kanpaina abiarazi du. Helburua da eskoriatzarrek errenta aitorpena euskaraz egitea. Diptikoak egin dituzte eta etxerik etxe banatu dituzte.

Diptikoekin herritarrei gogoratzen diete errenta aitorpena euskaraz egiteko aukera dutela; eta non egin dezaketen jakinarazi diete.

Horrez gain, euskaldunen gehiengoa duten edo euskara planak dituzten enpresetara, diptikoez gain, orri-puntuak bidali dituzte. Orri-puntuek errenta aitorpenarekin lotutako hiztegi txikiak dakarte. 2.000 diptiko eta 500 orri-puntu banatu dituzte.



Herriguneko leiho eta fatxadak dotoreago jartzea da lehiaketaren helburua. Argazkian, balkoi batzuk. IKER BARANDIARAN

**LEHIAKETA** > UDABERRI-UDA GARAIKO EKIMENA

# Leiho eta balkoi apainduak saritzeko lehiaketa antolatu dute

Ekainaren 2a aurretik eman beharko dute izena udaletxean edo telefono bidez, eta hiru sari banatuko dituzte, lehena, 250 eurokoa

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Udaleko Kultura batzordearen asmoa da Eskoriatzako leihoak eta balkoiak loreekin apaintzeko herritarrak animatzea. Hala, Udalak herria edertu gura du eta, bide batez, udaberri-uda garaian herriko kale eta fatxadetan loreak eta landareak protagonista handiak izatea.

**KALETIK IKUSTEKO MODUKOA**
Helburu hori betetzeko asmoz, Udaleko Kultura batzordeak I. Leiho eta Balkoietako Loreen Lehiaketa antolatu du aurten lehenengo aldiz.

Gura duten herritar guztiek esku hartu ahal izango dute lehiaketa horretan. Izan ere, baldintza bakarra izango da Eskoriatzako herrigunean dauden etxeetako leiho eta balkoiak lorez edo landarez apaintzea. Horrez gain, baina, apaindutako leiho edo balkoiak kaletik begiratuta ikusteko moduan egon beharko du halabeharrez.

**IRIZPIDE ESTETIKOAK**
Leiho eta balkoien gaineko balorazioa egiterakoan irizpide estetikoak bakarrik hartuko dituzte kontuan. Hain zuzen ere, honako hauek: batetik, lore-konposizioaren bolumen eta kolore konbinazioa; eta bestetik, leiho edo balkoiaren kokapenaren arabera egindako egokitzapena.

**HIRU SARI EMANGO DITUZTE**
Lehiaketan esku hartu gura dutenek ekainaren 2a baino lehen eman beharko dute izena udaletxean edo 943 71 46 88 telefono zenbakira deituta. Izena ematerakoan, parte hartzailearen izen-abizenak, helbidea eta harremanetarako telefono zenbakia eman beharko dituzte.

Hiru sari banatuko dituzte: 250 euro lehenengoari; 150 euro bigarrenari; eta 80 euro hirugarrenari.

Epaimahaia Kultura batzordekideek eta lorezaintzan adituek osatuko dute.

**JAIAK** > ESALDI LEHIAKETA

# Jaietarako esaldi apropos bila dabil Kultura batzordea

Esaldi horietan, jaiak, euskara eta gazteak batzea gura dute; eta helburua da jaiak ondo pasatzera gonbidatzea

**I.B.** > ESKORIATZA
Udaleko Euskara batzordeak San Pedro jaietarako esaldi lehiaketa antolatu du *Aireatu gure jaiak* lelopean. Urte askotxo darama Udalak lehiaketa hori antolatzen, eta oso harrera ona izan ohi du beti.

**13 URTETIK GORAKOENDAKO**
Lehiaketara aurkeztutako esaldiek derrigorrez jaiak ondo pasatzera gonbidatu beharko dute; eta horren barruan, San Pedroak, jaiak, euskara eta gazteak elkartzea komeni izango da. Horrez gainera, jaiak neurrian ospatzea deseatu beharko dute egileek.

13 urtetik gorako edozein eskoriatzarrek esku hartu ahal izango du lehiaketan, baina ezingo dira banaka aurkeztu. Hala, ezinbestekoa izango da bost pertsona bitarteko taldeak sortzea.

Esaldiak aurkeztu gura dituzten interesatuek udaletxeko eta kultura etxeko eskapeetan jarriko dituzten postontzietan sartu beharko dituzte. Kartazal baten barruan taldearen izena ipini beharko dute. Barruan, berriz, beste kartazal itxi baten sartu beharko dute datuen txartela. Buzoiak maiatzaren 23an jarriko dituzte, eta aurkezteko azkeneko eguna ekainaren 6a izango da.

**'ESKORIATZA.NET'-EN IRAGARRI**
Antolatzaileek jakinarazi dute ez dituztela onartuko neurriz kanpoko kontsumoa bultzatuko duten esaldiak, ezta jarrera sexistak erakusten dituztenak.

Bestalde, talde bakoitzak goitizen bakarra erabil ahal izango du, eta pertsona batek talde batean bakarrik esku hartu ahal izango du.

Esaldiak baloratuko dituen epaimahaia Udaleko Euskara azpibatzordeko kideek osatuko dute; eta ekainaren 10ean *www.eskoriatza.net* webgunean iragarriko dute irabazlearen izena eta San Pedrotan Herriko Plazan jarriko duten esaldia.

Esaldi onenaren egileek San Pedro jaietan afaria irabaziko dute eta pegatinen esaldien egileek, 50 euro.

> GIZARTE ZERBITZUAK

## Mendekotasuna duten pertsona nagusiendako oporraldi programaren izenematea zabalik dago

Pertsona nagusiei zuzendutako aldi bateko egonaldiak antolatu dituzte uda denboraldiari begira. Egonaldiak mendekotasuna duten adinduei zuzenduta daude, eta horien helburua da adindunak oporretan dauden bitartean senideek edo bestelako zaintzaileek atseden hartu ahal izatea.

Abuztuko aldi bateko egonaldia egin gura duenak maiatzaren 30a izango du eskaera egiteko azkeneko eguna; eta irailekoa egin gura duenak, berriz, ekainaren 13a izango du muga horretarako. Interesatuek Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo dezakete.

Plazak izendatzeko orduan, berriz, honako irizpideak hartzen dituzte kontuan: aldi bateko egonaldien gizarte baremoa eta mendekotasun maila. Horrez gain, lehentasuna emango zaie urtean bestelako egonaldirik egin ez dutenei.

LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI
Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

**UDALA** > EZOHIKO UDALBATZARRA

# PSE-EEk eta EAJk aurkeztutako mozio 'etikoa' ez dute onartu

Pedro M. Iturbek, Patxi Olabarriak, M. Paz Ugaldek, Andoni Azkargortak eta M. Carmen Jauregik aurkeztutako mozio alternatiboak aurrera egin du

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Ezohiko osoko bilkura egin zuten astelehenean bi mozio politiko eztabaidatzeko: EAJk eta PSE-EEk aurkeztutakoa eta Pedro M. Iturbek, Patxi Olabarriak, M. Paz Ugaldek, Andoni Azkargortak eta M. Carmen Jauregik aurkeztutakoa. Luze joan zen batzarra eta zabal eztabaidatu zuten bai zinegotziek eta baita herritarrek ere.

Osoko bilkuren aretoa jendez gainezka zela, eta alkateak mahai gainean Ino Galparsororen argazkia ipinita, lehenengo mozioa irakurri zuen idazkariak.

Mozioak dio: "Herri karguek konpromisoa hartu behar dute gizakiaren duintasuna errespetatzeko; pertsona guztiek merezi duten giza eskubideen defentsa egiteko; aniztasun politikoa, soziala, ideologikoa edo nortasunezkoa defendatzeko; eta politika, demokrazia eta elkarrizketaren aldeko apustua egiteko eta, ondorioz, mehatxuak eta bortxakeriak gaitzesteko". Gaineratzen du azkenaldiko ETAren ekimenek aipatutako printzipioak urratzen dituztela. Bestalde, "Antzuolako Udalak aurreko puntuak onartzen ez dituzten udal ordezkariei exijitzen die beren gobernu karguak uzteko dimisioa aurkeztea".

**EZTABAIDA LUZEA**

Zinegotziek hartu zuten hitza mozioa irakurritakoan eta nork bere botoa arrazoituz, eta eztabaida politikoa luze joan zen.

EAJko Joxi Beltranek hau esan zuen: "Ezinezkoa da herri bateko alkateak edozein erailketa ez gaitzestea". Baina Ino Galparsororen espetxeratzea salatu eta haren askatasuna eskatu zuen. PSOEko zinegotzi Paco Morcillok esan zuen "askatasunaren aldeko udalbatzarra" zela eta euren mozioa babesteko eskatu zuen. Bestalde, behin eta berriz aipatu zuen "kondena" hitza eta hori egin ezean "bakerako bidea zaila" dela gaineratu zuen.

Pedro Iturbe alkatearen esanetan, "mozioek ez dute lagunduko inork nahi ez dituen ekintza bortitzekin amaitzen". Ino Galparsorori irakurritako eskutitza herritarrek txaloka hartu zuten.

Aralar-Zutikeko zinegotziek hau esan zuten: "Dimisioa eskatzeak ez du lortu ezker abertzalearen jarrera aldaketarik, ezta ETAren zilegitasunik eza handitzerik. Agerian utzi du alderdi politiko guztien ezintasuna Isaias Carrascoren erailketaren ondorengo egoera larri eta konplikatua kudeatzeko". Dimisio eskaerarekin ados ez daudenez, abstenitu egin ziren.

Bozketa etorri zen eztabaidaren ostean. EAJko eta PSE-EEko zinegotziek alde bozkatu zuten; aurka bozkatu zuten Pedro M. Iturbek, Patxi Olabarriak, M. Paz Ugaldek, Andoni Azkargortak eta M. Carmen Jauregik, eta abstenitu egin ziren Aralar-Zutikeko bi zinegotziak. Hortaz, ez zuen aurrera egin mozioak.

**TENTSIO UNEAK AMAIERAN**

Bigarren mozioa aurkeztu zuten gero, eztabaida gutxiago eragin zuena eta onartua izan zena. Mozio horrek dio, besteak beste: "Dimisio eskaerak, zentsura mozioak eta ezker abertzalea isolatzeko estrategia oro antzua da gatazkaren konponbidera heltzeko". Eta gaineratzen du "gatazka politikoa konpontzeko gakoa autodeterminazioa eta lurraldetasunaren korapiloak askatzea" dela. Bestalde, Ino Galparsororen berehalako askatasuna ere eskatzen du.

Aldeko botoa eman zuten Pedro M. Iturbek, Patxi Olabarriak, M. Paz Ugaldek, Andoni Azkargortak eta M. Carmen Jauregik; aurkakoa, Aralar-Zutikeko zinegotziek, PSE-EEkoak eta EAJko batek; eta EAJko bi zinegotzi abstenitu egin ziren.

Udalbatzarraren amaieran, tentsio uneak bizi izan ziren aretora joandako herritarrek hitza hartu zutenean. Kritikak egin zizkieten PSE-EEri eta EAJri eta, azken unean, Paco Morcillo zinegotziak aretoa utzi zuen, esanez "mozioetatik haratago joan" zirela eztabaidak. Batzarra amaitutakoan ere zinegotzien eta hainbat herritarren artean izan zen ika-mikarik.

**HIRIGINTZA** > ERREPIDEA

# Sagasti auzoko biribilgune berritik herrira sartzeko eta handik irteteko aukera egongo da

Arau subsidiarioak aldatu behar dira, baina aurreikuspenen arabera datorren urterako egingo dituzte obrak



Biribilgunetik aterako da Zupiderako bide bat. GOIENKARIA

**I.A.** > ANTZUOLA

Foru Aldundiak Sagastiko biribilgunearen proiektua aurkeztu du, baina Udalaren arau subsidiarioekin ez dator guztiz bat; hortaz, beharrezkoa da aldatzea. Asmoa da hurrengo batzarrerako aldaketa proposamena egitea. Ondoren, Foru Aldundiak eman beharko du behin betiko onarpena. Udaleko aparejadoreak dio espero dutela obra datorren urterako egitea.

**HERRIRAKO SARRERA-IRTEERA**

Sagastiko biribilgunearekin, herrira sartzeko eta irteteko aukera guztiak izango dira, baita Goizperrera sartzeko ere; Goizpertik irteteko, berriz, bide bat egongo da. Bestalde, oinezkoendako beste espaloi bat egingo dute eta inguruko baserrietarako bideak ere hobetuko dituzte.

> PILOTA

## Bihar, Olalderen herriko txapelketako bigarren jardunaldia

Eskuz binakako herriko pilota txapelketako bigarren jardunaldia jokatuko da bihar, zapatua, 09:00etan hasita.

**Partiduak**

**Maiatzak 17, zapatua**

- 09:00 Aristi-Aranburu/Larrea-Aranguren
- 09:45 Balerdi-Bideluze/Agirre-Zabalo
- 10:30 Guridi-Urtzelai/Agirre-Iturbe
- 11:15 Lezeta-Aranburu/Jauregi-Larrañaga

**Emaitzak**

**Maiatzak 10, zapatua**

- Jauregi-Larrañaga 18
- Aranburu-Irizar 15
- Agirre-Iturbe 18
- Ormazabal-Iturbe 11
- Zabalo-Agirre 18
- Lezeta-Aranburu 3
- Larrea-Aranguren 18
- Urtzelai-Guridi 9

> ONDAREA

## Arrola iturria konponduko dute domekan auzolanean

Udalak egindako plangintzari jarraituz, Arrola mendi elkartearekin batera, domekan, maiatzaren 18an, Arrola iturri ingurua txukuntzera joango dira auzolanean.

Antzuolan 48 iturri daude, batzuk desagertzeko arriskuan. Eta iturriek baserri eta landa inguruetan duten garrantzia kontuan hartuta, ondare diren iturriok zaintzeko proposamena egin dute.

Domekan 09:00etan plazan elkartuko dira herritarrak eta Azaldegietara autoz joango dira. Gero, Arrolako iturrira gerturatu eta han egin beharreko lana honakoa izango da: iturri ingurua txukuntzea, ganadua sar ez dadin itxitura egitea eta abereendako aska konpontzea. Lanak amaitutakoan, auzolanean ohitura den moduan hamarretakoa egingo dute lanean jardundakoek.

Harizki
SUKALDEKO ALTZARIAK
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak
Eta orain....
GREMIOEN KOORDINAZIOA

INGURUMENA > ASTE BERDEA

# Ura modu arduratsuan kontsumitu dadin nahi dute Udalak eta Eskolak

'Tantaka tantaka aurreztu ura' lelopean, Elgetako I. Aste Berdea egingo dute Udalak eta Eskolak; besteak beste, eko-erreduktoreak banatuko dituzte

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Eskola umeek luze eta zabal landu dute uraren gaia. Herriko eta eskolako iturrien ur kontsumoa neurtu dituzte, errekaren egoera aztertu dute, Aixolako urtegian eta Badiola araztegian ere izan dira... Zapatutik aurrera egingo den Elgetako I. Aste Berdean emango dute egindako lanaren berri. Hilaren 22an, osoko bilkuren aretora eramango dituzte egindako ikerketak. Ur kontsumoa murrizteko hainbat konpromiso hartzeko eskaera egingo diete udalbatzako kideei.



Eskolako umeek eguenean azalduko dute egindakoa udaletxean. L.Z.

**EKO-ERREDUKTOREAK, DOAN**

Egun berean, goizetik, ur kontsumoa murrizteko eko-erreduktoreak banatuko dituzte eskolako umeek Herriko plazan. "Udal eraikin guztietako txorrotetan eko-erreduktoreak ipiniko ditugu", agindu die dagoeneko Oxel Erostarbe alkateak. "Kalkulatzen dugu modu horretan ur kontsumoa erdira jaitsiko dugula".

Erostarbek gaineratu du Agenda 21eko ekintza plana eguneratzen hasi direla udaletxean, eta herritarren iritziak kontuan hartzeko inkesta banatuko dutela laster etxez etxe.

**GIDATZEKO IKASTAROA**

Bihar, hilak 17, modu ekonomikoan gidatzeko ikastaroak emango dio hasiera Elgetako I. Aste Berdeari. Lau orduko ikastaroa izango da, eta arlo teorikoa eta praktikoa izango ditu. Real Automovil Club elkarteko kideek hainbat gomendio emango dituzte modu ekonomiko eta eraginkorrean gidatzeko. Parte-hartzaileek aukera izango dute, egunean bertan, ikasitakoak kontua hartuta gidatuz gero, kontsumoa zenbat jaisten den ikusteko. 10:00etan emango diote hasiera ikastaroari.

## Egitaraua

**17, zapatua**
10:00etan, gidatzeko ikastaroa.

**18, domeka**
17:00etan, plazan, umeak urarekin ikertzen.

**19, astelehena**
10:00etan, plazan, *Ura aurrezten* erakusketa.

**20, martitzena**
11:00etan, Salbador kalean, *Ura Elgetan zehar* umeendako.

**21, eguaztena**
14:30ean, eskolan, konpostaje ikastaroa.

**22, eguena**
Goizean, plazan, eko-erreduktoreen banaketa.

14:30ean, udaletxean, Eskola Agenda 21 lanaren aurkezpena.

**23, barikua**
09:00etan, plazan, ur jolasak.

**26, martitzena**
19:00etan, udaletxean, hitzaldia. Iñaki Antiguedad.

**Ekainak 1, domeka**
09:30ean, plazatik, irteera.

KIROLA > ZERBITZUAK

## Udal Kirol Zerbitzuen gainean herritarrek duten iritzia jaso nahi du egunotan Udalak

Inkesta-orriak banatu dituzte asteon etxez etxe, herritarrek euren balorazioa egin eta eskaintzen diren zerbitzuak zelan ikusten dituzten jasotzeko

L.Z. > ELGETA

Elgetako Udalak Kirol Zerbitzuen inguruko azterketa egin gura du, eta inkesta bat banatu du etxez etxe. Inkesta anonimoa da eta Udalak herritarrei eskatzen die galderak erantzuteko eta ekainaren 6a baino lehen inkesta orria udaletxeko sarreran jarritako kutxan sartzeko. "Inkestaren bitartez hainbat datu jaso eta aztertu nahi ditugu", adierazi du Udaleko Kirol teknikari Oskar Carrascalek. "Besteak beste, elgetarren kirola egiteko ohiturak eta Kirol Zerbitzuen eskaintzaren gainean herritarrek duten iritzia".

Zerbitzuen egokitasuna, kalitatea, instalazioen egoera... Hainbat galderak osatzen dute inkesta eta Udaletik esan dute herritarren iradokizunak ere jaso nahi dituztela eskainitako zerbitzua hobetu eta osatzeko.

**EKAINAREN 6RA ARTE**

Ekainaren 6ra arte jasoko ditu inkestak Udalak. "Gura genuke ahalik eta herritar gehienen iritziak jasotzea", esan du Carrascalek. "Ekainean, jasotako informazioa aztertuko dugu, eta ondorioak ateratzea espero dugu".

Galderetan hainbat balorazio eskatzen ditu Udalak; instalazioen egokitasun mailari buruzkoa, zerbitzuen kalitatea eta prezioari buruzkoa, monitoreen jarrerari buruzkoa... Elgetan zein beste Kirol Zerbitzu gustatuko litzaigukeen ere galdetzen du.

Jakoba Errekondo > Agronomoa

## "Nekazaritzan, gaur egun, kalitatea da gure aukera bakarra"

L.Z. > ELGETA

**Elgetako Baserritarren Elkarteak gonbidatuta, martitzenean izan zen Elgetan Jakoba Errekondo paisajista eta agronomo usurbildarra. Landareen sorrera izan zuen mintzagai eta hainbat zalantza argitu zizkien baserritarrei.**

**Zeintzuk izan ohi dira baserritarren kezka nagusiak?**

Landareak nola landu eta nola manipulatu izaten dira baserritarren kezka nagusiak gaur egun; tratamendu kimikoak ahal den gutxien erabiltzeko eta lurra ahal den neurrian zaintzeko.

**Zer ekoiztu zalantzan ibiltzen dira?**

Ez. Zer ekoiztu baino gehiago, nola ekoiztu izaten da arazoa. Garai batean baserritarrak ekoiztu egiten zuen. Gaur egun, gainera, produktu hori ontzi batean sartu behar du, etiketa bat jarri behar dio eta saltzaile edo saltoki egoki bat aurkitu behar dio... Kate bat osatu behar du, eta, nire ustez, hor dago benetako gakoa.



Jakoba Errekondo.

**Nekazaritza ekologikoa da etorkizuna?**

Zalantzarik gabe. Gaur egun kalitatea da gure aukera bakarra. Ezin dugu inola ere lehiatu kopuruan, gureak baino lur lauagoak edonon daude-eta. Eta kalitatean arau nagusienetako bat da produktu kimikoen erabilera. Nekazaritza ekologikoa gehiago sustatu beharko litzateke. Kontsumitzaileen artean, gainera, gero eta sentsibilitate handiagoa dago.

> ERRETIRATUAK

### Hilaren 22an, eguena, Bergaratik Osintxurako bidegorrian ibilaldia

Elgetako erretiratuen elkarteak txangoa antolatu du hilaren 22rako. Bergaratik Osintxurako bidegorrian egingo dute eta asmoa da nork bere neurriko ibilbidea egitea. Autoetan jaitsiko dira Bergarara, Ozkarbi elkartetik 15:00etan abiatuta. Joan nahi duenak Pedro Mari Uberari eman behar dio izena hilaren 19rako.

> GIZARTE ONGIZATEA

### Astelehenetik aurrera bost hitzaldi nagusiak zaintzen dituztenendako

Mendekotasuna duten adineko pertsonak zaintzen dituztenendako bost hitzaldi egingo dituzte astelehenetik aurrera Elgetako kultura etxean. Medikuntza, psikologia, lege eta gizarte arloetako gaietan adituak direnek egingo dituzte hitzaldiok. Argibide gehiagorako udaletxeko Gizarte Zerbitzuetara jo behar da.

> MUNDUKO DANTZAK

### Domekan beste saio bat egingo dute Espaloian 11:00etatik 13:30era

Patxi Monteroren gidaritzapean munduko dantzen ikastaroko beste saio bat egingo dute domekan, hilak 18, Espaloian.

Errusiako eta Greziako dantzak landuko dituzte gehienbat domekan. "Abisurik eman gabe ikustera eta probatzera etor daiteke jendea", esan du Monterok. Saioa 11:00etan hasiko dute.



Sastiña ermita Arabako gotzaintzarena da, baina Udalak erabiltzeko eskumena du. JONE INUNTZIAGA

**LANAK** > SASTIÑA ERMITA

# Sastiña itxita dago, konponketak egiteko

## Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza eskatzeko epea zabaldu du ondare kulturalak konpontzeko

## Sastiñako sabai faltsua apurtu egin zen, eta berau konponduko dute datozen asteotan

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Sastiña ermita itxita egon da azkeneko asteotan, eta, seguruenik, horrela jarraituko du datozen asteotan ere. Izan ere, ermitako sabai faltsuaren zati bat apurtu egin da. Hori dela eta, konponketa lanak egin arte itxita jarraituko du. Sabai faltsua da apurtu dena, eta ez teilatua; beraz, ez dago ura sartu edo itoginak egoteko arriskurik.

**DIRULAGUNTZA**

Sastiñan konponketak egiteko Arabako Diputazioari dirulaguntza eskatzea adostu zuten joan zen eguaztenean egindako osoko bilkuran. Hirigintzako zinegotzi Martin Arriolabengoak azaldu zuen Arabako Diputazioak ondare kultural diren eta babestuta dauden eraikinak konpontzeko dirulaguntza eskatzeko epea zabaldu duela Diputazioak.

**ARABAKO GOTZAINTZARENA**

Sastiña ermita Arabako Gotzaintzarena da, berez, baina Aramaioko Udalak kultura ekimenetarako erabiltzeko eskumena du. Dena dela, ez dago inolako idatzizko hitzarmenik hori esaten duenik. Hori horrela, eta konponketa lanak egiteko, Udalak lehenengo lagapen hori formalizatu nahi du eta hitzarmena idatziz zehaztu.

Udala ipini da dagoeneko Arabako Gotzaintzarekin harremanetan, eta erantzunaren zain daude orain. Ez dakite lanak noiz hasiko diren eta noiz arte egongo den itxita Sastiña. Baina Hirigintza sailak azaldu du, herriari zerbitzu handia eskaintzen diola-eta, konponketak lehenbailehen egin nahi dituela.

**UDALA** > HIRIGINTZA

# Eguzkierripa auzoko lanak bukatu dituzte dagoeneko

## Arriola, Zalgo eta Errotaberrin egingo dituzte aurten azpiegiturak berritzeko lanak

**A.B.** > ARAMAIO

Eguzkierripa auzoko lanak bukatu dituzten arren, Udalak herriko beste auzo batzuetan jarraituko ditu azpiegiturak hobetzeko lanak.

Hirigintzako zinegotzi Martin Arriolabengoak adierazi du Arriola, Zalgo eta Errotaberrin egingo dituztela hurrengo lanak. Auzo horietan azpiegiturak berritzeko aurreproiektua aurreko udalbatzak aurkeztu zuen Arabako Diputazioan, eta Aldundiak dirulaguntza ere onartu zuen lan horietarako. Behin betiko proiektua aztertzen dihardu orain Diputazioak. Aldundiaren baiezkoa jaso bezain laster hasiko dituztela lanak adierazi du Arriolabengoak. Lanak hasi eta urtebetean amaituta egotea espero dute.

Arriolako lanetarako proiektu bat aurkeztu dute eta Zalgo eta Errotaberrirako beste bat. Argindar, ur, gas eta telefoniarekin lotutako azpiegiturak berrituko dituzte.

**AZPIEGITURA BERRIAK**

Joan zen urteko martxoan hasi zituzten Eguzkierripa auzoko azpiegiturak berritzeko lanak. Udaleko Hirigintza Sailetik azaldu dute dagoeneko bukatu dituztela lanak, azken ukitu batzuk egitea falta den arren.

Azpiegitura aldetik lan potoloa egin dute Eguzkierripa auzoan. Izan ere, argindar, ur, telefonia eta gasarekin zerikusia duten azpiegitura berriak sartu dituzte. Lanak egin aurretik, airetik zihoazen hari guztiak lurperatu egin dituzte.

Lan potoloa da, eta baita horiendako aurrekontua ere, 784.013 euro kostatu dira-eta lanok. Horietatik %80 Arabako Foru Aldundiak ordaindu ditu. Excavaciones Arrasate enpresak egin ditu lanak, eta hasiera batean udarako bukatuta egotea aurreikusten zuten arren, uste zutena baino luzeago eroan du Eguzkierripako azpiegiturak berritzeak.



Eguzkierripako azpiegiturak berritzeko lanak bukatu dituzte. J. INUNTZIAGA

**KULTURA** > JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA

# Maiatzaren 26an amaitzen da kartelak aurkezteko epea

**A.B.** > ARAMAIO

Aramaioko edonork har dezake parte jaietako kartel lehiaketan. Pertsona bakoitzak, gainera, bi lan aurkezteko aukera izango du. Lan guztiek originalak izan behar dute, eta ondorengo testua eroan beharko dute kartelek: *San Martin jaiak. Uztailak 4, 5, 6 eta 7.*

Udaleko Kultura sailak azaldu du lehiaketan bi kategoria bereiztuko dituela: 16 urtetik beherakoena eta 16tik gorakoena. Gutun-azal baten barruan aurkeztu beharko da kartel bakoitza, eta kanpoan izenburu hau jarri behar zaio: *San Martin Jaietako kartel lehiaketa*. Barruan, gutun-azal txiki batean izenburu bera eta egilearen datuak sartu beharko dira. Parte-hartzaileek udaletxean aurkeztu beharko dituzte lanak. Sariei dagokienez, 16 urtetik beherakoek 60 euro irabaziko dituzte eta 16tik gorakoek 150; bi sariak ere, Elkar liburu dendetan gastatzeko.

> PENTSIODUNAK

### Bainuetxeetara joateko izena emateko epeak zabalik jarraitzen du

Maiatzaren 16an amaitzen da pentsiodunak bainuetxeetara joateko izena emateko epea. Erretiro eta ezintasuna dela-eta pentsiodunak direnek baldintzarik gabe joateko aukera izango dute. Alarguntza edo bestelakoengatik pentsiodunak direnek, berriz, 60 urtetik gora izan beharko dituzte. Programa horretan parte hartu nahi dutenek udaletxean eman beharko dute izena, gizarte laguntzailearen bulegoan. NAren fotokopia, Gizarte Segurantzako afiliatu zenbakia eta medikuaren txostena eroan beharko dute.

> ERRETIRATUAK

### Helduendako oporren programan izena emateko epea, zabalik

Penintsulara, Balear eta Kanariar uharteetara eta Portugalera joateko aukera izango dute erretiratuek programa horri esker. Kultura zirkuituak eta natura turismoa egiteko aukera ere izango da.

Beharrezkoa da 65 urte edo gehiago izatea. Alarguntasun pentsiodunek 55 urte baino gehiago izan beharko dituzte eta aurrez erretiratutakoek 60 baino gehiago. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 13an amaitzen da. Udaletxeko Gizarte Zerbitzuetan eman behar da izena.

> DIRULAGUNTZAK

### Mendekotasun egoeran daudenak aldi baterako egoitzan sartzeko

Publikoak ez diren egoitza eta etxebizitza komunitarioetan sartzeko eskatu ahalko dira dirulaguntzak. Pertsonaren mendekotasun balorazioa hartuko da kontuan eskaera egiterakoan; hau da, haren mendekotasun maila. Ez da dirulaguntzarik emango egonaldia 30 gau baino gehiagokoa denean urtean, jarraian zein urtean banatuta. Azkenik, beharrezkoa da Araban hiru urte baino gehiagoz erroldatuta egotea. Dirulaguntzak jasotzeko udaletxeko Gizarte Zerbitzuetan eman behar da izena.

**AISIALDIA** > UDALEKUAK

# Antolatu ditu udalekuak Gurelek, eta ekintzak gertatzen dabil orain

Uztaileko bi astetan ume eta gaztetxoekin ibiliko diren begiraleekin batzarra egingo dute, guztien artean erabakitzeko zein ekintza egin



Gaztainuzketako mendi etxeetara joateko zain, iaz. MIRARI ALTUBE

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Uztaileko udalekuak gertatzeko sasoia da herri guztietan, eta Gatzagan ere, horretan ibili da Gurel guraso elkartea azken asteotan. Udalekuen nondik norakoak antolatuta ditu dagoeneko, eta begirale lanetan ibiliko diren hiru lagun ere izendatuta ditu. Orain, ekitaldi zehatzak gertatzen hasiko da, begirale horien laguntzarekin.

**BEGIRALEEKIN BILERA**

3 eta 13 urte arteko neska-mutikoak elkartuko dira Gatzagako udalekuetan. Iaz 25en bat izan ziren, eta antolatzaileek uste dute antzeko datua izango dela aurtengoa. Hiru begirale izango dituzte, eta adinaren araberako taldeak egingo dituzte. Bi helburu ditu horrek: lan egiteko orduan hobeto moldatzea eta umeak gusturago egotea. "Hala ere, Gatzagan denok ezagutzen dugu elkar, eta umeak eta gazteak, guztiak daude ohituta elkarrekin egotera eta jolas egitera. Hortaz, ez da arazorik sortuko batera egonda ere", azaldu digu Aitziber Gorosabel antolatzaileak.

Bilera egingo dute datozen egunotan Gureleko kideek begiraleekin, zein ekintza egin zehazteko. Begirale lanak egingo dituztenak berriak dira Gatzagan, eta euren proposamenak entzun gura dituzte, ondoren elkarren artean adosteko: "Nagusienek ez dute ekintza guztietan parte hartzen, irteeretara bakarrik etorri izan dira", dio Gorosabelek. Hala, uztaileko bi astetan –7tik 18ra bitartean– egunero elkartuko dira txikienak, eta eskulanak egingo dituzte, jaiak ospatu eta jolasean jardun. Nagusienak, ostera, irteera egunetan bakarrik agertuko dira.

**HIRU IRTEERA**

Azken orduko proposamenen bat agertzen ez bada, behintzat, ez da egongo berrikuntzarik udalekuetan, eta orain arte egin izan dituzten irteerak mantentzeko asmoa daukate: zaldi eta pottoka gainean ibiltzera zalditegi batera; eguraldi onarekin, igerilekura, seguru asko, Gamarrara; eta Gaztainuzketako mendi etxeetara gaua pasatzera. Arrakasta handia izan ohi dute hiru irteerek; horregatik, aldatzeko asmorik ez daukate antolatzaileek. Herrian geratzen direnean, ostera, San Fermin eguna, uraren eguna eta beste jai batzuk ospatuko dituzte.

**OGASUNA** > ZERGA

# Zabalik da ondasun higiezinen zerga ordaintzeko epea

Atzo, hilak 15, zabaldu zuten borondatez ordaintzeko epea, eta ekainaren 30era arte egongo da zabalik

**M.A.**> LEINTZ GATZAGA

Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak ondasun higiezinen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea zabaldu zuen atzo. Deialdia maiatzaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen, eta maiatzaren 15etik ekainaren 30era bitartean egongo da zabalik.

Gatzagaren kasuan Aldundiak kudeatzen du ondasun higiezinen gaineko zerga, baina Debagoieneko herri handienetan udalei eman diete ardura hori: Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Oñati.

**HELBIDERATUTAKOAK**

Apirilaren 18a baino lehen helbideratutako ordainagiriak bankuaren edo aurrezki kutxaren kontutik kobratuko ditu zuzenean Aldundiak. Ordaintzeko dagoen borondatezko epea bukatzen den egunean izango da hori; hau da, ekainaren 30ean.

Helbideratu bako ordainagiriak, ostera, norberak adierazitako helbidera bidaliko dituzte maiatzean zehar. Ondoren, banku edo aurrezki kutxaren bidez egin beharko dute ordainketa, eta horretarako, bidalitako ordainagiria aurkeztu behar da. Ekainaren 9rako zergadunak ez badu ordainagiria etxean jaso, eskaera egin behar du Gipuzkoan dauden zerga bilketa bulegoren batean. Debagoienean, Bergaran dago bulegoa, Toki Eder kaleko 5. atartean, hain zuzen –astegunetan (08:30-14:00). Eta bestela, udal zergen kudeaketa zerbitzua Donostiako Okendo kalean dago.

> LUDOTEKA

## Landareak landatuko dituzte herriko lorategietan ludotekara doazen umeek, datorren astean

Arratsaldeetan ludotekara joaten diren neska-mutikoek landareak landatuko dituzte herrian datorren astean. Gurelek antolatu du ekimena, eta asmoa da udaberriari ongietorria egitea. Landaketak zein egunetan izango diren ez dute zehaztu; eguraldiaren baitan egongo dela adierazi digute Gureleko kideek. Hala, ludotekako hezitzaileek eguraldi egokia dela ikusiz gero, herriko lorategiak apaintzera aterako dira ume eta gazteak. Landareak antolatzaileek ekarriko dituzte.

Udaberriari ongietorria emateko ekimena ez da berria Gatzagan; azken urteotan ere apaindu dute herria lore eta landareekin Gureleko guraso eta umeek Udalaren laguntzarekin.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

**FUTBOLA** > PREFERENTEA ETA BIGARREN ERREGIONALA

# Aloñak lasaitasun osoz egingo du Mojategira lehenengoz bisita

Erabaki beharreko guztia ondo erabakita dagoela jokatuko du Aloñak estreinakoz Mojategin. Bigarren erregionalean, berriz, asko dute jokoan BTLSek eta Mondrak

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Ligaren amaieran, preferenteari falta zaion emozioa bigarren erregional mailan izango dugu, Bergarako BTLS eta Mondra lehenengo erregional mailara igotzeko borrokan dabiltzalako. Hala, BTLSek zapatu arratsaldean irabazten badu, lehenengo erregionaleko taldea izango da.

**DERBIA MOJATEGIN**

Ezin alde batera utzi, baina, domeka arratsaldean (17:00) preferentean denboraldiko azken derbia jokatuko dutela Mondrak (45) eta Aloña Mendik (41). Oñatiarrak lehenengoz etorriko dira Mojategira, eta oroitzapen onarekin itzuli gura dute Oñatira, joaneko partiduan arrasatearrek Azkoagainen egin zuten moduan (0-1). Orduan, Igor Gordobilen mutilek makal harrapatu zuten Aloña, sasoi hartan gorritxoek bost partidu galdu zituzten-eta jarraian. Arrasatekoek, berriz, indarra hartu zuten Azkoagainen, ondorengo bi partiduak ere irabazi egin zituzten-eta.

Bestalde, Aloñakoek arreta berezia jarriko diote futbol zelaiari. Azkoagaingo taldea zuzentzen duten lagunek eskaera garbia egin diote Udalari: Mojategiko moduko zelai artifiziala gura dute Azkoagain berrituan –datorren astean jokatuko dute, Touringen kontra, belar naturalean azken norgehiagoka–. Hala, Zubiaren mutilek kautxura moldatzen hasi beharko dute, eta domekan dute aukera ona.

**EZ DAGO EZER JOKOAN**

Joan den astean etxean irabazi eta gero, Aloñako presidente Javier Azpiazuk lasaitua hartu zuen: "Arrasatera derbiaz gozatzera joango gara, larritasun barik". Sailkapenera begira ibiltzeko behar barik zelairatuko dira domekan Mondrako eta Aloñako jokalariak. "Alde horretatik kafeinagabeko derbia izango da", adierazi du Mondrako presidente Jose Luis Azkaratek. Azpiazuk, baina, argi dauka, "Horrelako partiduek arnasa hartzeko balio dute", eta denboraldi amaieran bada, askoz ere hobeto. Hala ere, ondo dakigu goiko kategoriara igotzeko aukerarik ez dagoenean ibarreko taldeek beste helburu txikiago batzuk izaten dituztela. Eta nagusiena da ondokoak baino hobeto sailkatzea. Hala, alde horretatik Aloñakoek gutxi dute egiteko, baina sufritu dutena sufritu eta gero, derbian errebantxa hartzeak zapore gozoa utziko lieke. Mondrako jokalariek –batzuk bai, behintzat– beste gauza bat daukate buruan, geratzen diren bi jardunaldietan bi puntura dagoen Aretxabaleta harrapatzea, alegia –eta tartean afariren bat edo beste dago jokoan, gainera–. Horretarako ezinbestekoa da derbia irabaztea, eta ez horregatik bakarrik, horrenbeste urte taldean egin eta gero, Mondrako Iban Garai *Muxi*-k eta Ruben Ruedak garaipen batekin merezi dutelako agur esatea.

**OMENALDIA**

Hain zuzen ere, bi jokalari horiek futbola utziko dute liga amaitzen denean, eta Mondrako zuzendaritzak omenaldia egingo diete. Ruedaren kasuan, omenaldia ez du Arrasateko taldetik bakarrik jasoko: "Ruben gurea ere bada, Aloña Mendin bi denboraldi egin zituelako, eta guk ere omenalditxoa egin gura diogu", adierazi du Azpiazuk: "Gurera etorri zenean oso sorpresa atsegina hartu genuen, hamabost egunetan taldeko jokalari bat gehiago zelako, denen lagun".

Bestalde, Aretxabaletak (47) oraindik etxeko lanak erabat amaitu ez dituen Hondarribia jasoko du domekan. Ibarrakoak ere aspaldian lasai dabiltza, liga amaitu eta atseden hartzeko deseatzen, helburu jakin barik lehiatzea astuna egiten delako. Baina, bi jardunaldi hauetan Mondrakoak aurrea hartzeko asmotan badaude, UDAk ibarreko aurtengo talde onena izateko borroka egingo du.

Preferentearekin amaitzeko, denboraldia amaitu aurretik dagoeneko batetik bestera dabiltza entrenatzaile aldaketen zurrumurruak; aldaketa bat baino gehiago izango da, baina oraindik zehazteke daude gauzak.

**BIGARREN ERREGIONALA**

Pil-pilean daude gauzak bigarren erregional mailan. Izan ere, Mondra, BTLS eta Aretxabaleta (bigarren multzoan) igoera fasean murgilduta dabiltza. Aretxabaleta borrokatik kanpora geratu da, laugarren sailkatuta. Baina, lehenengo multzoan, BTLSek eta Mondrak asko dute jokoan. Bergararrak lider dira, eta euren eskuetan dute dena: "Lau talde gabiltza gora igotzeko lehian, Kostkas, Mondra, Getaria eta gu, eta geratzen diren bi jardunaldietan denetik gerta daiteke", adierazi du BTLSeko ordezkari Jose Luis Beitiak: "Guk nahikoa dugu partidu bat irabaztea, zapatukoa, baina irabazi barik ere lehenengo erregionaleko taldea izan gaitezke, esaterako, Mondrak galdu egiten badu".

BTLSek (27) Getariaren (22) kontra jokatuko du bihar (19:30ean Ipintzan); eta hirugarren dagoen Mondrak (23) bigarren postuan dagoen Kostkas (26)

ESANAK

**"Ruben Rueda gurea ere bada, eta guk ere omenalditxoa egin gura diogu; sorpresa ederra hartu genuen Oñatira etorri zenean"**

**Javier Azpiazu** > Aloña

**"Kostkas mailaz igotzea baino gurago dugu Mondrak mailaz igotzea, baina lehenago gure taldeak egin behar du gora"**

**Jose Luis Beitia** > BTLS



Aloñak, etxetik kanpora, Atxabalpen jokatu zuen Mondraren kontrako azken derbia. Erretratuar

## Bihar BTLSen partidua futbol festa bilakatu gura dute

Partidu erabakigarria jokatuko dute bihar arratsaldean BTLSeko mutilek (19:30, Ipintza).

Kluba ez dago momentu onenean, baina denboraldi hasierako konpromisoari eutsita, bigarren erregionaleko taldeak sekulako lana egin du, eta eskuetan dute lehenengo erregionalerako txartela. Horregatik guztiagatik bihar Getariaren kontra jokatuko duten partidua futbol festa bilakatu gura dute. Karanbola asko egon daitezke geratzen diren bi jardunaldietan, baina BTLSek biharko partidua irabazten badu matematikoki kategoriaz igoko da.



BTLSek eta Mondrak Mojategin jokatutako argazkia. Posible da bi taldeak kategoriaz igotzea GOIENKARIA



n Ander Bereziartua *keixi* eta Iker Maiztegi. GOIENKARIA

hartuko du bihar baita ere (16:30, Mojategi). Arrasateko taldeari dagokionez, bigarren postua eskuratzeko zuri-moreek Kostkas-i irabazi egin behar diote, eta bi goleko aldeagatik bada, hobe. Bestela, azken jardunaldira itxaron beharko lukete, orduan Bergarakoek Kostkas hartuko duteeta. "Teorian azken jardunaldian Mondrak ez du kontrario gogorra, baina orain dela gutxi ere sorpresa galanta hartu zuten ezer jokoan ez duen talde baten kontra galduta. Guk, berriz, Kostkasen kontra jokatuko dugu azken jardunaldian, eta partidu hori ere irabazten ahaleginduko gara, Kostkas taldeak igotzea baino gurago dugulako Mondrak igotzea". Esandakoa, pil-pilean dagoela erregional maila.

> ATLETISMOA

### Otala Zelaiko krosa egingo dute domeka goizean, Aretxabaletan

Domekan ibarreko korrikalariek hitzordua izango dute Aretxabaletan, Otala Zelaiko krosa egingo dute-eta. 10:00etan hasita gaztetxoenen probak egingo dituzte, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailetan.

Nagusien lasterketa, berriz, 11:00etan hasiko dute. Hor, gazte mailakoek, seniorrek eta beteranoek hartu ahal izango dute esku. Otala Zelain bertan egongo da irteera puntua, eta Urkuluri itzulia egin eta gero berriro ere Otala Zelaira egingo dute buelta (8,4 kilometro).

12:00etan egingo dute sari banaketa, eta ondoren paella txapelketa hasiko dute.

> FUTBOLA

### Asteburuan jokatuko dituzte Herriko Txapelketako finalak

Bihar, zapatua, jokatuko dituzte Oñatin Herriko Txapelketako finalak, Azkoagain futbol zelaian.

Hala, 14:00etan Txarrixak eta Xaguxa taldeak lehiatuko dira hirugarren eta laugarren postuagatik. Ondoren etorriko da kopa txapelketako finala, 15:30ean, Gibel Boys eta Fraka Motz taldeak izango dira aurrez aurre. Arratsaldeko hitzordu nagusia, baina, 17:00etan hasiko da. Ligako bi talde indartsuenak izango dira zein baino zein gehiago, aurtengo txapelketa norendako izango den erabakitzeko. Hala, Gaur Bai eta Doolygans dira finalera iritsi diren bi taldeak.

**PILOTA** > HERRI ARTEKO TXAPELKETA

# Dokumentuak behar den moduan ez entregatzearren, Arrasate, kanporatuta

Jokalari baten errolda agiria bidali ez, eta federazioak erabaki zorrotza hartu du: iazko txapeldun Arrasate kanporatu egin dute



Ibai Bolinaga, iazko edizioan. GOIENKARIA

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

"Federazioak ondo hartutako erabakia da hori, bestela taldeek tranpa mordoa egingo lituzkete. Erabaki zorrotza da, baina zuzena, gure hanka sartzea izan da-eta". Arrasateko taldeko arduradun Mauri Zubillagak argi eta garbi azaldu gura izan du dena: "Herri Arteko Txapelketan jokatzeko 15 jokalariren izena eman genuen, eta horien guztien jaiotze-errolda hartzera joan zen klubeko delegatu bat udaletxera. Han, baina, nahastu-edo egin ziren, eta hamabost errolda-agiri hartu beharrean hamalaurekin etorri zen bueltan. Eta, klubean ere ez ginen konturatu, hamalau horiek bidali genituen federaziora".

Hala, joan den asteburuko partidua eta gero federazioan konturatu ziren jokalari baten agiriak falta zirela. Eta, hortik etorri da zigorra: "Pena handia hartu dugu, dagoeneko finalerdietan ikusten genuelako geure burua. Alde horretatik ederrak entzun beharko ditut nik, baina jokalariak txapelketa barik geratu dira, eta hori da txarrena". Hala, iazko Herri Arteko Txapelketako irabazleak ezingo du titulua defendatu.

**DEBARRO TXAPELKETA**

Bestalde, Debarro Irurok Sarian ibarreko taldeek 13. jardunaldia jokatuko dute. Azpimarratu kadete eta gazte mailan Eskoriatzako pilotariak daudela orain momentuan lider, Nagusietan, berriz, lehenengo multzoan Arrasate dabil agintzen eta bigarrenean Antzuolakoak daude aurrean. Finalak ekainaren 15ean jokatuko dituzte, Uarkapen.

**OIER MENDIZABAL 'ATXIKI'-N**

Bestalde, Arrasateko pilota klubeko aldizkari *Atxiki*-n elkarrizketa egin diote aurtengo Eskuz Binako Txapelketako irabazle Oier Mendizabali.



URTZI AMIANO

### Arizmendikoak Bordeleko futbol txapelketan izan ziren asteburuan

Gurasoek lagunduta, Arizmendiko ikasleak Bordelen izan ziren joan den asteburuan, hango nazioarteko futbol txapelketan esku hartzen. Gainera, alebin mailako taldea txapeldunen fasera sailkatu zen, eta infantil mailakoak hamargarren sailkatu ziren.

Arduradunen esanetan, maila handia egon zen txapelketan, besteak beste Portugal, Errumania, Frantzia, AEB edota Alemaniako taldeak zeuden-eta. Irudian ikasleak, futbol zelaietako batean.

**ESKUBALOIA** > KOPA TXAPELKETA

# Ligaren erabakiaren zain, Bergara kopan

Bergarak ekainaren amaieran jakingo du Euskadiko txapelketan jarraitzen duen edo ez, Hondarribiarekin gertatzen denaren arabera; bitartean, Urola hartuko dute domekan Labegaraietan



**KOPAN** Bergarak Urolaren aurka jokatuko du domekan, Labegaraietan. GOIENKARIA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Liga amaituta, Ford Mugarri eta Bergara taldeek kopan dihardute orain. Sasoiari eusteko eta datorren denboraldiari begira probak egiteko partidu aproposak dira kopakoak. Arrasatearrek Euskadiko txapelketan jarraituko dute hurrengo urtean, baina jakiteko dago oraindik bergararrarekin zer gertatzen den. ITV Hondarribia jaitsi egin da lehen maila nazionaletik, eta Azkartzak eta Barakaldok ez dute igoera lortu. Beraz, Bergarak ziurrenik agur esango dio Euskadiko ligari eta bi beharrean, hiru talde jaitsiko dira mailaz; Urolari eta Urdanetari lagunduko lieke Bergarak, 12. postuan sailkatu baitzen. Dena dela, oraindik itxaropen txiki bat dute ; hondarribiarrek lehen maila nazionaleko plaza erostea edota federazioak lekua egitea kostaldekoei. Kontrako kasuan, Ford Mugarri izango da ibarreko ordezkari bakarra Euskadiko Ligan 08-09 denboraldian. Hirugarren denboraldia egingo dute Beñardo Balerdiren mutilek, aurten denboraldi txukuna egin ostean.

**LARRI DABILTZANEN KONTRA**

Kopan ez dabiltza fin Edu Orgazen mutilak. Bergararrek hiru partidu jokatu dituzte orain arte eta hiruretan galtzaile atera dira. Itzuli bakar batera jokatzen da kopa eta beste hiru partidu geratzen zaizkie. Lehen garaipena lortzen saiatuko dira domekan Labegaietako kiroldegian, 12:15ean. Urola izango dute bisitari. Ford Mugarrik, berriz, atsedena izango du oraingo aste bukaeran.



GOIENKARIA

## Amaia Doyague, Tolosako Arraun Klubarekin Euskadiko txapeldun

Amaia Doyague arrasatearrak Euskadiko Batel Txapelketa irabazi du Tolosa Arraun Klubarekin. Doyaguek hiru urte darama Tolosako taldearekin arraunean eta aurtengoan denboraldi bikaina egin dute tolosarrek: lehenbizi Gipuzkoako txapelketa eskuratu zuten eta handik gutxira Euskadikoa irabazi zuten Pasai San Pedron. Ondoren, Espainiakoan, ezin izan zuten saririk eskuratu: seigarren tokian sailkatu ziren Portugaleten jokatutako Espainiako txapelketan. Edozelan ere, han ere ohorezko txandan lehiatu ziren Doyague eta haren taldekideak. Baliteke Zaragozan ospatuko den Expora joatea Tolosako arraunlariak.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Bigarren maila**
Reala-Granada 74
Zapatua. 18:30. Anoeta.

Elx-Eibar
Domeka. 18:00. M. Valero.

**Kadeteen euskal kopa**
Antiguoko-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Berio.

**Preferente maila**
Mondra-Aloña Mendi
Domeka. 17:00. Mojategi.

Aretxabaleta-Hondarribia
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Bigarren erregion. Igoera**
Gazteak-Aretxabaleta B
Zapatua. 15:30. Unbe.

Mondra-Kostkas M. Bihotza
Zapatua. 16:30. Mojategi.

BTLS-Getaria
Zapatua. 19:30. Ipintza.

**Ohorezko mailako gazteak, igoera fasea**
Union Txiki-Aretxabaleta
Zapatua. 11:30. Fanderia.

Sanse-Bergara
Zapatua. 11:45. Felix Garin.

**Ohorezko mailako gazteak, kopa eta jaitsiera**
Aloña Mendi-Mondragon
Zapatua. 18:30. Azkoagain.

**Lehen mailako gazteak, igoera fasea**
Idiazabal-Aretxabaleta Arizmendi
Zapatua. 16:30. Arizkorreta.

**Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea**
Bergara-Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Ipintza.

**Lehen mailako kadeteak. Igoera fasea**
Arrasate-Amaikak Bat
Zapatua. 11:00. Mojategi.

Aretxabaleta B-Intxaurrondo
Zapatua. 11:30. Ibarra.

**Kadeteak, Kopa**
Mundarro La Salle-Arrasate
Zapatua. 10:30. Zarkumendegi.

**Ohorezko mailako infantilak, txapeldunen fasea**
Lagun Onak-Aretxabaleta
Zapatua. 11:00. Garmendipe.

Bergara-Zumaiako
Domeka. 12:00. Agorrosin.

**Ohorezko mailako infantilak, kopa eta jeitsi.**
Hernani-Arrasate
Zapatua. 10:45. Zubipe.

**Alebinak, txapeldunen fasea**
Arrasate-Aretxabaleta
Domeka. 12:00. Mojategi.

**Alebinak, kopa**
Aloña Mendi-Urko B
Domeka. 11:00. Ibarra

Lagun Onak-Bergara
Domeka. 10:30. Garmendipe.

**Emakumezkoen kopa**
Allerru-Mondra
Zapatua. 16:00. Plazeta.

### ARETO FUTBOLA

**Euskadiko liga**
Eskoriatza-Lakunza
Zapatua. 19:15. Intxaurtxueta.

**Lehenengo maila**
Ventanas Isu-Aloña Mendi
Zapatua. 15:00. Lasarte.

**Hirugarren maila**
UDA Izotz-Amara
Egubakoitza. 20:30. Aretxabaleta.

### SASKIBALOIA

**Lehenengo maila, Igoera**
Mondragon Unibertsitatea-Leclerc Vitoria (denboraldiko azken partidua)
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**Gipuzkoako seniorrak**
MU-Ainhoa taberna
Zapatua. 16:00. Iturripe.

Aloña Mendi-DKS
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

**Junior maila, gizonezkoak**
Lasao Altzariak-MU
Domeka. 19:00. Azpeitia.

Aloña Mendi-Cafes Aitona B
Zapatua. 12:00. Zubikoa

Urola-Bretaña Garraioak Bergara
Zapatua. 12:00. Urretxu

**Junior maila, emakumezkoak**
Antigua Luberri-Bergara
Zapatua. 16:00. Benta Berri.

CD Internacional-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Mons. Kiroldegia

**Gipuzkoako ligako kadete maila, gizonezkoak**
Andraitz-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Bikuña, Legazpia.

Easo Haizea-Konde Panaderokua Bergara
Zapatua. 16:00. Paco Yoldi kiroldegia.

Caldereria Zaher-MU
Zapatua. 17:00. Azpeitia

AKE Tovar Iturgintza-MU
Zapatua. 12:00. Usabal

**Gipuzkoako kadete maila, emakumezkoak**
Aloña Mendi-La Salle
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

Arizmendi-Uztapide
Zapatua. 11:00. Eskoriatza.

Sein Neskak ISB-Eskoriatza
Zapatua 09:30. Azkoitia.

**Gipuzkoako ligako infantilak, mutilak.**
Bergara-Aldapeta
Zapatua. 10:30. Mariaren Lagundia.

**Gipuzkoako ligako infantilak, neskak.**
Bergara-STL Lujanbio
Zapatua. 12:00. Mariaren Lagundia.

Leintz-Bera Bera Zurriola
Zapatua. 12:00. Musakola.

### ESKUBALOIA

**Gipuzkoako Kopa, senior gizonezkoak**
Bergara-Urola Lazti
Domeka. 12:15. Labegaraieta.

**Gipuzkoako Kopa, senior emakumezkoak**
Verkol Aloña Mendi-Leizaran
Zapatua. 16:30. Zubikoa.

**Gipuzkoako Kopa, kadeteak gizonezk.**
Berezao Aloña-Euskalduna
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako Kopa, kadeteak gizonezk.**
Tolosa-Bergara
Domeka. 11:30. Usabal.

**Gipuzkoako Kopa, kadeteak emakumezk.**
Esc. Hosteleria Aiala A-Bergara
Zapatua. 12:30. Antoniano.

Consulting-Verkol Aloña Mendi
Domeka. 11:00. Pol. Sansomendi.

### ATLETISMOA

**Otala Zelai krosa**
Domeka. 11:00. Aretxabaletan, Urkulun.

### TXIRRINDULARITZA

**Mendiko bizikleta irteera Musakolan (Legargain plazan)**
Zapatua. 09:00.

### PILOTA

**Herri Arteko Txapelketa**
Bergara-Berastegi.
Gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:00etan.




**Bergara-Berastegi Udal Pilotalekuan gaur**
Bergarak Berastegi hartuko du gaur Udal Pilotalekuan, herri arteko txapelketaren barruan, 19:00etan.



**> ELKARTASUN ZINEMALDIA**
Ekainaren 9tik 14ra, Arrasaten eta Eskoriatzan > 45



**> BERTSOA ETA AHOZKOTASUNA**
Ikasleak jendaurrean trebatzen > 51

**> ANDONI IÑURRITEGI**
Abeslaria eta marrazkilaria da, eta batik bat sorkuntza du maite, "lantegian zortzi orduz lanean jardutea baino gehiago". 'Pottoko' bezala da ezaguna > 50





# IV. MAGIA MOSTRA ELGETAN

AZALA: ALEX AZKARATE / JATORRIZKO ARGAZKIA: JOSETXO ARANTZABAL

## Munduko mago onenek asteburu magikoa eskainiko dute Elgetan

Gaur eta bihar 22:30ean izango dira emanaldiak, Espaloian; etzi, berriz, kaleko magia izango da protagonista

**JOKIN BEREZIARTUA** > ELGETA

Magiak ikus-entzulea harrapatzeko eta txundituta uzteko gaitasun handia duela ezin da ukatu. Hala ere, magiak betidanik sortu izan du mesfidantza hartzailearengan, asko dira-eta magia existitzen ez dela diotenak.

Uste horren errudun nagusitzat telebista jo genezake, telebistako kameren aurrean tranpa egin eta iragazki horretatik pasatzen dena eskaintzen zaigula uste izan baitugu. Asteburu honetan, ordea, magia norberaren begiekin ikusteko aukera izango da, eta gertutik, gainera. Oraindik joatea erabaki ez duenarentzat, honako mezua: asteburu honetan nazioarte mailan onenak diren magoak izango dira Elgetako Espaloian. Zalantzarentzat lekurik ez, beraz. Ongi etorri, orduan, IV. Magia Mostrara.

### MAGIARIK EZAREN HUTSUNEA BETEZ

Orain dela lau urte arte magia eskaintza oso eskasa zen Debagoienean. Eta eskaintzen zen magia ez zen, ezta gutxiago ere, punta-puntakoa, nazioarte mailan famatuak diren ilusionistena, hain zuzen. Hala, Espaloiko kultura teknikari eta IV. Magia Mostraren antolatzaile Josu De Vegak hau adierazi du: "Ikusi genuen bazegoela hutsune bat, gurean mundu magikoa ez zela batere ohikoa".

De la Vegak aipatutako hutsunea ezin hobeto betetzen ari dira magia mostraren antolatzaileak. Lehen ediziotik maila handiko magoak izan dira, eta hainbat izan dira hiru urte hauetan zehar Espaloira hurbildu diren magiazaleak. "Magiak lekua egin du Debagoienean, eta ez Debagoienean bakarrik, Gipuzkoatik, Santandertik, Bilbotik, Gasteiztik eta beste hainbat lekutatik etorri izan dira ikusleak mostrara", dio De la Vegak, aurreko edizioen arrakastaz mintzatzeko orduan.

Badago, bestalde, magia mostratik atentzioa ematen duen ezaugarri bat. Nola da posible munduko mago onenak Elgeta moduko herri txiki batera etortzea? Hori lortzeko sekretua "lana" dela jakinarazi du De la



Elgetako Magia Mostraren berezitasunetako bat gertutasuna da. Gonbidatutako magoek ikusleak etengabe ateratzen dituzte Espaloiko oholtzara. JOSETXO ARANTZABAL

IV. MAGIA MOSTRAKO MAGOAK

**> MORRISON**
Egubakoitzeko galaren aurkezlea etenaldietan trikimailuak egingo ditu. PortAventurako magoa da, *El magnifico*.

**> ANDY GONZALEZ**
Mundu osoan ibilitako magoa, Espainiako lehen saria magia orokorrean.

**> ILVA SCALI**
Paristik datorren magoa, eszena magian hainbat sari irabazitakoa.

**> MIRCO**
Argentinarra. Nazioarte mailako hainbat sari eskuratu ditu.

**> BRANDO ETA SILVANA**
Argentina. 2005eko Chevallier Andrey sarian Argentinako mago onena eta Cometa Magico saria.

**> MIGUE MAGOA**
Kartomagian munduko onena 2003. urtean. Iazko III. Magia Mostran, publikoaren saria.

**> FLIKTO, JUSTO THAUS**
Malaga. Kaleko magoa.

## IV. Magia Mostra Elgetan

(43. orrialdetik dator)

Vegak, eta "zela ez, eskatzen dutena ordaintzea". Etorri izan diren magoak Espaloian oso gustura izan direla dio Espaloiko kultura teknikariak, eta horrek mago eta antolatzaileen artean "kimika ona" ahalbidetzen duela.

Bestalde, Espaloiak harreman estua dauka Arabako ilusionismo elkartearekin eta haiek mago onenekin harremanetan jartzeko ezinbesteko laguntza eskaintzen diete Espaloikoei.

**MAGIA ONENA, ETA NAHIKO MERKE**
Elgetako Magia Mostraren irabazleak ikusleak dira De la Vegaren ustez: "Irabazlea ikuslea da, ekitaldi duinak ikusteko aukera duena oso prezio merkean", dio. Egia esan, hain kalitate handiko magia izanik, ordaindu beharreko kuotak ez dira garestiak.

Gaurko magia galarako –lau magok emanaldia emango dute, beste mago batek aurkezle lanak egiten dituen bitartean– Espaloiko bazkideek 15 euro ordaindu beharko dute; bazkideak ez direnek, ordea, 18 euro. Bihar, aldiz, bazkideek 11 euro eta besteek 14 euro ordaindu beharko dituzte Migue magoaren emanaldiaz gozatzeko. Eta egubakoitz eta zapaturako bonuek 24 euroko prezioa izango dute bazkideentzat eta 30 eurokoa ikusle arruntarentzat. Domekan, azkenik, kaleko magia izango da protagonista, eta, noski, dohainik izango da.

Sarrerei dagokienez, antolatzaileek azken egunera arte jakiten ez dutela adierazi dute. Beraz, ez dirudi sarrerok erabat agortuta daudenik. Hala ere, eta aurreko edizioetan eta pasa den apirilean Blaken ikuskizunarekin gertatu zena ikusita, Espaloiakoek sarrerak agortu egingo direla uste dute. Magiaz gozatu nahi duenak, beraz, adi ibili beharko du. Kafe antzokitik jakinarazi duten moduan, aurreko mostrekin "magian zaletu egin da jendea, eta haiek ez dute hutsik egingo." Aurtengo edizioko, orduan, magian sinisten ez dutenei edota mundu hori abstraktua eta arrotza zaienei egin die gonbita: "Etorri eta probatu behin, ez zara damutuko".

**ETA AURTENGO MOSTRAN, ZER?**
Gaurko magia gala 22:30ean hasiko da eta galan zehar Morrison, Andy Gonzalez, Ilva Scali, Mirco eta Brando eta Silvana magoek hartuko dute parte.

Lehenak gala aurkeztuko du. Madrildik dator *El magnifico* moduan ezaguna den ilusionista hori. Batek baino gehiagok bere ikuskizuna PortAventuran ikusiko zuen agian, hango magoa baita. Magoen ikuskizunen arteko etenaldietan trikimailuak eszenaratuko ditu Morrisonek.

Gala horretan diziplina askotariko magia ikusteko aukera izango da; besteak beste, gertuko magia, eszena magia... Hala, eta gala osoan zehar izango den mago bakoitzak ikuslea txunditutа utziko duen arren, Mirco magoa nabarmendu dute antolatzaileek. Espaloira edozein artista ekarri aurretik haren ikuskizuna ezagutu nahi izaten dute eta Mirco oso originala dela eman dute aditzera. Mago argentinar horrek nazioarteko hainbat sari irabazi ditu, eta jendeari asko gustatuko zaiola ziurtatu dute Espaloiko kultura taldetik.

Gonbita egina dago. Beraz, asteburuan zehar aurreikusi dituzten 1.000 lagunen artean izatea zuen esku dago orain.

**Miguel Puga** > Migue magoa, munduko magia txapelduna

## "Magiak poztasunez hunkitzeko duen gaitasunak erakarri ninduen txiki-txikitatik"

J.B. > ELGETA

**Bihar "karta-sorta eta pianorako kontzertua" ikuskizuna eskainiko du Miguel Pugak, Migue magoa ezizenez 2003an munduko Kartomagia txapelketa irabazi zuen berberak. Magia, musika eta poesia eskutik helduta ekarriko ditu Espaloira.**



MIGUEL PUGA

**Nondik sortu zen ikuskizun bitxi horren ideia?**
Betidanik gustatu izan zait ilusionismoa beste arte batzuekin erlazionatzea. Ideia piano baten tekla naturalak poker sorta baten kartekin lotzean sortu zen. 52 dira guztira, karta-sorta frantsesak dituen berberak. Datu horrek nire irudimenaren txinparta piztu zuen.

**Zein motatako ikuskizuna da?**
Magiak, musikak eta poesiak bat egingo dute ordu eta erdi inguru iraungo duen emanaldian. Oholtzan Joaquin Gonzalez piano joleak eta Miguel Molina aktoreak lagunduko didate. Eta, umiltasun osoz, proposamen eszeniko berritzailea egitea lortu dugula esan dezakegu.

**Zer da zuretzat magia, nola definituko zenuke?**
Sentsazio bat da magia. Ia edozein lekutatik atera daiteke; poema, pelikula, laztan edo eskuarteko joko batetik, esaterako. Ilusionismoaren arteak, gainera, oinarrizkoak diren bi sentipen berreskuratu ahal dituela konturatu nintzen: harridura eta poztasuna. Nire ustez, azken hori sentiarazteko gaitasunak ezberdintzen du ilusionismoa beste arteetatik.

Magiak berez duen poztasunez hunkitzeko gaitasunak erakarri ninduen txiki-txikitatik. Magia-tekniken ikasketak ere asko erakarri ninduen.

**Zein izan da Elgetako Magia Mostran parte hartu izanaren esperientzia?**
Bigarren aldia da mostran parte hartuko duguna. Iaz jasotako tratua oinarrizkoa da aurten ere hemen izateko. Ez gaude hemen lan egiteko, magia egiten dugu magia maite dugulako. Asko estimatzen da guk [ilusionistak] ordezkatzen dugun esparruari laguntza ematen dion iniziatibadun jendea egotea. Emanaldi aurretik bueltatzeko desiratzen gaude dagoeneko.

**Zer sentitzen da iazko mostrako publikoaren saria irabazita?**
Ohorea da publikoaren *txapela* irabaztea. Horrek egiten dugunari zentzua ematen dio. Eskerrik beroenak hemendik, bozkatu gintuzuenoi.

**Zerbait gaineratzerik nahi, Migue?**
Badakit zer den halako ekitaldi bat antolatzea; beraz, Elgetako Magia Mostraren antolakuntza txalotzea nahi dut. Zorionak, eta urte askotarako!

**JAIAK** > SAN ISIDRO ANTZUOLAN

# Azoka eta herri kirol erakustaldia, domekan plazan

Kukumarro erakusketa eta bertso saioa ere egingo dituzte, besteak beste, San Isidro eguna ospatzeko

**I.A.** > ANTZUOLA
San Isidro eguna eguaztenean izan bazen ere, ospakizunak bihar, zapatua, egingo dituzte Antzuolan. Goizean goiz hasiko dira ekitaldiak. 09:00etatik 14:00etara azoka izango da. Pilotaleku inguruan ganadua egongo da ikusgai: behorrak, moxalak, pottokak, astoak, ardiak eta behiak, besteak beste.

Plazan hainbat postu egongo dira: Anelkarkoak bidezko merkataritza produktuekin eta baserriko produktuekin Aranburu baserrikoak eta Pikunietakoak. Kanpotik ere etorriko dira, gozogintzako jakiekin, besteak beste. Herriko artisauen lanak ikusteko aukera ere izango da: emakumeen joskintza lanak, Francisco Castro aulkiak konpontzen; Diego Sanchez bastoiak egiten; eta musika tresnekin Joseba Gastiain.

**KUKUMARROAK**
Azokaz gain, goizean barrena egongo da beste konturik ere. 11:00etarako bi hitzordu daude aukeran: plazako iturriaren inguruan kukumarro lehiaketako lanak ipiniko dituzte ikusgai; meza ere ordu horretarako dago iragarrita. Meza ostean salda banatuko dute Trekutz elkartean eta txistularien eta trikitilarien kalejira izango da herrian barrena. Hamaika Bertuteko bertsolariek hartuko diete lekukoa eta Olalde eta Eperra elkarteetako balkoietatik jardungo dute bertsotan.

Sari banaketak 12:00etan izango dira: Antzuolako Txokoak argazki lehiaketakoa lehenengo eta kukumarro lehiaketakoa ondoren.

**HERRI KIROLAK**
Arratsaldean, 19:00etan hasita herri kirol jaialdia izango da Herriko Plazan; eguraldi txarra eginez gero, pilotalekuan. Azkenaldian enbor handiak mozten ezagun egin den Ernesto Ezpeleta *Bihurri*-k, *Agite*-k, *Zelai*-k eta *Flores*-ek jardungo dute aizkoran. Hodei Ezpeleta, *Bihurri*-ren zortzi urteko semeak, aizkora txiki batekin jardungo du eta *Bihurri*-k berak motozerrarekin egingo du saioa. Beste kirol erakustaldi batzuk ere izango dira: harri jasotzen jardungo dute Josetxo Urrutiak eta Martikorenak; Ana Berasategik eta Ane Arrospidek Iparraldeko jokoen erakustaldia egingo dute; eta launa laguneko taldeen arteko lehia ere izango da.

**ZINEMA** > ELKARTASUN ZINEMALDIA

# Elkar Hezitzen proiektuaren barruan, elkartasun balioak zabaldu nahi dituzte herrira

Egun bakoitzean gai bat landuko dute: diktadura, isolamendua, elkartasuna, hezkuntza eta tolerantzia, immigrazioa eta bidezko merkataritza

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE
Elkar Hezitzen Debagoieneko Garapenerako Hezkuntzarako Lantaldeak elkartasun zinemaldia antolatu du Otavio Zendoia Arrasaten bizi den zinema zuzendari eta ekoizle brasildarrarekin elkarlanean.

Elkartasun zinemaldiaren helburua da zinemaren bitartez berdintasuna, elkartasuna, batasuna, errespetua eta halako balioak sustatzea gizartean.

Adin guztietako jendeari zuzendutako proiektua izanik, ikasleekin zinemaren eta giza eskubideen gaineko eskolak egingo dituzte, eta erretiratuekin iragarki bat gertatzen dihardute jendea zinemaldira erakartzeko.


Israelen girotutako *Bridge over the wadi* filma emango dute, besteak beste. GOIENKARIA

**EGUN BAKOITZEKO GAI BAT**
Ekainaren 9tik 14ra bitartean izango dira emanaldiak, Arrasaten eta Eskoriatzan, eta egun bakoitzean gai bat landuko dute.

Astelehenekoa diktadura izango da. *Paseo* komedia giroko film laburra eta Argentinako Maiatzeko plazako amen gaineko *Madres* filma emango dituzte.

Martitzenean isolamendua ardatz hartuta. Kuban girotutako umorezko film labur bat eta Kubara ikastera doazen sahararren gaineko *Caribeños del Sahara* film luzea emango dituzte. Filmaren zuzendari Iratxe Perez izango da emanaldian, ikusleek nahi dituzten azalpenak emateko gertu.

Elkartasuna gai hartuta Atzegikoek egindako film laburrak izango dira eguaztenean ikusgai, eta egileek ere hartuko dute parte zinemaldian.

Eguenean hezkuntza eta tolerantziari buruz jardungo dute. Eskolan buruko zapia jantzten uzten ez dioten neska musulman baten gaineko *Hiyab* filma emango dute.

Egubakoitzeko gaia immigrazioa izango da eta zapatukoa, bidezko merkataritza. Azken saio horretan, Etiopiako kafearen inguruan sortzen den negozioaz diharduen *Oro negro* dokumentala egongo da ikusgai.

Saiatu dira film onak ekartzen zinemaldira, eta, aipatutakoez gain, beste batzuk ere emango dituzte aste horretan barrena. Esaterako, Israelen guraso arabiar eta judutarrek eskola bateratua sortu zutela islatzen duen *Bridge Over The Wadi* filma.

**KOMIKIAK** > IKASTAROA

# Pernan Goñi marrazkilari oñatiarrak komikiak egiten erakutsiko du gaztelekuan, gaurtik hasita

Gazteek komikietatik ikastea, sormena lantzea eta marrazteko zaletasuna hartzea dira, besteak beste, ikastaroaren helburuak

**I.A.** > OÑATI
Gaur, maiatzak 16, hasiko da Oñatiko gaztelekuan komiki tailerra. Gaztelekura joaten direnendako izango da ikastaroa, 12 urtetik 18 urtera bitartekoendako, hain zuzen ere. Lehenengo saioa gaur, egubakoitza, egingo dute gazteek, eta, aste bukaerako atsedenaldiaren ostean, astelehenean, martitzenean eta eguaztenean izango dira hurrengo eskolak. Saioak 17:30etik 19:30era egingo dituzte.



Oinarrizko materialarekin jardungo dute gazteek marrazten. PERNAN GOÑI

**SORMENA LANDU**
Gazteek komikietatik ikastea da ikastaroaren helburu nagusia eta horretarako topikoak alboratu eta sormena erabiliko dituzte modu dibertigarrian. Horretaz gain, antolatzaileek nahi dute gazteek etxean ere marrazteko ohitura hartzea; izan ere, euren ustez komikiak egiteko ez da behar baliabide askorik.

Komikietako pertsonaia ezagunen ezaugarriak landuko dituzte eta gero euren pertsonaiak sortu. Horretarako, irakasleak gazteei erakutsiko die komiki bateko pertsonaia nola girotu, zein elementu tipografiko erabili, baita komikien lengoaia ere. Eta azkenik, nork bere komikia egingo du.

**ARGITALPENA SORTU**
Pernan Goñi marrazkilari oñatiarrak jardungo du irakasle lanetan. Gazteei autoedizioaren funtsak irakatsiko dizkie: edukien garapena eta luzera egokia, maketazioa, azala, aurkibidea, orrialdeen konposaketa…

Gainera, asmoa da ikastaroaren amaieran argitalpena sortzea parte-hartzaile guztien artean.

> OÑATI

### Sarrerak salgai maiatz eta ekaineko kultura emanaldietarako

Oñatiko kultura etxean salgai daude maiatzean Santa Anan izango diren ekitaldietarako sarrerak. Goizetan bulegoetan, 10:00etatik 13:00etara, eta arratsaldez harreran, 16:30etik 20:30era.

Musikegunetan, maiatzaren 18an Santa Cecilia abesbatza eta 31n The Beethoven String Trio izango dira, 19:30ean. Sarrerek sei euro balio dute. Hilaren 23an, 22:30ean, *Improvisados* umorezko inprobisazio eta bakarrizketa saioa izango da. *El club de la Comedia*, *Los Irrepetibles de Amstel*, *Verano 3* eta *Noche de Fiesta* telebista saioetako aktore ezagunek jardungo dute. Sarrerak hamar euro balio du. Azkenik, Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior pailazoen saioa izango da 24an 17:00etan. Sarrerak hiru eurotan daude salgai.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan 90 m²ko etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela, bi balkoi eta trastelekua. Garajearekin. 687 11 07 21.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. 16 metro koadroko garajearekin. Prezio interesgarria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai Otalora Lizentziaduna kalean. 74 metro koadro. Igogailu eta atari berriak. 204.344 euro. 636 58 98 76.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai Portasolen. Hiru logela, komuna, egongela eta sukaldea. Dena berritua. Prezio interesgarria. 605 75 72 97.

**Arrasate.** Otalora Lizentziadunan duplexa salgai. Bi logela, bi komun, egongela, sukaldea eta 20 m²ko terraza. 13 urteko eraikina. 696 79 43 89.

**Bergara.** 75 metro koadro. Bigarren solairua. Hiru logela, trastelekua eta arropak esegitzekoa. Terraza eta barbakoa. Aire girotua. Bi aparkalekurekin. Eguzkitsua eta leku lasaian. Berritua eta egoera onean. 216.000 euro. 943 76 07 50.

**Bergara.** Basalgo auzoan baserria salgai, lursailekin. 610 73 65 40 edo 943 76 19 28.

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldea, egongela, bainugela eta trastelekua argipatioan. Igogailuarekin. Leku lasaian kokatua. 652 70 12 49.

**Oñati.** Duplexa salgai erdialdean. Garajea eta trastelekua dauzka. 670 85 85 41.

**Oñati.** Sukaldea, hiru logela, bainugela eta egongela. Garaje itxia eta trastelekua. Guztiz berritua. 665 72 87 89 edo 657 72 25 70.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** Bizente Goikoetxea plazan etxebizitza errentan. Lau logela, bi komun, sukalde eta egongela handiak. 110 metro koadro. 945 44 51 84 edo 695 46 27 23.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza berria ematen da errentan erdialdean. Guztiz jantzia. 636 73 54 94.

**Bergara.** Erdialdean etxebizitza errentan edo salgai. Hiru logela, bi komun eta igogailua. Eguzkitsua eta nahiko berria. Deitu 20:30etik aurrera 685 72 40 30 telefono zenbakira.

**Calpe.** Apartamentua ematen da errentan, hamabostaldika. Bi logela. Telebista eta sukalde jantziarekin. Hondartzatik 50 metrora. 655 74 57 97.

**Peñiscola (Castello).** Apartamentua errentan hondartzatik gertu. Igerilekuarekin. Deitu 948 41 00 79 edo 616 95 04 00 telefono zenbakietara.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bikote batek etxebizitza errentan hartuko luke. 657 72 84 12.

**Aretxabaleta.** Bikote arduratsuak etxebizitza hartuko luke errentan. 687 98 43 64.

**Aretxabaleta.** Bikote gazte batek etxebizitza txikia hartuko luke errentan 2008ko irailetik aurrera. 685 77 66 85.

**Bergara.** Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 686 37 76 79.

**Bergara.** Etxea hartu nahi dut errentan. 648 13 35 62.

**Debagoiena.** Bi mutil gazte eta arduratsuk etxebizitza hartuko lukete errentan. 650 09 38 99 edo 647 08 68 75.

**Debagoiena.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Oñatin bada hobe. Etxe txikia nahiago. 652 71 21 23.

**Kostaldea.** Etxebizitza errentan hartuko nuke abuzturako Gipuzkoako edo Iparraldeko kostaldean. Marijo. 685 72 16 17.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aramaio.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 699 28 99 06 edo 646 55 26 30.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da egoera onean dagoen etxea osatzeko. 616 05 97 92.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko; 180 euro hilean + gastuak. 647 08 68 75 edo 943 79 80 26.

**Bergara.** Erdialdean (Irizar pasealekua) gela txikia errentan ematen da. 649 63 23 24.

**Oñati.** Pertsona bat behar dut etxea osatzeko. 688 62 71 30.

## 2/ GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia errentan Boni Laskurain plazan. Auto bat edo birentzat. 677 91 68 38.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Lokala ematen da errentan Nafarroa etorbideko 7an. 943 79 23 15 edo 943 79 26 59.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da astean behin etxea garbitzeko. 943 79 41 15.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaintzeko. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72.

**Arrasate.** Emakume euskalduna edozein lan egiteko gertu. 659 82 75 18

**Arrasate** edo inguruan egur erdiz, osoz edota gauez nagusiak zaintzeko gertu nago. 676 59 53 17.

**Arrasate.** Astean zehar, ordu batzuk etxeak garbitzeko neska euskalduna prest. Deitu 690 19 82 79 zenbakira.

**Bergara.** Mutil gaztea tabernetan eta jatetxeetan lan egin edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. 685 42 72 80.

**Bergara.** Neska arduratsua udan lan egiteko gertu. Umeak zaindu edo eskola partikularrak emango lituzke. 628 92 34 28.

**Bergara.** Neska gertu arratsaldez edo egun osoz lan egiteko: pertsona nagusiak zaintzeko (egunez zein gauez), edo garbiketak egiteko. (Esperanza). 678 80 96 01.

**Debagoiena.** Emakume bat prest garbitasun lanak egiteko eta sukaldean laguntzaile moduan aritzeko. Pertsona nagusiak eta haurrak ere zainduko lituzke. 659 37 41 95.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaindu edo garbitasun lanak egiteko: etxeak, tabernak, bulegoak... Deitu 696 11 01 94 edo 943 77 16 73 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko. Deitu 664 74 82 07 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Bertan lo egiteko bada, hobeto. 688 68 06 96.

**Debagoiena.** Emakumea prest gaixorik dauden pertsona nagusiak zaintzeko edota garbitasun lanak egiteko. Ikasketak eta esperientzia. 943 76 53 43 edo 629 75 00 30 telefonra.

**Debagoiena.** Etxeko lanetan eta nagusiak zaintzen esperientzia duen emakumea lan egiteko gertu. Josten eta arropak plantxatzen eskarmentua. Paperak ditu. 686 52 15 98.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu arratsaldeetan edo gauetan lan egiteko. Umeak eta nagusiak zaintzen edo garbitasun lanak egiten. 619 92 40 86.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu umeak zaindu edo garbitasun zein tabernatan lan egiteko. Astelehenetik ostiralera. 636 05 36 18.

**Debagoiena.** Paperak dituen mutil gaztea eraikuntzan lan egiteko gertu. 696 48 42 50.

**Emakumea** goizetan lau ordu eta arratsaldeetan ere lau ordu lan egiteko prest, dendari, haur zein pertsona nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiten... 610 34 97 88.

**Emakumea** prest pertsona nagusiak zein haurrak zaintzeko, baita etxeko lanak egin edo garbiketak egiteko. 686 99 59 41.

**Mutil gaztea** edozein lanetarako prest. Informatika, auto mekanika, txapa eta pintura, argiketari eta igeltsero ezagutzekin. 697 66 79 37.

**Sukalde** laguntzaile lanak egiteko gertu tituludun emakumea. Maitegatik galdetu. Deitu 696 88 93 73 zenbakira..

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Debagoiena.** Batxilergoko matematikako eskola partikularrak hartu gura ditut. 645 72 25 24.

**Debagoiena.** Pertsona bat behar da eskolak emateko. DBHko hirugarren maila. Kurtso bukaera arte eta baita datorren ikasturterako ere. 652 76 21 63.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Neska euskalduna haurrei eskola partikularrak emateko prest. 690 19 82 79.

**Bergara.** Eskola partikularrak ematen ditut. 21:00ak aldera deitu. 615 73 45 53.

**Eskoriatza.** Unibertsitateko ikasleak eskola partikularrak (DBH eta LH) ematen ditu, uztailera arte (barne). 600 84 12 97.

**Oñati.** Urte askotako esperientziadun irakasleak eskola partikularrak ematen ditu. Kurtso osoan eta udan. 943 78 28 43.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**CBF 600 SA** motor beltza salgai. 2005ekoa. ABS, eskuak berotzekoa, atzeko kutxa, alforjak, pantaila altua. Karenatua. 11.500 km. 6.500 euro. Egoera onean. 635 70 66 02.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Basurdeak** salgai Orozkon. Hiru hektareako zarratua basurdeekin, txakurrei erakusteko. 200 euro. 678 72 75 72.

**Pointer arrazako txakurrak** salgai. Lau hilabetekoak. Deitu 615 73 58 38 zenbakira.

### 703. EMAN

**Katakumeak** oparitzen ditut. 943 78 05 13.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Apalategi** metalikoak salgai. 100x60 neurrikoak. Deitu telefono honetara:. 943 76 11 21.

**Autorako bozgorailuak** salgai. 50 euro. 617 13 17 51.

**Basalurra** salgai Osintxu, Urkulu, Bolibar eta Antzuolan. 678 72 75 72.

**Brain Trainning** berria salgai. Erabili barik dago. 617 13 17 51.

**Errepideko bizikleta** salgai. Egoera onean eta oso merke. 120 euro. Iñigo. 656 78 17 28.

**Errepideko bizikleta** salgai. Gutxi erabilia. Emakume edo gaztetxoentzat egokia (tamainuz ertaina). Deitu 635 718 028 telefonora. 635 71 80 28.

**Karro-denda** salgai. Bi logela bikoitz, jantokia 4-6 pertsonarentzako, sukaldea, hozkailua... Egoera onean, beti garajean gordeta. Prezioa: 1.200 euro, negoziagarriak. 615 72 47 43.

**Lehorgailu** ia berria salgai. Fagor etxekoa. 250 euro. 943 77 00 26.

**MP4a** salgai. Oso gutxi erabilia. 945 44 52 96.

**Mahai** obalatua salgai. 136x90 neurrikoa. Luzagarriekin. Asier. 617 17 15 88.

**Mahaiak eta aulkiak.** Bergaran, zortzi mahai, aluminiozko 42 aulki eta publizitaterik gabeko eguzkitako bi salgai. Prezioa adosteko aukera. 650 80 80 39.

**Mendiko bizikleta** salgai. 750 euro. Estreinatu gabea. S-Crash markakoa. Esekidura bikoitza, atzean eta aurrean Rock-Shox, Shimano-XT 2007, disko-balazta Magura Julie hidraulikoa. 652 73 83 25.

### 802. EROSI

**Sofak salgai.** Hiru plazadun bat eta plaza bakarreko bi. Larruzkoak. Egoera oso onean. 1.100 euro. 647 97 82 73 edo 620 86 87 50.

**Ume-bizikleta.** 4 urteko ume batendako bizikleta erosiko nuke, bi errubera gainean ikasteko egokia dena. 665 71 39 61 edo 607 11 31 46.

### 804. HARTU

**Hozkailu** zahar bat hartuko nuke. 943 79 66 00.

### 806. GALDU

**Bergara.** Neskatila-erlojua galdu dut Boni Laskurainen, Ipintza ikastetxetik gertu. Deitu 943 76 00 99 telefonora.

**Betaurrekoak** galdu nituen Kimetz taberna eta Maalako okindegi artean, maiatzaren 4an. Graduatuak dira. Deitu 943 79 36 83 zenbakira.

**Jaka bakeroa** duela bi zapatu Bergarako Ipintza ikastetxeko patioan ahaztuta utzi genuen. Neurria: 8 urteko umeendakoa. Bospasei txaparekin. Deitu 610 82 46 58 telefonora.

### 807. AURKITU

**Giltza.** Citroen markako autoaren giltza bat aurkitu da Bergarako Zubiaurre kalean. Giltzaren jabea Martoko kaleko Mirari jantzi dendara joan daiteke hura hartzera. 635 25 54 44.

**Zapatak.** Txarolezko zapatatxo bat agertu da INEMeko bulegoan. Maiatzaren 8an galdu zen. Pasatu INEMetik. 943 79 71 45.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Donostiako** Aizkorri 84, 2.B etxebizitzaren jabearen bila nabil. Xabier. 609 51 93 67.

**Oñatitik Gasteizera** joaten gara egunero. Bi pertsona joaten gara auto batean. Norbait interesatuta egonez gero, deitu. 635 20 33 14.

**Arrasate eta Iruñea** arteko joan-etorria egiteko, autoa eta gastuak elkarren artean ordaintzeko jende bila nabil. Igandeetan joan eta ostiraletan etortzen naiz. 635 75 94 57.

**Oñati eta Bilbo.** Oñati (edo inguruko herriak) eta Leioako unibertsitate arteko eguneroko joan-etorria egiteko, autoa eta gastuak elkarren artean ordaintzeko jende bila nabil datorren urteari begira. 670 52 58 79.

**Perkusionista.** Musika talde baterako perkusionista behar da grabazioetan eta zuzeneko emanaldietan jotzeko. 656 30 97 48.

**Taldekide bila** dabil Bergarako Emon taldea, taldea guztiz osatzeko tronboi eta tronpeta jotzaile bila. 675 70 81 93.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05** sailkatuak@goiena.com

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 22 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 30 € (BEZ BARNE).**
OHARRA: BI MODULU BAINO GEHIAGO JARTZEKO DEITU 943 25 05 05 TELEFONORA.

Iragarki partikularrak astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**LORAMENDI KIROLAK**

**Neska bat behar dugu dendan lan egiteko. Euskara beharrezkoa. Utzi datuak San Andreseko dendan.**

**LAIXAN Euskera Elkarteak behar du**
**T e k n i k a r i a**

Laixan

**Eskakizunak:**
- Harremanetarako gaitasuna
- Bulego lanak euskaraz egiteko gaitasuna.
- Informatikako jakintza, erabiltzaile mailan.

**Eskaintzen du:**
- Egun erdiko lana
- Urte bukaera arteko kontratua

**Epea:** 2008-V-31
**Argibideak:**
Tel.: 943 71 63 11 edo 695 73 69 61.
*laixan@laixan.org*
**Bidali curriculuma:**
LAIXAN Euskera Elkartea,
Bidebarrieta 18 behea. 20560. Oñati.

**KIROL TEKNIKARIA**
**Aldi baterako**

Oinarri-arauak: BAZen (goiz eta arratsalde) eta webgunean jaso daitezke www.arrasate-mondragon.org

**Proba eguna:** 2008ko maiatzaren 22an 17:30ean.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Pertsonal Saila**

**ARETXABALETA**

**Ile apaintzaile laguntzailea behar da udarako. Egun erdiz 635 70 66 02**

**ARETXABALETA**

**Jatetxeak sukaldari laguntzailea behar du. 662 13 27 55**

**DEBAGOIENA**

**Autokarabana berria errentan ematen da. 943 71 25 30**

## ETXE AGENTZIEN ATALA

**Jar ezazu hemen zure publizitatea**
**943 25 05 05 publi@goiena.com**

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 m². Ondo. Garajea aukeran.
- San Juan. Bifamiliarra. Prezio oso ona.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60 m². Berritua. Leku lasaia.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Zubieta.75 m². Txokoarekin. Oso ondo.
- Simon Arrieta.80m². Prezio ona.
- Bidekurutzeta.103 m². Duplexa. Oso ondo.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedro eta Zubiaurren.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Arrasate:**
- Erdiko kalea 113 m². Balkoiarekin. Ondo.
- Zarugalde 90 m². Balkoiarekin. Eguzkitsua.

**Antzuola:**
- Buztinzuri 76 m². Prezio ona. Ganbararekin.
- Buztinzuri 67 m². Eguzkitsua. Igogailuarekin.
- Antigua 80 m². Eguzkitsua.
- Zurrategi plaza. 90 m². Atikoa. Terrazarekin.
- Etxe berriak 178 m². Duplexak eta adosatuak.

**Eskoriatza:**
- Baserria. Bifamiliarra. Berria.

**Oñati:**
- Kale Zaharra. 62 m². Terrazarekin. Ortua.
- Lezesarri. 75 m². Eguzkitsua. Erdi berritua.

**Soraluze:**
- Rabal. 64 m². Berritua. Eguzkitsua.

**DEBA GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
- Ibargarai, 80 m², oso ondo.
- Artekale, 70 m², oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Matxiategi, 65 m², ondo.
- Aranerreka, 87 m², oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Sanantonabat, 70 m², oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m², eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin plaza,132 m², berritzeko.
- Irizar Pasealekua 89 m², ia berria.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Masterreka, 89 m², oso ondo eta garajea.
- **ETXEBIZITZA BERRIEN ERAINKUNTZA MADURA, MASTERREKA, ZUBIAURRE ETA BIDEKURUTZETAN**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Rekalde, 100 m², oso ondo.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.



**Ainhoa Pildain** eta **Iker Murillo** arrasatearrak hilaren 17an ezkonduko dira Oñatiko San Pedro baselizan. Ospakizuna Etxe-Aundi jatetxean egingo dute eta bidaian New Yorkera eta Hawaiira joango dira. Zorionak, lagunen eta familiakoen partetik!



Oñatiko **Felisa Guridi** eta **Angel Milikuak** 60 urte bete dituzte ezkonduta. Bihar ospatuko dute sendikoek bazkari eder batekin. Orain bezala segi dezatela, tarteka haserretuz, baina beti elkar maitez. Zorionak, etxekoen partetik eta pa potolo bana bilobengandik!



**Paulo Zumalde** eta **Mari Joxepa Zumalde** maiatzaren 13an ezkondu ziren orain dela 65 urte. Alaba, suin eta biloben partetik, zorionak eta ondo-ondo jarraitu! Domekan ospatuko dugu denok batera!



Zorionak, **Monica** eta **Ruben**. Zapatuan, maiatzaren 17an, Bedoñako Santa Eulalia parrokian ezkonduko dira eta eta Gure Ametsa jatetxean egingo dute etxekoekin eta lagunekin ospakizuna. Koadrilakoek munduko zoriontasun guztia opa diete.



**Tatxo Reguera** eta **Nieves Korostola** senar-emazte errenteriarrek 50 urte bete dituzte ezkonduta. Hori ospatzeko Errenteriako Madalena ermitan meza egingo dute maiatzaren 17an, zapatuan, eguerdiko ordubatetan. Ondoren, bazkaria Oiartzunen izango dute. Udalatik, ondo pasa eta zorionak!

---

OROIGARRIA

## Alberto Etxabe Lete

Mendiolan hil zen 2008ko maiatzaren 3an.

*Isiltasunean izan dira*
*zure lana eta bizitza,*
*beti izango zara*
*gure oroimenean eta bihotzean*

Zure aspaldiko Eroskiko lagunak.
Arrasaten, 2008ko maiatzaren 16an.

---

ESKER ONA

## Rosario Bolinaga Garai

Arrasaten hil zen 2008ko maiatzaren 7an, 79 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2008ko maiatzaren 16an.

---

1. URTEURRENA

## Antonio Osinaga Agirre



Lehen urteurreneko meza
domekan, maiatzaren 18an,
12:30ean Bergarako San Pedro parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik
eskerrik asko sendikoen izenean.

---

1. URTEURRENA

## Maritxu Eguren Zabaleta



Lehen urteurreneko meza
domekan, maiatzak 18,
12:30ean Bergarako San Pedro parrokian

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik
eskerrik asko sendikoen izenean.

---

ESKER ONA

## Maria Zubizarreta Okina

Arrasaten hil zen 2008ko maiatzaren 7an, 84 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2008ko maiatzaren 16an.

---

7. URTEURRENA

## Gillermi Llano Etxegibel



Zazpigarren urteurreneko meza domekan,
maiatzak 18, 11:30ean Aretxabaletako parrokian.
—
*Urak dakarrena urak daroa,*
*zuk emandakoa gurekin gelditzen da.*

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

---

1. URTEURRENA

## Miren Galarza Zulueta



Lehen urteurreneko meza
zapatuan, maiatzaren 17an,
19:00etan
Oñatiko Mikel Goiangeruaren Parrokian

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

---

ESKER ONA

## Felisa Zubia Larrea

Roke Kortabarriaren alarguna

Oñatin hil zen 2008ko maiatzaren 8an, 89 urte zituela.



*Zure altzuan izan*
*gera gu haziak*
*zenbat momentu eder*
*ditugun pasiak*

*zure falta gu gera*
*igartzen hasiak*
*hemen gaude zuk erein*
*zenitun haziak.*

Zure ilobak eta billobiak.
Oñatin, 2008ko maiatzaren 16an.

---

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,

deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
**Arrasate** Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05. **Oñati** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. **Aretxabaleta** Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramaio** Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22 **Elgeta** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98 **Antzuola**: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle (CIES).**



Babeslea:

OROILORE Hileta eta Beilatoki zerbitzuak
Amillaga Auzoa, 27. 20570 Bergara
Tel.: 617 442 155 - 943 76 94 73 - Faxa: 943 76 94 76
maribi@oroilore.com



Bidaia ezin hobea

OROILORE
Funeraria-Tanatorio
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| [irudia] | | | Agiri mota / Basa | | Kafea hartzeko leku / Hitza | | Gipuzkoako herria / Ugatz | |
| | | | | | | | | |
| | | | * Irudiko hiriburua / Egon dadila | | | | | |
| Zikoitza / Komunikazio mota | | Dantza mota / 50 | | | | | | Ekintza gaitzesgarria |
| | | | | | | | | |
| Potasioa / Mojagai | | Jateko gogo / Marinelen zerrenda | | | | | Bokala / ... denez, dirudienez | |
| | | | | | | | | |
| Harrapa ezan! / Perpausaren atala | | | Kontsonantea / 500 | | Gora egin / Kontsonantea | | | |
| | | | | | | | | |

GOIENKARIA

## soluzioak



Jeroglifikoa: Bikain

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 4 | 5 | 3 | 8 | 2 | 1 | 9 | 7 |
| 9 | 2 | 3 | 1 | 4 | 7 | 5 | 8 | 6 |
| 8 | 7 | 1 | 9 | 5 | 6 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 1 | 2 | 8 | 7 | 4 | 3 | 6 | 9 |
| 4 | 6 | 9 | 5 | 3 | 1 | 8 | 7 | 2 |
| 3 | 8 | 7 | 2 | 6 | 9 | 4 | 5 | 1 |
| 2 | 5 | 4 | 7 | 9 | 8 | 6 | 1 | 3 |
| 1 | 9 | 8 | 6 | 2 | 3 | 7 | 4 | 5 |
| 7 | 3 | 6 | 4 | 1 | 5 | 9 | 2 | 8 |



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| [irudia] | | | | E | | L | | I |
| | | | E | R | E | V | A | N |
| | | | | A | R | I | N | A |
| | M | | I | B | A | I | | R |
| Z | A | L | D | I | B | I | A | R |
| | Z | A | I | L | A | | R | A |
| D | E | I | | E | K | I | A | K |
| | L | A | R | R | I | T | U | |
| K | A | K | O | A | | O | A | S |

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 5 | 3 | | 2 | | | |
| | | 3 | | | | 5 | 8 | |
| | 7 | 1 | | | | 2 | | |
| 5 | | | | 7 | | | | 9 |
| 4 | | | | | | | | 2 |
| 3 | | | | 6 | | | | 1 |
| | | 4 | | | | 6 | 1 | |
| | 9 | 8 | | | | 7 | | |
| | | | 4 | | 5 | 9 | | |

## hieroglifoa

Zer atera du natur zientzietan?




## hizki salda

Emakumezkoen 6 izen

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | N | A | R | O | E | Z | N | A |
| I | A | T | E | N | A | O | U | I |
| B | I | N | E | T | M | E | T | T |
| M | A | I | A | L | E | N | O | Z |
| Z | X | U | R | E | U | E | I | I |
| B | M | E | U | I | O | R | P | B |
| O | U | T | B | R | T | E | K | E |
| U | E | R | E | E | Z | A | K | R |
| T | O | N | I | N | T | Z | A | N |



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | N | A | R | O | E | Z | N | A |
| I | A | T | E | N | A | O | U | I |
| B | I | N | E | T | M | E | T | T |
| M | A | I | A | L | E | N | O | Z |
| Z | X | U | R | E | U | E | I | I |
| B | M | E | U | I | O | R | P | B |
| O | U | T | B | R | T | E | K | E |
| U | E | R | E | E | Z | A | K | R |
| T | O | N | I | N | T | Z | A | N |



## bono fotoa



**Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaidiaren sortzailetarikoa, euskaltzalea, idazlea, politikaria, publizista eta ideia nazionalisten bultzatzaile intelektuala izan zena, Bergarako Goenkalen jaio zen 1878an. Nor zen bera?**

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar

Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ........................................
........................................
IZEN-DEITURAK........................................
TELEFONOA ........................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Dole piña lata**
**567 g - Bigarren lata erdi prezioan**

**1,50 €**

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Arrasateko **Iñaki Leguina**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: San Bernabe.**

# PRESTA ZAITEZ UDARAKO




*Iratxo Mertzeria*
BERGARA
Telesforo Aranzadi 2 – 943 76 00 79
Barruko arropa eta osagarriak




*Maka Oinetakoak*
BERGARA
Ibargarai 8 - 943 08 28 68
Homers eta Uad Medani oinetakoak
eta Janet & Janet poltsa




*KILIMA ume eta haurdunentzako arropak*
ARETXABALETA
Ilargi plaza 6 • 943 53 34 96
Noppies haurdunentzako jantziak



*LIE lurrindegia*
ARETXABALETA
Mitarte 18 • 943 79 38 59
Francesco Biasia poltsa



*MARKELIÑE umeendako arropak*
BERGARA
Herrilagunak 6 • 943 76 05 24
Neurriak 0tik 14 urtera




*Txokolate Opariak*
BERGARA
Barrenkale 28 – 943 77 70 54
Arropa eta osagarriak




*JOLAS opariak*
BERGARA
Barrenkale 27 • 943 76 46 48
Uno de 50 osagarriak



*KAPIKUA*
ARRASATE
Bañez doktorea 4 (San Andresen) • 943 79 19 94
*Opariak eta osagarriak*



*SUGAR*
ARRASATE
Olarte kalea 7 • 943 77 12 54
*Arropa eta osagarriak*

**Andoni Iñurritegi** > Abeslaria eta marrazkilaria

# "Zerbait sortzen ikusten dut nire burua, ez lantegian zortzi orduz lanean"

Sorkuntza maite du Andoni Iñurritegik. *Pottoko* ezizenez ezaguna, Never Surrender taldeko abeslaria delako da ospetsua, bai herrian zein herritik kanpo. Musikagatik ezaguna egin bada ere, umetatik marrazkia izan du pasio Iñurritegik. Nahiago du irudimena lantzea imitatzea baino, baina kopiatuz asko ikasten dela dio; gustuko kantuen bertsioak egitean gertatu den moduan.

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

**Andoni Iñurritegi (Arrasate, 1985) goi-teknikaria da diseinu eta arte plastikoetan; hau da, ilustratzailea da, hitz baten. Gasteizko Arte Eskolan hiru urtez ikasten ibili ostean, egun praktikak egiten ari da enpresa informatiko batean, web orriak diseinatzen. Ekainaren 14an amaituko ditu praktikak, eta gero, "ikusiko da".**

**Never Surrender, Trullo y Sus Zurullos eta beste zenbait proiektu musikal. Musikak badu bere pisua *Pottoko*-ren bizitzan. Zer da zuretzat punk, oi! eta rock-and-roll musika?**

Musika estiloak izateaz gain, bizitza filosofia bat da niretzat, 14-15 urte nituenetik. Nire eguneroko bizitzan pisu handia dauka, eta filosofia horren inguruan mugitzen naiz.

**Eta nolakoa da filosofia edo mugimendu horrekin identifika daitezkeen Arrasateko taldeen egoera?**

Oso ona. Talde mordoa dago Arrasaten, talde onak, eta estilo askotarikoak. Egia esan, zortea dugu, herrian estilo ezberdinez gozatzeko aukera dugu-eta. Gainera, estilo beraren barruan ere aniztasuna dagoela esango nuke. Aniztasunak aberastasuna dakar, eta hori azkenaldian herriko hainbat talde musikalki *heldu* izanarekin zerikusia duela uste dut nik.

**Never Surrenderren hitzak zuk egin izan dituzu. Asko dioten hitzak dira, kontzertuetan jarraitzaileek emozioz abesten dituztenak. Zer sentitzen da erantzun hori ikusita?**

Ba, ez dut sekula planteatu. Baina pentsatzen hasiz gero, orain dela bost urte ez nuen pentsatutako nik egindako hitzak jendeak buruz ikasiko zituenik. Hitzak idazterakoan saiatzen naiz topikoetan ez erortzen.

**Never Surrenderen azken diskoaren kantu bati *Gazte alienatuak* ipini diozu titulua. Nori dago zuzenduta?**

Gaur egungo kaleko gazteei dago zuzenduta; hau da, guri. Bizi garen garaian, eroso bizi gara eta eroso bizitzea gustatzen zaigu, oso konformistak gara. Teknologia berriek eta modek irentsita bizi da jendea, eta bizitzako errutinan erabat murgilduta gaude. Errutina horretan ez dago emankortasunik, ez sorkuntzarik, eta ez dirudi jendeak bizitzari zentzu handirik ematen dionik. Hala ere, abestiak kutsu negatiboa izan arren, ez dut dena horren ilun ikusten, eta, zorionez, inguratzen gaituen jendearen gaineko hitz positiboak ere baditugu.

**Egin dezagun salto mikrofonotik arkatzera; izan ere, marrazkia musika baino lehenago ezagutu zenuen, ezta?**

Bai, hala da. Betidanik gustatu izan zait marrazkia, txiki-txikitatik. Etxean gordeta ditut Haur Hezkuntza garaiko hainbat marrazki. Eskolakideen urtebetetzeetako marrazkietan, adibidez, nireek forma dutela ikusten da, eta nire eskolakideenak zirriborroak besterik ez zen. Gainera, oroitzen naiz margoak eta marrazteko bestelako materialak oparitzen zizkidatela.

**Txikitako zaletasunarekin goi mailako ikasketak egin. Gustura ibili zinen Arte Eskolan?**

Bai, ikasketak oso pozik egin nituen. Betidanik gustatu izan zaidana hobetzeko aukera izan nuen.

Hala ere, egia da zaletasun horretatik bizitzea oso zaila dela, eta horregatik beste adar batzuetara zabaldu naiz; esaterako, diseinu grafikora. Betidanik sortzea gustatu zait: lantegi batean baino, zerbait sortzen hobeto ikusten dut nire burua.

**Kuriositatez, zein izan da zure azken artelana?**

Orain astebete eskas Etxoste taberna berrituan horma bat dekoratzen ibili nintzen. Taberna hartu berri dutenak ezagututa, Rip taldeko *Mahoma* eta *Portu* eta Iskanbilako *Txiri* marraztu nituen. Omenaldi xume bat, eurek hasitako bidea guk jarraitzeko deia. Beraz, azken lan horretan, nire bi zaletasun nagusiak batzeko aukera izan dut.

**Musika eta marrazkia bateragarriak dira, beraz... Zer nahiago, irudimena lantzea ala imitazioak egitea?**

Nik irudimena lantzea hobesten dut. Hala ere, imitazioak egiten asko ikas daitekeela frogatu ahal izan dut, kantuen bertsioak egitean bezala.

**Oraindik, beste zaletasunik bai?**

Errugbia. Hala ere, ezin izan dut hain gustuko dudan kirol hori musikarekin batera eraman.












JOKIN BEREZIARTUA

PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak:** Ilustrazioa eta Diseinu Grafikoa. **Zaletasunak:** Musika, marrazkia eta errugbia. **Gorrotatzen duzun zer edo zer?** Estereotipo bat jarraitzen duen jendea. **Film bat:** *Braveheart*. **Liburu bat:** *La voz de Lug*, Toti Martinez de Lezearena. **Musika talde bat:** Cock Sparrer. **Disko bat:** The Clash-en *London Calling*. **Komikirik gustukoena:** *El Bruto*, Eric Powellena. **Bidaiatzeko leku bat:** Berlin. **Parrandarako leku bat:** Azpeitiko Txarrantxa taberna, bihar. **Taberna bat:** Biona.



Amaia antzokian egin zuten Arrasateko ikasleek jaialdia astelehenean; hurrengo astean beste bat izango da. IKER BARANDIARAN

**BERTSOAK** > 'BERTSOLARITZA ETA AHOZKOTASUNA' PROIEKTUA

# Ikasleak jendaurrean trebatzeko bertso saioak egiten dihardute

Eskoriatzan eta Arrasaten egin dituzte dagoeneko jaialdiak; datorren astelehenean Amaia antzokian jardungo dute beste hainbat ikaslek bertsotan

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

Orain dela zortzi urte abiatu zuen Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak *Bertsolaritza eta ahozkotasuna* proiektua ikastetxeetan. Gaur arte, 36 herritan, 86 ikastetxek egin dute bat asmoarekin. Gutxi gorabehera, 6.000 ikaslerengana iritsi dira, eta, aurreikuspenen arabera, datorren ikasturtean 7.000 ikasletik gora izango dira. Gurean, Oñatin, Errekalde Herri Eskolako, Txantxiku Ikastolako eta Elkar Hezi Ikastetxeko 104 ikaslek dihardute; Eskoriatzan, Almeneko eta Luis Ezeizako 190ek; Aretxabaletan, Kurtzebarriko 60k; eta Arrasaten, Herri Eskolako, Gazteluondoko, Santa Teresako eta Mesedeetako Andra Mari ikastetxeko 301ek. Irakasleak Nerea Urra eta Aitor Mendiluze dira.

**EGINDAKO LANAREN ERAKUSLE**

Urte osoko lanaren ostean, ikasturte amaierako jaialdia izaten da proiektuaren helburuetariko bat. Bertsolaritzaren bueltan lanean jardun duten neska-mutikoei jendaurrean kantatzeko aukera eman nahi diete horrela. Ikasleek aurreratutakoa islatzeaz gain, gurasoei zein herritarrei egindako lanaren berri eman nahi diete. Talde bakoitzak bost minutuko emanaldia gertatu du.

Emanaldiko ideiak eta bertsoak neska-mutilek landu eta sortu dituzte, eta eurak izango dira protagonistak. "Ikasleendako oso motibagarria da ikasitakoa jendaurrean proiektatzea eta aberasgarria da taldean proiektua partekatzea eta emaitzak elkarrekin gozatzea", dio Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko Transmisio batzordeak.

Jaialdiak herririk herri egingo dituzte, herri bakoitzeko ikastetxeek jaialdian bat eginez. Debagoienean dagoeneko bi jaialdi egin dituzte: hilaren 8an, Eskoriatzako museoan, eta hilaren 12an, Arrasateko Amaia antzokian. Arrasaten beste saio bat ere egingo dute maiatzaren 19an, astelehena, 17:30ean, Amaia antzokian; Aretxabaletan, hilaren 21ean, 17:30ean, Kurtzebarrin; eta Oñatin, maiatzaren 26an, 18:00etan, Gaztelekuan.

## teknologia berriak

> INFORMATIKA

### Eskuz margotutako ordenagailurako teklatuak, gure idazmahaiak dotoretzeko egokiak

Gezurra dirudien arren teklatua, edozein idazmahaitan berez hain arrunta den osagarria, artelan izan daiteke.

Eskuz margotutako teklatuak kaleratu dituzte, originalak bezain bereziak.

Egun bost diseinu daude aukeran merkatuan: loredunak dira horietatik hiru, urre kolorekoa bestea eta mosaiko itxurako marrazkiak dituen teklatu berdea hirugarrena. PC zein Mac ordenagailuekin bateragarriak dira.

Salneurria: 99 euro



Eskuz margotutako USB teklatuek 89 botoi dituzte. 308x127x21,5 mm. dira neurriak.

> ARGAZKILARITZA

### Sanyo Xacti E875: Argazki kamera arina eta erabilerraza, abilak ez direnendako ere aukerakoa

Sanyo etxeak arrakasta du definizio altuko kamera txikietan. Hortaz, diseinu sinple bezain zaindua duen kamera konpaktua kaleratu du; argazkilari abilak ez direnendako egokia.

Argazki kamerak zortzi megapixeleko sentsorea du, autoenfokeduna. Gainera, 2,5 hazbeteko TFT pantaila argazkiak ikusteko. Litiozko bateria erabiltzen du kamera arintzeko.

Salneurria: 139 euro.




Zoom optikoa hiru aldiz gehitzekoa du eta bostekoa zoom digitala.

> MUSIKA

### Oso musika zaleendako sakelako telefonoa: deiak egiteaz gain, musika entzuteko erabilgarria

Musika aparailua erosi nahi dutenendako askotan erosoagoa da aukera hori eskaintzen duen sakelako telefonoa erostea. BenQ C36 telefonoa da horretarako egokia, oso musika zaleendako gertatua. FM irrati sintonizadoreadu; bideo grabazioa soportatzen du AVI formatuan eta webcam funtzioa ere betetzen du. Audio artxiboak erreproduzitzen digu: MP3, WAV, MIDI eta AMR formatukoak; baita irratitik grabatutakoak ere. Horretaz guztiaz gain telefonoz dei daiteke.




Bi hazbeteko pantaila eta 1,3 megapixeleko kamera digitala ditu eta ebook-ak irakurtzeko ere balio du.

**Zure negozioaren erakusleihoa Interneten**

**www.goiena.net-eko blog komertzialak**

**www.goiena.net/blogak**

/aebpn
/aiastui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/bolusukaldeak
/denetik
/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/eguzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi
/gorla
/gurea
/guztizeder
/hamaikataberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jcracing
/lamaino-etxeberri
/lorelan
/korozabaleta
/kizkur
/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/optico
/otzeta
/pando
/perfipar
/puerta-ingles
/richimaier
/tabernaberri
/udalatx
/udalaitz
/urdeki
/ugartearotza
/urbieta
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot

**Eta baita ere:**

**www.aizue.com**
**www.amgautoak.com**
**www.baster-aldejatetxea.com**
**www.ehmff.com**
**www.gelatzu.com**
**www.goikobenta.com**
**www.haurtxoa.com**
**www.kizkur.com**
**www.klorofila.com**
**www.landaluze.com**
**www.lilura.com**
**www.toldoslete.com**
**www.uxarte.net**
**www.biark.net**



**Goiena.net**

## berriak

> BERGARAKO JAIAK

### Mendekoste jaietako gorabeherak GOITBn asteburuan

Bergarako Mendekoste jaietan bi saio ekoiztu ditu Goiena Telebistak; bata, Bergarako errekortadoreek domekan eskainitako ikuskizuna; eta bestea, jaiak oso-osorik jasotzen dituena. Aste honetan izan duzue aukera bi saioak ikusteko, eta asteburuan ere eskainiko dituzte saioak, astean ikusi ez dituzuenontzat. Zapatuan 19:30ean eta 20:00etan, eta domekan 15:00etan eta 15:30ean.

> 'ILUNPEAN'

### Asier Hormaza aktorea izango da 'Ilunpean' saioan

Joan den egubakoitzean iragarri genuen tarte honetan Asier Hormaza aktorea izango zela *Ilunpean* saioan. Azkenean, baina, gaur egongo da, 22:15ean.

Asier Hormaza aktorea aski ezaguna da Euskal Herrian ETBko paper komikoetan eta euskal zinemagintzan egindako lanagatik. *Eutsi!* filmean eta *Kutsidazu bidea Ixabel*-en ikusi genuen, besteak beste.

> ARRASATE IRRATIA

### Ludger Mees irakaslea 'Ilunpean' irratsaioan; sexologia eguenean

Alemanian jaiotakoa izan arren, EHUko euskara errektoreordea da Ludger Mees eta unibertsitateko irakaslea ere bai. Euskal nazionalismoaren gainean ikerketak ere egin ditu eta liburuak argitaratu. Halakoak eta beste kontatu dizkio Iker Baranadiaran kazetariari, *Ilunpean* saioan, martitzenean, 11:00etan. Bestalde, eguenean, sexologia kontuak izango dira entzungai, 11:30ean.

> ARRASATE IRRATIA

### Jabier Muguruza ikusi eta entzutera joateko sarrerak, irratian

Gehienondako aski ezaguna den kantaria ekarriko du datorren zapatuan Kultura Sailak Amaia Udal Antzokira: Jabier Muguruza. *Konplizeak* izenarekin disko berria kaleratu du eta justu horixe aurkeztuko du Arrasaten. Eta ohi duten moduan, oraingoan ere badituzte sarrerak entzuleen artean zozketatzeko. Parte hartzeko: 943 25 05 05 edo *irratia@goiena.com* edo *goiena.net* (irratiko blogean sartuta).

**'EUSKALDUNAK HIZKETAN'** > MARTITZENA, 22:15

# Eskolako oroitzapenetara, 'Euskaldunak hizketan' saioan

Garai bateko eskola kontuen berri jasoko duzue datorren martitzenean gure nagusien eskutik

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Haurtzaroko oroitzapenetan murgilduko dira gure nagusiak datorren asteko *Euskaldunak hizketan* saioan. Hala, duela urte mordoa bizitako bizipenak berreskuratuko dituzte, eskola garaia gogoratuz. Euskal Herriko hainbat txokotako nagusiek eskola nolakoa zen, irakasleen eta ikasleen arteko harremana nolakoa zen edota garai hartako hezkuntza metodoak azalduko dizkigute. Kontuan hartu behar da Francoren garaiko eskolaz aritukoa direla. Horren guztiaren berri, hainbat euskaldunen eskutik, martitzenean, 22:15ean.



Isabel Arantzabal *Euskadunak Hizketan* saioan aterako da. GOIENKARIA

**'ERREPORTAJEA'** > ASTELEHENA, 21:47

# MUk EBA ligarako txartela eskuratu duela-eta, GOITBk erreportajea eskainiko du

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Duela bi aste eskuratu zuen Mondragon Unibertsitateak EBA ligarako igoera. Azken denboraldietako ahaleginetan huts egin ostean, azkenean lortu du MUk helburua. Hori aitzakia hartuta, saio berezia eskainiko du Goiena Telebistak datorren astelehenean, 21:47an. Horretarako, klubeko kideekin berba egin du Julen Iriondok; entrenatzaile eta jokalariekin, besteak beste. Horretaz gain, Bruesa Gipuzkoa Basket taldeko entrenatzaile Pablo Olasoren hitzak entzuteko aukera ere izango duzue, eta baita Joan Pablo Cazorla 90eko hamarkadan Arrasateko klubeko jokalari izan zenaren hitzak ere. Bere garaian, EBA ligan aritu zen MU, Cazorla bertako jokalari zela, eta garai haietaz ere mintzatuko dira. Horretaz gain, Baskonian ere jokatu zuen Cazorlak.

Gainera, jokalari, jokalari ohi eta entrenatzaileen berbak entzuteaz gain, MUko arduradun batekin ere izan da Iriondo. Horiekin guztiekin hizpide izango dituzte saskibaloiaren hastapenak, 90eko hamarkadako goraldia eta etorkizuna.

## telebegi

**Aitor Arregi**

### Badatorrela Indy!

Indiana Jones-en laugarren abentura zinemara iristear dago. Pentsatzearekin motorra letxe jartzen naiz. Niretzat, beste askorentzat bezalatsu, Indiana Jones nire heroi kuttunena da. Barru-barruan ditudan umetasun garaiak pizten dizkit. Askotan txikitan barneratu duguna (*Heidi, V...*) mitifikatzera jotzen dugu eta berriz ikusi ezkero xarma hautsi daiteke. Baina Indy-ren hiru filmak askotan ditut ikusiak eta dudarik gabe esan dezaket galdu ez, irabazi egiten dutela denborarekin. Horregatik uste dut Antena 3-ek betean asmatu duela hurrengo asteetan Indy-ren filmak emititzen. Ez da lehenengo aldia kate batek saga bereko film bat jartzen duela, zinema estreinaldi batek berpizten duen interesa aprobetxatuz. Batzuetan tranpa ere egin izan dute. Antena 3-ek hain zuzen *Titanic*-en zinema arrakasta garaian *Titanic* izeneko beste telesail bat programatu zuen eta promozioan apropos filma eta telesaila nahasten zituen ikusle despistatu batzuk bereganatzeko asmoz.

Aukera aparta zinema historiako film dibertigarrienak etxean (berr)ikusteko. Lagunekin, umeekin, bikotekidearekin, edo bakarrik... Indy-k ez dio inori huts egiten!

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Ludger Mees, Ilunpean saioan; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia, Arrasateko eta ibarreko albisteekin
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*)
Elkarrizketak
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza,16**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Munduko futbola. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Kantari. **14:15** Euskaldunok hizketan. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Musikantoi. **16:15** Ur eta lur. **16:45** Albisteak. **17:15** Marrazkiak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean. **18:15**Erreportajea. **18:45**Albisteak. **19:15**Ikusmira. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Animalia. **22:15**Ilunpean: Asier Hormaza. **22:45** Berriak. **23:15**Musikantoi. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Klip 28. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 17**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak. **11:00** Ikusmira. **11:30** Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15**Klip. **12:30** Teknopolis **13:00** Eltze beroa **13:30** Erreportajea. **14:00**Animalia. **14:30**Erreportajea **15:00** Kantari. **16:00** Marrazki bizidunak. **19:00**Estetika. **19:30** Jaiak 08: Bergara. **20:00** Errekortadoreak **21:00** Teknopolis **21:30**Erreportajea **22:00**Erreportaje : Txatxilipurdi 25urte. **22:30**Ilunpean. **23:00**Musikantoi. **23:30**Jazmina. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 18**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak **11:00**Kantari. **12:00** Ur eta lur. **12:30** Berbaire. **13:00** Euskal artzainak. **13:30**Animalia. **14:00** Erreportajea: Txatxilipurdi 25 urte. **14:30** Ikusmira. **15:00** Jaiak 08: Bergara. **15:30** Errekortadoreak **16:30** Marrazki bizidunak. **19:00**Jazz gauak. **19:30** Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea **21:00** Musikantoi. **21:30** Animalia. **22:00** Astekoak. **22:15** Berbaire. **22:45**Teknopolis. **23:15** Ilunpean. **23:45** Musikantoi. **00:15** Emisio amaiera

**Astelehena, 19**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Munduko futboila. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea **14:15**Eltze beroa. **14:45**Berriak. **15:15**Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** Berbaire. **16:45** Berriak. **17:15** Marrazki bizidunak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ikusten. 1**8:15**Teknopolis. **18:45**Berriak. **19:15** Animalia. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunako. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea. **22:15** Kirolari. **22:45**Berriak. **23:15**Harmaillatik. **22:45**Gaurkoak. **23:30**28 Klipa. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena, 20**
**13:15**Emisio hasiera **13:20**Marrazki bizidunak: Munduko futbola. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea. **14:15** Harmailatik. **14:45**Berriak. **15:15**Animalia. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Kirolari. **16:15**Eltze beroa **16:45**Berriak. **17:15** Marrazki bizidunak. **17:45**Gaurkoak. **17:47** 28 Klipa .**18:15**Musikantoi. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak **19:45**Berriak. **20:15** Kantari **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis . **21:45** Gaurkoak. **21:47** Berbaire **22:15** Euskaldunak hizketan. **22:45** Berriak **23:15** Ikusmira **23:45** Gaurkoak **23:47** Erreportajea **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena, 21**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Munduko futbola. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Kantari. **14:15** Eltze berioa. **14:45**Berriak. **15:15** Berbaire **15:45** Gaurkoak **15:47** Euskaldunak hizketan. **16:15** Teknopolis **16:45** Berriak. **17:15** Marrazki bizidunak. **17:45**Gaurkoak. **17:47** Animalia. 1**8:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45** Berriak. **20:15** Zaharrak berri. **20:45** Berriak. **21:15** Ikusten. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Euskal artzainak Ameriketan. **22:15** Ur eta lur. **22:45** Berriak. **23:15** Teknopolis. **23:45** Gaurkoak.**23.47** Jazzmina.**00:15** Emisio amaiera

**Eguena, 22**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Zaharrak berri. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Marazki bizidunak. **14:15** Euskal artzainak. **14:45** Berriak. **15:15** Ikusmira. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Ur eta lur. **16:17** Eltze beroa. **16:45** Berriak. **17:15** Marrazki bizidunak. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Ilunpean. 1**8:15** Kirolari. **18:45** Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari. **20:45** Berriak. **21:15** Erreportajea. **21:45** Gaurkoak. **21:47** Berbaire. **22:15** Musikantoi. **22:45** Berriak. **23:15** Ikusten. **22:45** Gaurkoak. **23:30** Teknopolis. **00:15** Emisio amaiera

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK

**ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)**
Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK

**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA

**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**GAES**
Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93
Bergara / Zurradero 10 / 943 76 94 55

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

**ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FISIOTERAPEUTAK

**ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA**
Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

**ARZAK MIREN**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

**BASTERRETXEA MARIA**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

**IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA**
Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31

**UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.**
Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**ABUIN JOSE LUIS**
Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kiroldegian
Arrasate / Mendia Jauregia.
943 77 01 33 / 943 77 16 77

**ARANTZABAL SAIOA**
Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

**ARANTZETA JUAN MARI**
Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ELORTONDO FLOREN**
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**ARRASATE OPTIKA**
Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

**ITZIAR OPTIKA**
Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

**ITZIAR UGARTE OPTIKA**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**
Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95
Bergara / Ibargarai 16 / 943 76 15 75

**PORTALOI OPTIKA**
Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

## ORTOPEDIA

**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**AZPIAZU ARANTZAZU**
Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA**
Antzuola / Olaran etxea 3, MA10 / 670 45 19 62

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA ZENTROA**
Bergara / Herri lagunak z/g / 943 76 14 80 / 610 05 99 55

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## UROLOGOAK

**LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

## YOGA

**AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 235 753

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# Maiatzak 16-22

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguaztenaeko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

## Ospakizuna



ARETXABALETA

**> Otala Zelai eguna ospatuko dute egun osoan barrena etzi, domeka**

Honako ekintzak antolatu dituzte, beste batzuen artean: 30. herri krosa (11:00), patin topaketa (11:15), kanpai-jole zahar eta berrien emanaldia (12:30), paella lehiaketa (13:00), sagardo festa (13:30), herri bazkaria (14:30) eta beste.

## Ospakizuna



ARRASATE

**> San Isidro jaiak ospatuko dituzte aste bukaera osoan Musakolan**

Gaur, danborrada, ikurrina jasotzea, auzo afaria, rock kontzertuak eta beste izango dituzte; etzi, urrezko astokiloak, herri bazkaria, sokatira, buruhandiak… eta etzi, bukatzeko, txikiteoa, auto telegidatuen erakustaldia…

## Kontzertua



ARRASATE

**> Jessie Evans eta Toby Dammit-ek kontzertua egingo dute etzi, domeka**

Jessie Evans musikaria bere lehen bakarkako diskoa prestatzen dabil, eta horko abestiak joko ditu Toby Dammit (Iggy Pop, Swans) bateria-joleagarekin batera. Etzi izango da emanaldia, Amaia antzokiko sarreran, 20:00etan.

## Musika

ARRASATE

**> Sorkunen eta Willis Drummonden kontzertua, gaur**

Sorkun bakarlariak, Vicepresidentes bere taldearekin, kontzertua egingo du gaur gauean 3.60 aretoan. Willis Drummondekoek ere joko dute.

Gaur, 3.60 aretoan, 23:00etan.

ARRASATE

**> Beñat disko-jartzaileak emanaldia egingo du 3.60an**

Beñat (silum soundz) disko-jartzaileak dantzarako musika jarriko du bihar goizaldean 3.60 aretoan.

Emanaldia 04:00etan hasiko da.

ARRASATE, BERGARA

**> Hainbat ekintza egingo ditu Arrasate Musikalek egunotan**

Honako emanaldiak egingo dituzte: hilaren 20an, tronpeta, fliskorno eta tronpa ikasleen kontzertua, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 18:30ean; hilaren 21ean, eguaztena, piano kontzertua Bergarako musika eskolan, 18:30ean; eta hilaren 23an, datorren egubakoitza, ekintza gehiago izango dira.

Emanaldiak hilaren 20an Arrasaten eta 21ean Bergaran.

BERGARA

**> Musika eskolaren udaberriko kontzerturako txartelak**

Musika eskolak udaberriko kontzertua eta afaria egingo ditu etzi, domeka. 18:30ean, trikiti kalejira egingo dute; 19:00etan, kontzertua; eta 21:00etan, afaria eta dantzaldia.

Kontzerturako sarrerak 3 eurotan daude salgai musika eskolan; afarira joan nahi duten helduendako, gehi kontzertua, 16 eurotan; eta afaria bakarrik, 6 eurotan.

Kontzertua eta afaria etzi, domeka, izango dira, pilotalekuan, 19:00etan.

## Erakusketak

ESKORIATZA

**> 'Islama, guztion ondarea' delako erakusketa ibiltaria**

*Islama, guztion ondarea* delako erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, Ibarraundi museoan, eta bisitatzeko modua izango da hilaren 29ra arte. Islamiar mundua hainbat alderditatik aztertzeko eta ezagutzeko aukera ematen du: zientzia, kultura, kaligrafia, erlijioa, bizimodua…

Bisita ordutegia: lanegunetan, 09:00-14:00 eta 17:00-19:00; zapatuetan, 17:00-20:00; eta domeketan, 12:00-14:00 eta 17:00-19:00.

BERGARA

**> Mendekosteetako kartel lehiaketako sari banaketa**

Mendekoste jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu zuen Udalak. Orain, irabazleari saria emango diote ekitaldi baten gaur, egubakoitza. Bestalde, lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa inauguratuko dute; zabalik egongo da hilaren 24ra arte.

Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan.

## Ospakizunak

OÑATI

**> Txantxiku Ikastolaren Eguneko ospakizunak, asteburuan**

Honako ekintzak izango dituzte: gaur, egubakoitza, jolasak, kirolak, lehiaketak… ikasleendako; bestetik, jolasparkea Santa Ana ikastetxeko jolaslekuan (14:30-18:00), eta jaialdia Santa Ana antzokian, LHko ikasleendako lehenengo (14:30) eta gurasoendako gero (18:00). Bihar, zapatua, jolasparkeak izango dira Santa Anan eta plazan (11:00-14:00); ate irekien jardunaldia HHn eta LHn (11:00-13:00); antzerkia gurasoendako (12:00); eta Pirritx eta Porrotxen emanaldia kiroldegian (18:00).

Bestalde, aste osoan, 40. urteurreneko argazkien erakusketa eta bideo emanaldiak daude ikastolan.

Pirritx eta Porrotxen emanaldirako sarrerak salgai daude ikastolako idazkaritzan, 5 eurotan.

ARRASATE

**> Arrasate Herri Eskolako ikasturte amaierako jaia**

Hilaren 22an ospatuko dute, eta Arrasate Herri Eskolako guraso elkarteak honako ekintzak antolatu ditu: Jakin eta jolas ipuin eta antzerki ikuskizuna (17:00) eta Txatxilipurdirekin jolasak, tailerrak eta karaokea (17:30-19:30).

Erguin eraikinean, hilaren 22an.

PROPOSAMENA

OÑATI

### > Musikegunen barruan, Santa Cecilia abesbatza etzi

Musikegunak egitaraua aurrera doa, eta etzi, domeka, Donostiako Santa Cecilia abesbatzaren (argazkian) emanaldia izango da, Santa Anan. Hurrengo asteetan, The Beethoven String Trio (31n) eta The Silent Band (ekainaren 1ean) taldeek egingo dituzte emanaldiak.

Denetara joateko sarrerak eros daitezke kultura etxean. 6 euro da salneurria.

Emanaldi guztiak Santa Ana antzokian izango dira, 19:30ean.



ARETXABALETA

**> Euskararen Eguna ospatuko dute bihar, zapatua**

Gaur, egubakoitza, Antton Irusta ipuin kontalariak eta Enrique Morente marrazkilariak umeendako tailerra egingo dute (udaletxe zaharrean, 17:30). Bihar, zapatua, izango dira ekitaldi nagusiak: trikiti kalejira (11:00-13:00), txalaparta (12:45), baserrietako gazta-dastatzea eta bertso-trikipoteoa (13:00), baba-jana (Iturrigorri frontoian, 14:30), umeendako Zirika Zirkus tailerra (17:30), Larrin dantza (Gurea parean, 19:00), Beinke-Loramendi dantza (Arlutz osteko plazan, 19:30) eta erromeria.

Zapatuko ospakizunak 11:00etan hasiko dira, eta egun osoan izango dira ekintzak.

BERGARA

**> Gaur, egubakoitza, hasiko dira maiatzeko erromeriak**

Moiazpi dantza taldearen saioa izango da lehenengo, eta Unsain anaiekin erromeria, segidan.

Gaur, Munibe plazan, 20:30ean.

OÑATI

**> Kasablankan San Isidro jaiak ospatuko dituzte**

Honako ekintzak izango dituzte, besteak beste: gaur, egubakoitza, Isidrotxo basurdearen jaitsiera eta herri poteoa (18:00) eta Underbridge eta talde gonbidatuekin rock-metal jaialdia (21:00); bihar, zapatua, herri poteoa (13:00), mus txapelketa (16:00), arkutiraketa tailerra (16:00), jolasak (17:30), txorimaloak (19:15), auzo afaria (21:00) eta erromeria (22:30); eta etzi, domeka, meza nagusia (12:00) eta musika eskolakoen kalejira (12:30).

Ekitaldiak egongo dira gaur hasi eta etzira bitartean.

OÑATI

**> Araotz auzoko jaiak ospatuko dituzte, Trinidadearen omenez**

Bihar, zapatua, mus txapelketa (16:30), umeendako jolasak (17:00), auzo afaria (21:00) eta bola txapelketa (00:30) izango dituzte; eta etzi, domeka, meza (10:30), saldajana (11:00) herri kirolak eta bertso eta trikiti emanaldia (12:00).

Ekintzak egongo dira zapatuan eta domekan.

## Ikuskizunak

OÑATI

**> Umorezko bertso saioa egingo dute gaur, egubakoitza, gauean**

Oñatiko Bertso Eskolak antolatuta, umorezko bertso saioa egongo da gaur, egubakoitza. Honako bertsolariek hartuko dute parte: Andoni

Egaña, Angel Mari Peñagarikano, *Mañukorta*, Iker Zubeldia, Julen Zelaieta, Joxe Mundunate eta Xabier Zeberio. Amets Arzallus ibiliko da gai jartzaile lanetan.

Gaur, egubakoitza, Zuazola institutu aurrealdean, 22:30ean.

ELGETA

**> Magia gala izango da aste bukaeran Espaloia antzokian**

Gaur, egubakoitza, izango da Magia Gala, Morrison, Andy Gonzalez, Ilva Scali, Mirco eta Brando eta Silvana magoekin. Bihar, Migue magoak egingo du emanaldia. Azkenik, etzi, domeka, kaleko magia emanaldia egingo du Justo Thaus-ek.

Egubakoitzeko eta zapatuko emanaldiak 22:30ean izango dira, Espaloian; kaleko emanaldia 12:45ean hasiko da.

ARRASATE

**> Ikas-bidaian joateko, moda desfilea egingo dute gaur**

Arizmendi ikastolako Batxilergoko 1. mailako ikasleek moda desfilea egingo dute gaur, egubakoitza, ikas-bidaiarako dirua batzeko. Sarrera 4 eurotan salduko dute.

Gaur, Amaia antzokian, 18:30ean.

# Bestelakoak

DEBAGOIENA

**> Kimuak film laburren programan parte hartzeko eskariak**

Euskadiko Filmategia fundazioak egiten duen Kimuak programan parte hartzeko eskaria egin dezakete errealizadoreek edo ekoizleek. Zinema edo bideo formatuan egindako edozein ikus-entzunezko lan aurkez daiteke, 30 minututik beherakoa. 35 mm-ko azken kopia eduki behar da, eta 2007ko irailaren 30a baino beranduago egindakoa izan behar du.

Eskaerak honako helbidera bidali behar dira: Euskadiko Filmategia fundazioa (2008ko Kimuak programa); Antso Jakituna hiribidea, 17 –atzea; 20010 Donostia.

Mugaeguna uztailaren 24a da, berau barne.

Argibide gehiago: *www.filmotecavasca.com* webgunean, 943 11 55 11 telefono zenbakian edo *kimuak@filmotecavasca.com* helbide elektronikora idatzita.

ARRASATE

**> Ardo-dastatzeak egingo dituzte Kajoi tabernan**

Hilaren 19an, Señorio Villarica-ko ardoak izango dira; 20an, Talaiberri txakolina; 21ean, Castillo de Xabier; 22an, Enate; eta 23an, Rezabal txakolina. Sarrera librea izango da, eta dastatzearen ondoren pintxoak egongo dira.

18:30etik 20:30era izango dira saiook.

BERGARA

**> Ardo zuri-dastatzea egingo dute San Migel-pe elkartean**

Iñigo Mansok gidatuko du ardo-dastatzea. Izenematea hilaren 20ra arte dago zabalik, honako telefonoan: 607 94 09 75. 10 euro da.

Hilaren 22an, 19:30ean hasita.

# Zinema




## La banda nos visita ***

**Zuzendaria:** Eran Kolirin.
**Aktoreak:** Shlomi Abraham, Saleh Bakri, Ronit Elkabetz.
Israel-Frantzia-AEB, 2007.
104 min. Denondako.

*La banda nos visita* Frantziaren, Ameriketako Estatu Batuen eta Israelen arteko ekoizpenak badauzka joan zen astean komentatutako *Mil años de oración*-ekin hainbat ezaugarri komun: istorio txikiak dira, pasadizoak eta momentu bakoitzean sortzen den atmosferaren deskribapenak dira filmaren ardatz nagusiak. Bietan agertzen diren pertsonaia batzuek hizkuntza desberdinak erabiltzen dituzte, elkar ulertzeko ahalegin handiak egin behar dituzte, biek pertsonaien bakardadeari eta gizakien arteko komunikazioaren beharrari buruz hitz egiten dute.

*Mil años de oración* filmak dramara gehiago jotzen bazuen ere, Eran Kolirin zuzendariak sentimenduzko komedia erabiltzen du Egiptotik Israelera musika jotzera doan polizia banda baten abenturak kontatzeko.

Musika banda hori Israelera heltzen denean, babesik gabe eta galduta aurkitzen da, ez daki ondo nora joan eta, nahaste bat dela medio, gau bat oso herri txiki bateko biztanleen etxeetan pasa behar izango dute. Gertatzen diren harremanek ondo azaltzen dizkigute, azken finean, herrialde eta hizkuntza desberdinak erabili arren, toki guztietako gizakion beharrak, ahuleziak eta izaerak nahiko gertu izan daitezkeela. Eta, beraz, posiblea dela herrien arteko ulermena.

*La banda nos visita*-k, barrea baino gehiago, irribarrea sorrarazten du. Istorioan eguneroko egoerak eta pertsonaiak agertzen badira, horietara hurbiltzeko tonuak, modu erakargarrian, xelebrekeria, samurtasuna eta malenkonia bateratzen ditu. Eta horrela, ikusleak bat egiten du pertsonaien sentimenduekin; ikusten duguna ezaguna eta hurbila egiten zaigu.

**Antonio Zabala**

**ARAMAIO**
**KULTURA ETXEA**

**Hartz maitekorrak lurralde miresgarrian**
Domeka: 17:00.

**ARRASATE**
**AMAIA ANTZOKIA**

**10.000**
Zapatua: 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:30.

**Papá por sorpresa**
Zapatua: 17:00.

**ELGETA**
**ESPALOIA**

**A sangre fría**
Eguaztena: 21:30.

**OÑATI**
**KULTURA ETXEA**

**Al otro lado**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**EIBAR**
**UNZAGA**

**Speed racer**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

**GASTEIZ**
**GURIDI**

**Speed racer**
17:00, 19:45, 22:30.

**Una noche para morir**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**Algo pasa en Las Vegas**
17:30, 20:00, 22:30.

**88 minutos**
17:00, 19:45, 22:30.

**Sultanes**
17:30, 20:00, 22:30.

**Todos estamos invitados**
22:30.

**Iron man**
17:00, 19:45.

**Elegy**
17:30, 20:00, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Las chicas de la lencería**
17:30, 20:00, 22:30.

**Ausente**
22:30.

**Mil años de oración**
17:30, 20:00, 22:30.

**Shine a light (J.B.A.)**
18:00, 20:15, 22:30.

**Un poco de chocolate**
17:30, 20:00, 22:30.

**Fuera de carta**
18:00, 20:15, 22:30.

**La banda nos visita**
17:30, 20:00.

**Una chica cortada en dos**
18:00, 20:15, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**Expediente Anwar**
12:15, 15:55, 18:10.

**Dueños de la calle**
18:00, 20:10, 22:20, 00:30.

**La noche es nuestra**
19:40, 21:50, 00:00.

**8 citas**
12:15, 15:35.

**Una noche para morir**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**La crisis carnívora**
12:15, 15:30, 17:10, 18:50, 20:30, 22:10, 23:50.

**Speed racer**
12:15, 15:45, 18:30, 21:30, 00:15.

**Algo pasa en Las Vegas**
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Iron man**
12:15, 15:30, 17:00, 18:00, 19:30, 20:30, 22:00, 23:30, 00:30.

**Las crónicas de Spiderwick**
12:15, 16:00, 17:50.

**Horton**
12:15, 17:00, 18:45.

**Definitivamente quizás**
12:15, 15:45.

**Papá por sorpresa**
12:15, 15:40, 17:45.

**Mi monstruo y yo**
12:15, 15:30, 17:35.

**Fuera de carta**
19:50, 22:00, 00:10.

**Todos estamos invitados**
20:30, 22:30, 00:30.

**88 minutos**
20:20, 22:30, 00:40.

**Sentencia de muerte**
12:15, 16:05, 18:10, 20:15, 22:20, 00:25.

**21: blackjack**
19:50, 22:05, 00:20.

**Chantaje**
12:15, 16:20, 18:20.

**Como locos... a por el oro**
20:25, 22:35, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO**
**BOULEVARD**

**Dueños de la calle**
20:00, 22:20, 01:00.

**Elegy**
20:25, 22:40.

**Speed racer**
16:00, 17:00, 19:00, 22:00.

**21: blackjack**
17:00.

**Sentencia de muerte**
16:10, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

**Algo pasa en Las Vegas**
16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:45.

**Casual day**
20:30, 22:30, 00:30.

**Iron man**
16:00, 17:00, 19:00, 19:45, 22:00, 22:30, 00:45.

**No tan duro de pelar**
16:00, 18:05, 20:25, 22:35, 01:00.

**88 minutos**
20:15, 22:30, 00:45.

**Una noche para morir**
16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

**La isla de las almas perdidas**
16:05, 18:10, 20:20, 22:25.

**Rudy, el cerdito de carreras**
16:20, 18:20.

**Papá por sorpresa**
16:00, 18:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Mil años de oración** ***
AEB, 2007. Zuzendaria: Wayne Wang. Aktoreak: Faye Yu, Henry O, Pasha Lychnikoff.
87 min. Denondako.
Shi jauna, Pekingo alargun bat, alaba Yilan bisitatzera doa Ameriketako Estatu Batuetara. Yilan dibortziatu berri da.

**Un poco de chocolate** **
Espainia, 2007. Zuzendaria: Aitzol Aramaio. Aktoreak: Héctor Alterio, Daniel Brühl.
96 min. Denondako.
Lucas eta María anai-arrebak nagusiak dira; batera bizi dira eta oroitzapen komunak dituzte.

**8 citas** **
Espainia, 2008. Zuzendariak: Peris Romano eta Rodrigo Sorogoyen. Aktoreak: Fernando Tejero, Raúl Arévalo.
92 min. 7 urtetik gorakoendako.
Amodio istorio bat kontatzen du filmak, beronen barrenean gertatzen diren zortzi uneren berri emanaz.

**Elegy** ***
AEB, 2008. Zuzendaria: Isabel Coixet. Aktoreak: Ben Kingsley, Penélope Cruz.
108 min. 13 urtetik gorakoendako.
Irakasle batek bere ikasle gazteekin sexu harremanak izaten ditu, baina bere barruko mundua ez dio inori agertzen. Halako baten, Consuela izeneko ikaslea ezagutzen du.

**Al otro lado** ****
Alemania-Turkia, 2007.
Zuzendaria: Fatih Akin. Aktoreak: Hanna Schygulla, Patrycia Ziolkowska.
122 min. 13 urtetik gorakoendako.
Topaketa, hartu-eman eta heriotza batzuen bidez, sei pertsonaren bizitzak elkarri lotuta egongo dira une batzuetan.

**Iron man** ***
AEB, 2008. Zuzendaria: Jon Favreau. Aktoreak: Robert Downey Jr., Terrence Howard.
127 min. 7 urtetik gorakoendako.
Tony Stark armak saltzen dituen enpresa bateko ordezkaria da. Halako baten, armak daramatzan konboia erasotu egiten diote, Stark bertan doala, eta matxinatuen buruarendako arma berezi bat asmatu beharra du.

**Speed racer** **
AEB, 2008. Zuzendariak: Andy eta Larry Wachowski. Aktoreak: Emile Hirsch, Christina Ricci.
129 min. 7 urtetik gorakoendako.
Speed Racer eroso sentitzen da bolanteari eutsita. Izan ere, autoak gidatzeko jaio da: oldarkorra, intuizio handikoa eta ausarta da. Bere lehia bakarra hildako anaia Rex-en oroitzapena da.

**Fuera de carta** ***
Espainia, 2008. Zuzendaria: Nacho G. Velilla. Aktoreak: Javier Cámara, Lola Dueñas.
111 min. 13 urtetik gorakoendako.
Xantarella maila handiko jatetxea da. Maxi hango sukaldeko burua pozik dago bere bizimoduarekin. Baina, bat-batean, espero ez dituen hainbat gauza gertatuko dira.

**nire aukera**



Iñigo Almorza
Euskal Herriko errekortadore taldekoa - Bergara

## "10 egun pasa ditut Kanarietan"

Zapatu goizean lanean ibiltzen naiz eta, gero, baserriko lanak egiten ditut; ganadutegian ibiltzen naiz. Domekan buelta bat ematen dut emazte eta semearekin, eta orain beste seme baten zain gaude. Asteburu honetan lan egin behar dut, eta datorrenean, errekortadoreekin arituko naiz San Antonio auzoko jaietan.

Hemendik aurrera ia asteburu guztiak pasatuko ditugu jairik jai. Herri askotan egongo gara aurten: Arrasaten, Zumarragan, Ordizian, Lasarten, Errioxan... Gasteizko jaietan ere egongo gara egunero".

**Asteburu guztietan lanpetuta zabiltza; noiz hartzen dituzu oporrak?**
Bergarako jaien aurretik, hamar egunerako joan nintzen Kanarietara, emaztearekin. Uda guztia lanean pasa behar dut, eta huragatik egiten dut hori.

**Bergarako jaietan aritu zineten lanean. Harrera ona izan duzue?**
Beteta egon zen zezen-plaza. Errekortadore eskola ibiltaria oso ondo doa; goizetan, jende gutxiago ibili zen, baina arratsaldean, umeek, haien gurasoek eta aitaita-amamek bete zuten plaza.

**Asko gustatzen zaizu errekortadore lanetan aritzea.**
Bai; nik lan eraikuntzan egiten dut, eta errekortadoreen inguruko guztia nire zaletasun handiena da. Ganadutegiko animaliak zaindu eta zaldi eta behorren salerosketan ere ibiltzen gara.

**Errekortadore mundutik kanpo, ze zaletasun dituzu?**
Ehiza egiten dut, eta parranda asko gustatzen zait. Herri kiroletan ere ibilia naiz: jaietan, koadrilen arteko herri kiroletan parte hartu nuen.

**Parranda handia egin duzu Bergarako jaietan?**
Parranda gutxi egin dut aurten; alde horretatik, ezberdina izan da, baina herri bazkarian-eta, oso ondo pasatu dugu.

# Ardo dastatze ugari bailaran

**ARRASATEN, KAJOIN** Astelehenetik egubakoitzera bitartean ardo dastatzea egongo da egunero Kajoi tabernan

**GIPUZKOAKO TXAKOLINA** Aurten Gipuzkoako txakolin bi dastatu ahal izango dituzte ardozaleek

**BERGARA** Maiatzaren 22an ardo zuri dastatzea izango da Bergarako San Migel-Pe elkartean

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Ardoak jarraitzaile asko ditu Debagoienean. Azkenaldian bailaran egiten ari diren eta aurreikusita dauden ardo dastatzeei baino ez diegu begiratu behar horretaz ohartzeko.

Orain dela gutxi ardo dastatzea Aretxabaletako Taberna Berrin izan zen; eta orain, Arrasateri eta Bergarari tokatzen zaie hainbat izendapenetako saldak dastatzen ikastea. Arrasaten, Kajoi tabernak dastatzeak aurreikusi ditu datorren asterako. Astelehenean, hilak 19, ekingo diote horri eta egubakoitzean emango diote amaiera. Bosgarren aldia da Kajoi tabernak ardo dastatzea antolatzen duena.

Aurtengo edizioan berrikuntza sartzea erabaki du tabernako arduradun Antonio Murillok: Gipuzkoan egindako txakolina dastatu ahal izango da martitzenean eta egubakoitzean. Lehenengoan Talaiberriko txakolina probatzeko aukera izango da. Egubakoitzean, berriz, Rezabal markakoak hartuko du haren tokia. Gainera, astelehenean Errioxako Señorio Villarica, eguaztenean Nafarroako Castillo de Javier eta eguenean Somontanoko Enateko ardoen txanda izango da. Pintxoak ez dira faltako dastatzeen ondotik.

**SARRERA LIBREA**

Kajoiko dastatzean edonork parte ahal izango du; sarrera librea izango da. Hala ere, dastatze bakoitzean 50 pertsona baino ezin da egon, eta, beraz, dastatze zehatz batean interesa duenak aurretik izena eman behar du, 943 77 18 45 telefono zenbakian. Dastatzeak 18:30etik 20:30era bitartean izango dira.

Arrasatekoaz gain, ardo zuri dastatzea izango da Bergarako San Migel-Pe elkartean. Maiatzaren 22an egingo da, 19:30ean; Iñigo Manso arduratuko da hori eskaintzeaz. Izena emateko epea maiatzaren 20an bukatuko da eta zenbaki honetara deitu behar da: 607 94 09 75. Izenemateak hamar euro balio du. Ardoa ezagutzen ez duenak nahi ez duelako da.




**ARDOA DASTATZEN** Kajoi tabernako arduradun Antonio Murillo ardoa dastatzen. MIRIAN BITERI

## ahobero

### "Nik entrenatzen dudan taldean ez ditut futbol jokalari beltzak nahi, gure zaleek ez dituztelako nahi"

**Dick Advocaat** > Entrenatzailea

San Petersburgoko Zenit futbol taldearen entrenatzaile Dick Advocaatek egin ditu adierazpen horiek. Zer iritzi edukiko luke Dick Advocaatek bera beltza izango balitz? Berdina pentsatuko luke?

## iturri onetik

### Eskoriatzan areto futboleko puntako entrenatzaileak izango dira uztailean

Eskoriatzak areto futboleko elkarte nazionalaren X. kongresua hartuko du datorren uztailaren 4an, 5ean eta 6an. Ekimen horretan gaur egungo puntako entrenatzaileak izango dira, hala nola Interviu Fadesako entrenatzaile Jesus Candelas, Leis Pontevedrako teknikari Tomas de Dios Lopez, Espainiako selekzioko Mikel Gonzalez eta Errumaniako 21 urtez azpikoen hautatzaile Jean Cosac.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Boto okerra

Palestinak Hamas alderdiari eman zion garaipena azken hauteskundeetan eta Mendebaldeak ez du gustuko emaitza. Eta inongo disimulurik gabe, Israel, AEB eta Europa zigortzen ari dira palestinarrak *oker* botatu zutelako. Ospitaleak erregairik gabe gelditzeko zorian dira egunotan, besteak beste

Debagoienaren botoa ere ez da sarri goragoko batzuen gustukoa izaten. Gogoratu, bestela, Ino Galparsoro ez dela bakarrik Arrasateko alkatea, Mankomunitateko lehendakaria ere bada. Eta Debagoiena narrutik ari da ordaintzen bere boto *okerra*. Momentuz legealdi honetan egin beharreko lan asko hankaz gora gera daitezke sortu den giroarekin. Bestalde, autopista edo tren lasterrak albo batera, noizko Olandixoko tunela edota ibarreko tranbia?

## ai, ene!



### Harley hanburgesa asmatu dute dagoeneko

Harry Sperlsek hanburgesak eta Harley Davidson motorrak gustuko ditu. Hori dela eta, bi horiek bateratzea erabaki du.

www.elkartu.net/blogak/zazpi



*Eramán dotoretasuna zure etxera*

gelatzu.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51